



"Zortzi urteok
oso oparoak
izan dira
MUrendako"

Josu Zabala |
MUko errektorea | 8



Aloña Mendiren
igoera gogora
ekarriko dute

Omenaldia egingo
dute bihar, zapatua,
Azkoagainen | 21

207 neska-mutikok osatutako
Danborrada da Arrasaten, bihar | 13



Mondraren 100 urteko
historia, liburuan jasota | 14



Berrerabilpenaren eta ekonomia
solidarioaren alde: Ekocenterra | 6



EUSKADIKO BEHI SUHARRIK ONENAK, BERGARAN

Behi suharraren
lehen eguna egingo
dute domekan,
ikuskitzen, txapelketa
eta bestelakoekin | 4

Albaitari behi suharra, Bergarako Zezenak enpresarena, Bergarako zezen-plazan. Domekan, uzta txapelketarako erabiliko dute. | JAGOBA DOMINGO

Promesen mailako txapela jokoan du Rezustak

Domekan, Tolosako
Beotibarren du finala
bergararak | 28

Udako sasoiak hasiko dute igerilekuetan

Oñatin eta Bergaran asteburuan zabalik izango dira igeritokiak | IKUS 'HERRIAK' SAILA

Gaur, egubakoitza, Bergarako Agorrosingo kanpoko igerilekua eta berdegunea zabalduko dute. Ondorengo egunetan irekiko dituzte, baita ere, Oñatiko kiroldegiko berdegunea eta Usako (bihar); eta Arrasateko kanpoko igerilekuak (astelehenean). Aretxabaletan eguraldi ona egiten duenerako zabalik egoten da zelaia eta Eskoriatzan, berriz, aurten itxita egongo dira igerilekuak, obrak direla-eta.

» Oñati gestio heziketa

Lanerako gertu!



VICTOR GARGALLO
Zuzendaritza Idazkaritza

Kaixo, Victor Gargallo Sales naiz eta Zuzendaritza Idazkaritzako lehen maila ikasten ari naiz. Esperientzia hau oso ona izaten ari da, kursoaren edukia ondo osatua dago eta lan munduari begira oso baliagarria ikusten dut. Instalazioak, bestalde, bikainak dira. Gainera, praktikak atzerrian egiteko aukera ematen digute y dagoen Lan-Poltsa ere oso zabala da.



ALAZNE MARTIN
Salmenten Kudeaketa

Ikastetxe honetan 6 hilabete daramatzagu eta oso gustora gaude, klaseko harremana bikaina da eta irakasleekin oso harreman ona daukagu. Honetaz gain, instalakuntza ezinhobeak ditugu (ordenagailuak, proiektorea...) bai klaseak emateko baita bidaltzen dizkiguten lanak egiteko. Liburutegia ere asko erabiltzen dugu gure lanak jorrazteko. Esan beharra daukagu aukera ikaragarria eman digutela benetako enpresa batzuekin elkarlanean aritzeko eta 2 proiektu egiten ari gara beraientzat. Gainera, gure formakuntza bukatzeko, atzerria joateko aukera daukagu praktikak egitera. Azkenean, modulo honen ostean zein den errealitatea ikusi beharko dugu eta aukera guzti hauekin asko ikasten ari gara. Eskerrik asko.



ADEI MONDRAGON
Salmenten Kudeaketa



MAITANE LASA
Administrazioa eta Finantzak

Goi mailako heziketa ziklo bat egitea irteera ona eta azkarra da lan munduan murgiltzeko. Ni Administrazioa eta Finantzak egiten hari naiz eta ziklo oso interesgarria eta osotasun handikoa iruditzen zait. Gainera beka baten bitartez lanean egoteko aukera eman didate eta oso aberasgarria izaten ari da.



**ATE IREKIEN
JARDUNALDIAK**

Ekainak 18, 18:00



ESKAINAZA AKADEMIKOA:

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- ZUZENDARITZA IDAZKARITZA
- SALMENTA KUDEAKETA

+

“LANBIDE HEZIKETA,
LAN MERKATURA
SARBIDEA”

Hitzaldia

JOSE LUIS ALONSO

UNIBERTSITATE-ENPRESA
HARREMANEN ARDURADUNA

Enpleguaren alde indarrak batuta antolatu dute aurtengo Lanbai azoka

- ▶ Mondragon Unibertsitateak eta Arrasateko Udalak gertatu dute, beste eragile batzuekin
- ▶ Helburua da langabeendako eta enpresendako erakusleioa eta elkartzeko gunea izatea

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Langabeziaren aurka indarrak batu dituzte hainbat erakunde eta enpresak, eta horren fruituetako bat ekainaren 19an egingo den Lanbai Enplegu eta Formakuntza Azoka izango da, Arrasaten. Iaz Mondragon Unibertsitateak egin zuen halako lehenengo, eta aurtun, Arrasateko Udalak bat egin du inizatibarekin. Baina ez Udalak bakarrik: antolatzaile gisa, Arrasate Geroa Ganoraz, Eures, Lanbide eta Eusko Jaurlaritzak ere hartu dute parte; eta azokan izango direla baieztatu dute, lerro hauek idazteko unean, 45 enpresak.

Arrasateko alkate Inazio Azkarragaurizarrek eta MUko errektore Josu Zabalak elkarlanaren garrantzia azpimarratzen dute; alkateak honela dio: "Ezin gara nor bere aldetik ibili; unibertsitateak, langileak, udalak, enpresak, erakundeak... Esparru zabala izan behar da". Azokan izango diren enpresak sektore askotakoak dira, eta Debagoien eta Euskal Herri osokoak: Fagor Arrasate, Fagor Ederlan, Danobat Group, Laboral Kutxa, Irizar, Debagoieneko hainbat ikastetxe, Cikautxo, IK4-Ikerlan eta beste asko.

MU bat dator asmo horrekin eta honakoa gaineratzen du Josu Zabalak: "Helarazi behar dugu hemen unibertsitate bat daukagula, eta jendea eta ezagutza hemen gelditzen dabiltzala. Unibertsitatea herriari, lurraldeari eta Euskal Herriari begira dago. Harremana erabatekoa izan behar da". Balarako udalekiko harremana "beti ona" izan dela eta Arrasateko Udalarekiko elkarlana "pozgarria" dela gaineratzen du errektoreak.

Aurtun, leku aldaketa

Herriko langabezia tasarekin %16- kezkatuta dago Udala, eta Fagor Etxetresnen gainbehera izan zen zerbait egitera bultzatu zuen azken gertakaria. MUrekin harremanetan ipini zen, enplegu azoka elkarrekin antolatzeko.



Inazio Azkarragaurizar eta Josu Zabala, elkarri eskua ematen, egin duten hitzarmenaren ikur gisa. | L.K.

Lan bila dabiltzanek, ikasketak bukatzen dabiltzanek, curriculumak idazten edo elkarrizketak prestatzen ikasi gura dutenek... horiek guztiek dute hitzordua azokan. Azkarragaurizarren hitzetan, "azoka erakusleio bat izango da ez bakarrik langabeendako, baita gauzak aldatu gura dituztenendako ere".

Zabalak gaineratzen duenez, MUko ikasleen enplegu-tasak "oso altuak izan dira eta oraindik onak dira, baina langabezia lehen baino gehiago igartzen da". Iazko esperientziak "aurreikuspenak gainditu" zituen eta, oraindik beharra dagoela ikusita, aurtun berriz antolatzea erabaki zuten. Hori bai, aurtun beste leku baten izango da: iaz, MUren Arrasateko campusean izan zen, eta aurtun, Eskolak Garaia gunean duen eraikinean.

Bost minutuko elkarrizketak

Azokak lau zati izango ditu: batetik, lan-poltsetan izena emateko gunea egongo da. Hor izan-



Iazko enplegu azokan 300 elkarrizketa inguru egin ziren. | GOIENA

go dira MUko Enplegu eta Orientazio Zerbitzua, MUko Lan Poltsa eta MUKide, ikasleendako; eta azokara doazen guztioi irekitako beste hauek: Novia Salcedo Fundazioa, Infoempleo, Debagoieneko Enplegu zerbitzua, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu zerbitzua, Eures, AFM...

Bigarrenik, enpresendako gunea izango da. Enpresak hor ordezkaturako egongo dira, eta norberak bere curriculumazuzteko aukera izango du.

Elkarrizketa gunea ere ipiniko dute. MUko ikasle eta ikasle ohiek enpresekin bost minutuko elkarrizketak egin ahal izango dituzte. CVa utzi behar dute horretarako.

Azkenik, formazio gunea ere izango da. Lanik gabe daudenendako edo hobeto formatu gura

NON ETA NOIZ

LANBAI AZOKA

Non: MUko Goi Eskola Politeknikoak Garaian duen eraikinean.

Noiz: Ekainaren 19an, eguena; hitzaldiak hilaren 16tik 18ra.

Orduetgia: 15:00-19:00.

dutenendako, MUko bere eskaintza azalduko du.

Aurtengo beste berritasun bat hauxe da: azokaz gain, eta azoka egun aurretik, enpleguarekin zerikusi zuzena duten hainbat hitzaldi izango dira. Hilaren 16tik 18ra izango dira, 18:00etan, eta Udalak Kulturarekin utzi du horretarako. Interesa duen edozein joan daiteke. Sare sozialetan norberaren profila edo *aurkezpen txartela* nola egin, elkarrizketak eta CVak nola prestatu... horrelako gaiak landuko dituzte.

Antolatzaileek azpimarratzen dutenez, CVak aurrez uzteko aukera dago, honako lekuetan: MU, Novia Salcedo Fundazioan edo Mankomunitateko Orientazio zerbitzuan.

Miloi erdi euro

Arrasaten enplegua sustatzeko Udalak egin duen plan orokorraren barruan dago Lanbai azoka antolatzen laguntzeko erabakia. Alkatearen hitzetan, "testuinguru gogor batean etorri da hurbilketa hau", eta plan hori "elkarlanean dago oinarrituta". Denetara, 500.000 euro kudeatuko ditu Udalak enplegu plan horretarako, eta hainbat ekintza egingo ditu.

Hala, Saiolanekin, titulatu berriendako beka programa lantzen dabil; datozen asteotan jakinaraziko dute zertan datzan, zehazki. Saiolanek tutoretza emango du. Alkateak dioenez, "Oñatiko ereduan" inspiratu da eta, han egin den moduan, "Udala gehiago inplikaturako" da herritarrekin.

Beste lerro bat kontratazio zuzenak izango dira, Udalaren beharretarako. Lanbiderekin eta Foru Aldundiarekin jardungo dute langabeak kontratatuzko.

Bestalde, irailean, 50 langile baino gutxiago duten enpresei kontratatzen laguntzeko lerroa jarriko da martxan; "erronka handia", alkatearen esanetan.

Oro har, enplegu plana aurrea eroatea ere erronka da, "baliabide mugatuak" baititu Udalak, baina hala ere horren aldeko apustua egitea erabaki du.

ESANAK

"Unibertsitatea, enpresak... ezin gara nor bere aldetik ibili"

INAZIO AZKARRAGAUZAR
ARRASATEKO ALKATEA

"Arrasateko Udalaren deia oso pozgarria izan zen"

JOSU ZABALA
MU-KO ERREKTOREA

ESANAK

"Erakusleioa izango da azoka, gauzak aldatu nahi dituztenendako"

INAZIO AZKARRAGAUZAR
ARRASATEKO ALKATEA

"Gure ikasleen enplegu tasak onak dira, baina langabezia igartzen da"

JOSU ZABALA
MU-KO ERREKTOREA

Farmaziatan jarraipena egingo zaie hainbat gaixori

ANE ELORDI | DEBAGOIENA

Arrasate, Elgeta eta Bergarako farmazia banatan jarraipen farmakoterapeutikoa egingo diete paziente kroniko nagusiei, eta botika asko hartzen dituztenei. Guztira, Gipuzkoako 13 farmaziak eta 90 paziente hartuko dute parte conSIGUE egitasmoan.

Programaren helburua da botiken erabilera egokia sustatzea, horiekin lotutako arazo negatiboak murriztea eta kostuz eraginkorra izango den osasun-sistema lortzen laguntzea, farmaziatan jarraipen farmakoterapeutikorakoaren bitartez, betiere, pazienteen bizi-kalitatea hobetzeko. Hamabi hilabete iraungo du oraingoz, egitasmoak. Eta bailaratik parte hartuko duten farmaziak honakoak dira: Arrasate: Aurora Ruiz Perez; Bergara: Alvarez-Mozos eta Elgeta: Elena Elkoro.

Ospitaleratzea %55 behera

Orain abiaraziko den fasean, herritarrek lehen hartu-eman farmazian bertan egingo dute, elkarrizketa egingo zaie osasun eta botiken erabilera-ekin dituzten arazo berri emateko. Horrela, erregistroa osatuko dute. Egitasmoaren ikerketa faseak utzitako datuak onak izan dira: % 56 murriztu dira kontrolatu gabeko osasun arazoak, % 49 murriztu da larrialdi zerbitzuetara joan izana aitortu duten paziente kopurua eta % 55 murriztu da ospitaleratu izana aitortu duten paziente kopurua. Aldi berean, pazienteen bizi-kalitatea hobetu zen eta botiken kontsumoa murriztu. Hala, osasun sistemarako oso eraginkorra da: etekin handiak dakartza, kostu oso baxuekin.

Behi suharren ganaduzaleen bilkura egingo dute Bergaran

Etzi, domeka, behien txapelketak, umeendako bigantxak... izango dira

UBANE MADERA | BERGARA

Euskadiko behi suharren (borrokarako behiak) ganaduzale guztiek (hamar) eta errektadoreek (42) bat egingo dute Bergaran, Euskadiko Behi Suharraren I. Egunean. Horretarako, Seminarioko jolaslekuan hainbat gune egokituko dituzte, eta 10:00etan hasita, egun osoko ikuskizunak, txapelketak, jolasak... antolatu ditu Bergarako Zezenak enpresak, egunaren antolatzaileak, behi suhar kontuan "aditu" direnendako (ganaduzale eta errektadore) zein gainontzeko guztiendako, baita umeendako ere (egitaraua taulan).

Uztai txapelketa

Bi txapelketa egingo dituzte: "Egun oso bat antolatu nahi izan dugu, eta horren barruan hainbat ekitaldi egin. Uztaien edo anillen txapelketa da bat, 11:00etan: zortzi behi eta zortzi bikote lehiatuko dira, eta sartu beharko dituzte behien adarretan uztaiak, hiru minutuan. Ganaduzale bakoitzak behi bat ekarriko du. Hor erabakiko dugu zein den Euskadiko bikoterik onena uztaietan (errektadoreak)", azaldu du Iñigo Almortzak, Bergarako Zezenen ugazabak.

Behi suharrik onena

"Arratsaldean, berriz, erabakiko dugu zein den Euskadiko behirik onena", gaineratu du Almortzak. "Euskadiko ganaduzale guztiak datozenez, zelan guztiok esaten dugun: 'Nik dut behirik onena!'... ba erabakiko dugu zein den benetan onena. Valentziar erara erabakiko dugu: ipiniko dira piramide batzuk, taula batzuk... oztopo batzuk zezen-plazan, eta suposatzen da behia benetan suharrak bada, gora igoko dela", dio.



Iñigo Almortza ganaduzalea (goian eskuman) eta errektadoreak. | JAGOBA DOMINGO

Hori modu garbian eta "pikerik gabe" egin nahi dutenez, epaimahaia Euskaditik kanpoko hiru kidez osatu dute: Zaragozako Armando Sancho da bat, ganaduzalea, errektadore izandakoa, psikologoa...; Mika Romero, nazioarte mailako errektadore-rik onenetariko (Baiona) da bestea; eta hirugarrena Valentziako edo Nafarroako ganaduzale bat izango da.

Ganaduzaleen senidetzea

Helburu bikoitza du Behi Suharraren I. Eguna. Bata da: "Jen-

deari erakustea hemen dagoen zaletasuna; izan ere, nahiz eta batzuek nahi izaten duten hori tapatu, behi kontua eta errektadoreena hemendik sortutakoa da; hori horrela, errektadoreak eta ganaduzaleak uztartu, eta Artzain Eguna, Pottoken Eguna... egiten den moduan, Behi Suharraren Eguna egin nahi izan dugu", esplikatu du Almortzak.

Eta bigarrena da profesionalen indar-metatzea eragitea: "Euskadin demaseko ikuskizun piloak egiten dira behiekin eta zezenekin, baina nor bere aldetik ibiltzen

EGUN OSOKO EGITARAUA

10:00 Irekiera.

11:00 Euskadiko I. uztai txapelketa.

Ondoren Zezentxoak eta bigantxak guztiendatzat.

14:30 Herri bazkaria (sarrerak: Bergarako Zezenen Facebooken).

16:30 Kepa mundiala (guztiendako) betizuekin.

17:30 Umeentzako ikuskizuna, zezentxoak eta poneyak (Gorriti).

18:30 Euskadiko behi suharrik onena aukeratzeko txapelketa.

Ondoren Zezenak eta bigantxak, oztopoekin.

Sarrera: 10 euro (Facebooken eta hainbat tabernatan).

gara. Eta ikusi dugu badagoela elkartzeko beharra. Gu gara, zelanbait, giltza, guztiokin dugulako harremana, eta Euskadi mailako errektadore txapelketak guk antolatzen ditugulako. Guztiek ondo hartu zuten, eta horregatik Bergaran egitea (...) Horrelako egun bat egiteko aurrekontu handia behar da, baina ganaduzale guztiak ados jarri dira, minimo baten truke etortzeko. Euren ere garrantzitsua da (...) Lehen aldia da, eta ideia da urtero edo bi urtean behin egitea, herriz herri", azaldu du Almortzak.

Jenio bizi-bizikoak

Behi suharrak dira zezenen amak. "Tradizioz hemen beti erabili da gehiago behia, enbolatuetan... zezenak beste arazo batzuk ematen dituelako: handi egiten da, lehenago *gastatzen* da... behiak urtetan eutsi egiten dio izaera *pikanteari*... Behar dute jenioa, karakterra... Plazara irteten direnean irteten dira jendea hiltzera", azaldu du bergararrak.

DATUA

42

ERREKTADORE

Egingo diren txapelketa eta ikuskizunetan parte hartuko dute 42 errektadorek.

10

GANADUZALE

Gipuzkoatik 8, Bizkaitik 1 eta Nafarroatik 1 (jabea gipuzkoarra) etorriko dira.

AUKERA BIKAINA ARRIOLA herrian (Asparrena - Araba)

ASPARRENGO UDALAK

1.502,02 metroko partzela salgai du.

Urbanizatua, itxiera perimetrala.

Etxebizitza familiabakarra egiteko aproposa

Proposamenak aurkezteko azken eguna: ekainak 27

Informazio gehiago: www.asparrena.net edo

Udal Bulegoetan. Tel.: 945 30 40 06



PREZIOA:
83.471,47€
+ BEZa



"Estetika, ongizatea lortzeko bidea"

Mari Carmen Pardo | Lirain Estetika Zentroko arduraduna



Nolako zerbitzuak eskaintzen dituzue?

Eskaintza berezia dugu gorputz eta aurpegiko tratamenduetan eta laser bidezko depilazioan. Atsedenerako tratamenduetan hainbat zerbitzu berezi ditugu, opariak egiteko edo norberaren kapritxorako aukerakoak.

Eta produktuei eta osagarriei dagokienez?

Merkatuan nagusi diren kosmetikoekin egiten dugu lan, goreneko kalitatea dutenak. Kabinako lanaren osagarri dira. Horien artean daude, adibidez: Alquimia, Sothys, Gernetic, Germaine de Capuccini eta Maria Duol. Horrez gain, modako eta oparitarako produktu ugari ditugu.

Zerkezberdintzen zaituzte beste zentroetatik?

Zentro ekintzaile dinamikoa dugu, garai zailtan ere berrikuntzaren alde egiten duena. Gure helburua da zerbitzuaren kalitate onena prezio onean ematea. Laser bidezko depilazioan, adibidez, Alajandrita eta IPL (argi pultsatua) ezberdinek azalaren eta ilearen fototipoaren arabera depilazio egokiena egiteko modua eskaintzen digute, emaitza onak ziurtatuz saio gutxitan. Gorputzeko laserra hiru hilabete oroko saioetan egiten dugu. Gune zabal batean ileak baleude hilabetera, errepasatu egingo genuke, doan. Dirua, gainera, ez da arazoa.

Gorputz guztia depila dezakezu hilean 66,33 eurogatik.

Ze ordutegi duzue?

Zazpi profesional baino gehiago gaude Lirainen, eta eskaintza zabalagoa dugu ordutegiaren inguruan. Astelehenetik egubakoitzera, 09:30etik 20:30era dugu zabalik, etenik barik. Modu horretara, lana egiten duten guztiengana iristen gara, baita ordu librearen eguerdian bakarrik dituztenengana ere. Zapatuetan 09:00etatik 13:00etara dugu zabalik eta abuztuan, 09:00etatik 18:30era.

Ze tratamendu duzue udari begira?

Pultso magnetikoak dituen Freeze irrati-frekuentzia multipolarra dugu; kolagenoa eta elastina

berregituratzen du, azala tenkatzeko zuntzak indartuz eta zimurrak txikituz. Baditugu ere: zelulitisarendako aproposa den Vela Smooth irrati-frekuentzia, 308 indiba eta kabitazioa, besteak beste.

Ze eskaintza, promozio, duzue une honetan?

Gorputz tratamenduei dagokienez, ekainean eta uztailean %20 arteko beharpenak izango ditugu. Gorputz tratamenduetan batera elikagaien intolerantzia proba egiten dugu. Proba honek hobeto jaten, kaltegarriak izan daitezkeen elikagai batzuk baztertzen eta pisua galtzen laguntzen du.

Zerk gehiago bereizten zaituzte?

Onkologian espezializatua dagoen estetika eremuan sartuta gaude, behar horretarako egokiak diren produktuekin eta gaixotasunaren behin-behineko sintomak lasaitu, erlaxatu eta hobetzen laguntzen duten eskuz egiten diren teknika onenekin.

Mari Carmen Pardok 25 urte baino gehiago daramatza ongizatearen eta edertasunaren alorrean lanean. Lehen eguneko ilusio bera du, bezeroen beharrak asetzeko eta euren bizi kalitatea hobetzen laguntzeko ilusioa. Egun, inguruko estetika zentrorik handiena da (300 metro koadro baino gehiago ditu lokalak), eta erreferentzia da eskaintzen duen zerbitzuengatik eta teknologiarengatik.

"Dirua ez da arazoa; izan ere, gorputz osoa depila dezakezu hilean 66,33 eurogatik"

"Freeze-k kolagenoa berregituratzen du; eta zelulitisarendako, Vela Smooth irrati-frekuentzia"

"Gorputz tratamenduetan batera elikagaien intolerantzia proba egiten dugu"

GORPUTZ TRATAMENDUAK

Janarien intolerantzia proba barne.

Liposukzioa ordezkatzeko duten teknikak:

- VENUS FREEZE: gantza eta bolumena txikitzeko eta azala sendotzeko.
- VELASMOOTH: zelulitisaren aurkakoa eta gorputza moldatzeko.

**%20ko
deskontua**

LASER PLATAFORMA

Gainditu ilearen arazoa.

ARGI PULTSATUA (IPL) eta ALEJANDRITA LASERRA

Saioak 3 hilabetean behin.


Hanka osoak + izterondoak + besapeak **66,33 €/hileko**

Eskaintza baliagarria uztailearen 31 arte

Ez da osasun zentroa. RPS: 48/14

www.lirainestetika.com Bixente Ferrer, 1 ARRASATE Tel.: 943 79 52 17

LIRAIN
ESTETIKA ZENTROA



On Jose Maria Arizmendiari gainera erakusketa ipiniko dute Donostian

UBANE MADERA | ARRASATE
Datorren ekainaren 19an (19:00etan) inauguratuko dute Donostiako Santa Maria basilikan On Jose Maria Arizmendiari gainera erakusketa. Panel informatiboz osatuta, erakusketaren helburua da "haren obra eza-gutzera ematea, bere jaiotzaren ehungarren urteurrenaren hari-ra", antolatzaileen esanetan.

Orain zabaldu eta abendura arte izango da Arrasateko mugimendu kooperatiboaren bultzatzaile izan zen apaizaren gai-

neko erakusketa Donostiako alde zaharrean.

Autobusak, Arrasate
Inaugurazio ekitaldia Jose Inazio Munilla gotzainak gidatutako saio erlijiosoa izango da, eta bertara joateko autobusak aterako dira Arrasate, 17:00etan, (21:00etan itzultzeko). Intereza dutenek txartelak Ecuador Bidaietan eros ditzakete.

Arizmendiari gainera kano-nizazioaren aldeko komisioak antolatu du ekimena.

Espainiako Auzitegi Nazionalak absolutzioa eman die 26/11 auzian epaitutako 40 gazte independentistei

Auzitegi Nazionalaren absolutzioa jaso dutenen artean dago Irati Muxika. Segiko kide izateaz akusatuta, urrian hasi zuten 40 gazteon kontrako epaiketa, eta asteon eman dute epaia. Seina urteko kartzela zigorra eskatu zuen fiskalak; 240 urtekoa, orotara. Auzipetuetako lau ez ziren epaiketara agertu; Aramaion bizi den Irati Muxika, tartean. Bidez adierazi zuten ez diotela eurak epaitzeko zilegitasunik onartzen Auzitegi Nazionalari. Gerora, laurak atxilotu zituzten, "desobedientzia zibilaren bidea" hartu izana egotzita.

emaiozu euskararil

Udako ikastaroak

ikasturtea **13/14**
matrikula zabalik

UDAL EUSKALTEGIAK

Euskara ikastaroa

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2
Tel.: 943 79 70 77
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi, 13
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

BEDIA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta, 18-behea Oñati
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegia@oinati.net

Berrerabilpena eta ekonomia solidarioa sustatzeko: Ekocenterra

Arrasateko Musakola auzoan (ASAMen lekuan) zabaldu dute eta bi solairu ditu

GOIATZ ARANA | ARRASATE
Emausek ireki du Debagoieneko Ekocenterra, Arrasateko Udalak utzitako lokalean, eta Gipuzkoako Diputazioak 511.000 euro jarri ditu. Gipuzkoako hirugarrena da.

Bi funtzio nagusi beteko ditu: erabilerarik ez duten objektuak berreskuratzea eta birziklatzea. Horretarako, horien bilketa, kudeaketa eta salmenta burutuko ditu Emausek. Eta kaltetutako kolektiboen gizarteratzea.

Altzariak, arropak, osagarriak...

Bi solairu ditu. Lehenengoak 1.368 m² ditu eta honako guneak daude: berreskuratutako materialen kudeaketarako eta presta-

ketarako tailerrak; objektuen aprobeixamendurako prestakuntza ekintzak; biltegia eta SINDes-perdicio tailerra.

Bigarren solairuak, berriz, 1.200 m² ditu, eta lehen fase honetan 400 egokitu dira. Bigarren solairuan, bigarren eskuko artikuluen salmenta egingo da.

Hain justu, altzariak, arropak, osagarriak, liburuak, objektuak, etxerako artikulua... egongo dira, lehen Zaldibarko dendan salgai zeuden bigarren eskuko artikulua. Ecocenterra irekita, itxi egingo dute Zaldibarko denda, eta bertako sei pertsonako lantaldea bi lanpostu berrirekin indartuko da, etxerako bilketa indartzeko.

Apustu "potoloa"

"Donostialdearekin eta Bidasoarekin batera, Debagoienak ere badu hondakinen sorrera prebenitzeko azpiegitura bat. Berrerabilpena eta birziklapena sustatuko ditu, europar hierarkiak hondakinen kudeaketarako markatzen duen bezala", diote bultzatzaileek. Ildo horretatik, Arrasateko Udaletik esan dute Zero Zabor filosofia bultzatzen ari direla, berrerabilpena, birziklapena eta hondakinen gaikako bilketa sustatuz. Eta zehazki, apustu "potoloa" egin duela Arrasaten Ekocenterra jarriz: "ASAM pabiloiaren zati bat alokatu diogu Emaus Fundazioari 25 urterako eta prezio sinbolikoan".



J. Askasibar (Udala), I. Errazkin (Diputazioa), I. Azkarragaurizar (alkatea), O. Agirre eta Jabier Pradini (Emaus). | J. IRIORDO

25 familiari ematen die laguntza eta aholkularitza Stop Etxegabetzeak elkarteak

Heldu zaizkien familien %81 bertakoak dira, askok uste dutenaren kontrara

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Debagoienean bizi diren egoera larrien berri eman gura izan dute asteon Stop Etxegabetzeak plataformako kideek. 25 familiari ematen diete laguntza eta aholkularitza gaur egun baina egoera larrian askoz ere familia gehiago daudela salatu dute plataformakoek.

Datuak eman dituzte: heldu zaizkien familien %81a bertakoak dira. Hala, gehienak etorkinak direlako uste antza zabalduaren aurka egin dute, baita ere.

Baliabide ekonomiko eza

Ezaugarri ezberdinak gorabehera, kasu guztietan ez ordaintzeko arrazoiak, ordea, bakarra ei da: baliabide ekonomikorik ez izatea. Epe luzeko langabezia egoerak, bi urtetik gorakoak, dirusarrera minimoa bermatzeko errenta jasozten dutenak ala diru sarrera oso

txikiekin irauten dutenak dira. Plataformatik diote "fede oneko pertsonak" direla, "diru sarrerarik ala lanik balute, hipoteka ordainduko luketenak". Kaltetuak psikologikoki behea jota gerturazten

zaizkie, kontatzen dutenez. Eta fokua inon ipintzekotan, IRPHaren aplikazioan jartzen dute. Besteak beste, erakundeekiko harreman ere izan da prentsaurrekoan salatuak beste puntuetako bat.



Debagoieneko Stop Etxegabetzeak elkarteko kideak, Arrasaten. | JON BEREZIBAR



Idoia Elexpuru eta Gemma Sanchez, bonua erakusten. | L.K.

"Erosketa-bonuak onak dira merkatari zein bezeroendako"

Komertzioetako ugazabek Mankomunitatearen kanpainarekin bat egitera animatzen dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Ekainaren 30era arte dago zabalik Debagoieneko Mankomunitatearen erosketa bonuen kanpaina, eta, ordura arte, edozein unetan kanpainarekin bat egin dezakete Debagoieneko merkatariak. Horrela egin dute dagoneko hainbatek, tartean Arrasateko Gemma Sanchezek (Sikol) eta Aretxabaletako Idoia Elexpuru (Belar Meta) eta gainerrako merkatariak gauza bera egitera animatu gura dituzte. Arrasaten dagoeneko 37 komertzio atxikitu zataizkio kanpainari, eta Aretxabaletan, 12.

Idoia Elexpuru gogorazten duenez, erosketa-bonu horiek "onak dira merkatariarendako eta bezeroendako". Izan ere, 20 eurotan erosten duen bonuak 25 euroko erosketa egiteko aukera ematen dio bezeroari: bost euroko deskontua, beraz. Merkatariendako, fidelizazio modu bat izango dela espero dute, Idoia Elexpuru azaltzen duen moduan: "Gure dendara datozen bezero guztiei bonuak salgai daudela azaltzen diet, eta erostera eta harekin bueltatzera animatzen ditut. Hori detaile bat da bezeroarenganako".

Sanchezen esanetan, "jendea herriko dendetan erostera animatzeko modu bat da" eta horregatik erabaki zuen berak ere kanpainarekin bat egitea.

Bana erosteko aukera

Bi merkatari horiek kontatzen dutenez, bezero batzuek ezagutzen dute kanpaina, Gemma Sanchezek esaten duen moduan: "Bai, batzuk etorri zaizkit bonuak non truka zitzaketen galdezka".

Beste kasu batzuetan, eurek lagundu dute kanpaina gehiago zabaltzera eta ezagutzen ez zutenei haren berri ematera: zertarako diren bonuak, ze abantaila ematen duten eta non erosi zitzaketen. Eta horrek emaitza ona izan du, Idoia Elex-

pururen arabera: "Probatzen duenak beste bonu bat erosi gura izaten du, baina esaten diet norberak bakarria erosi dezakeela".

Oro har, iniziatiba ona dela deritzote, eta herrian erostera animatzeko balio duela: "Aretxabaletan 223 erosketa-bonu daude salgai, eta niri gustatuko litzaidake 223 bonu horiek guztiak Aretxabaletan trukatu daitezten"; horixe dio Idoia Elexpuru.

Askotariko komertzioak

Askotariko komertzio eta zerbitzuak daude atxikituta. Zerrenda hemen ikus daiteke: www.debagoiena.com.

Honako tokietan erosi daitezke erosketa bonuak: Arrasaten, Mankomunitatean; Aretxabaletan, Arkupe kultura etxean; Antzuolan, goizez udaletxean eta arratsaldean liburutegian; Bergaran, kultura etxeko sarrean (Errotalde jauregia); Elgetan, Julianen kioskoan; Eskoriatzan, Ibarraundi museoan; Leintz Gatzagan, Labidean eta Oñatin, udaletxean.

ESANAK

"Jendea etorri zait bonuak non truka zitzaketen galdezka"

GEMMA SANCHEZ
ARRASATEKO MERKATARIA

"Probatzen duen bezeroak beste bonu bat erosi gura izaten du"

IDOIA ELEXPURU
ARETXABALETAKO MERKATARIA

Alderdi politikoaren ustez, orain herritarren garaia da

Gure Esku Dago ekimenak deitutako giza katearen balorazioa egin dute

"Arrasate, Oñati eta Bergarako datuak Euskal Herriko beste herriekin alderatuz gero, ondoriozta dezakegu helburu guztiak askogatik gainditu ditugula; Euskal Herri mailan erreferente izan da Debagoiena".

Hori da joan den domekan Debagoiena zeharkatu zuen giza katearen gaineko balorazioa. Asier Larrañagak, Bergarako Gure Esku Dago ekimeneko koordinatzaileak zera ere gaineratu du:

"Historian egindako mobilizatorik handiena izan daiteke; 150.000 lagun inguru mobilizatzea ez da ezagutu Euskal Herrian". Ildo bereko balorazioa da antolatzaile orokorrek egindakoa.

Bada, ekimen historiko horren gaineko irakurketa eta etorkizunean izan beharko zukeen ibilbidea zein izan beharko litzatekeen galdetu diegu eskualdeko alderdi politiko nagusien ordezkariak, hiru galdera eginez.



Domekako giza katea. | J. ARANTZABAL

1. Ze irakurketa edo balorazio egiten duzue domekako giza kateaz?
2. Bat egiten duzue aldarrikapenarekin?
3. Hemendik aurrera zer egin beharko litzateke?



IBAI REDONDO | EH BILDU

"Herritarrei hitza nola eman pentsatzeko unea da"

1. "Balorazioa bikaina da. Anitza, zabala, oso jendetsua, alai, berria, parte hartzailea, ... Adjektibo guztiak positiboak dira eta labur galdutako ginateke. Honen atzean lan handia, antolatze modu berriak eta eraginkorrak daudela nabarmena da eta horiek aurrera begira bide oparoa egiteko berme onak dira".

2. "Euskal herritarren gehiengo oso zabal batek egiten du bat. Herritarrei hitza eta erabakia ematea demokrazia ariketa den heinean, (...) nor gera liteke aldarrikapen honetatik kanpo? EH Bildun hamarkadak daramatzagu aldarrikatzen Euskal Herrian dugun arazo politikoaren konponbidea herritarrei hitza ematea dela".

3. "Alderdikeriak baztertu eta euskal herritarrei etorkizuna erabakitzeko hitza nola eman pentsatzeko unea da (...) EH Bildu bidea egiten laguntzeko dago, ilusioz, indarrez... gainezka".



JUAN LUIS MERINO | EZKER ANITZA-IU

"Erabakitzeko eskubidea demokrazia ariketa da"

1. "Argi dago ekimenaren deiak arrakasta handia izan duela parte hartzeari dagokionez, euren aurreikuspenak erabat gaindituz".

2. "Erabakitzeko eskubidea demokrazia ariketa da, eta horregatik, defendatu egiten dugu. Gizarte guztiek gura duten marko politikoa aukeratzeko eskubidea bere baitan hartu eta arautuko duen elkarbizitzarako markoaren alde egiten dugu; baita independentziarako eskubidea ere, edo oraingo kasua moduan, monarkia edo errepublikaren artean aukeratzeko ere. Ez dugu bakarrik lurraldearen eta banderaren gainean erabaki gura; baita sistema politikoaren, ekonomikoaren eta sozialaren gainean ere".

3. "Printzipio demokratiko moduan ulertzen dugunez, uste dugu eskubide horren defentsa fronte identitario-nazionalak erabilia egitea haren kalterako dela, onerako baizik".



AINZANE OIARBIDE | EAJ

"Herri ekimen bezala jarraitu beharko luke"

1. "Iritzi politiko desberdinetako 150.000 lagun batzea aurrerapauso handia da. Erabakitze eskubideari dagokionez, erabilera politikoak erabat baztertu behar dira; jendeak hori eskatzen du. Bakoitzaren barne sentimendutik atera da gehien aldarrikapena baina batez ere abertzaleengandik. Abertzale ez diren babes oraindik urrutik ikusten dugu".

2. "EAJk beti aldarrikatu du erabakitze eskubidea eta defendatu du Euskal Herrian, Espainian eta Europan. Guretzat ez da aldarrikapen berria baina faltan bota dugu beste alderdi abertzaleen babes urte guzti hauetan. (...) EAJk beti defendatu eta aldarrikatu du erabakitze eskubidea euskaldunon oinarritzeko eskubide bezala (...)".

3. "Herri ekimen bezala jarraitu beharko luke eta alderdiok bigarren mailan egon. Herri ekimen den neurrian izango du arrakasta eta jarraipena".



ITZIAR LAMARAIN | PP

"Konstituzionalista naiz eta legeak betetzen ditut"

"Ni adeitsua naiz, eta ez dut ezer kontrarik. Jendeak giza katea egin gura badu, egin dezala. Eskatzen dute erabakitzeko eskubidea. Eta horretarako Konstituzioa aldatu egin beharra dago. Erreferenduma ez da legezkoa oraindik orain. Beraz, eska dezatela Konstituzio aldaketa dagokion lekuan. Ni konstituzionalista naiz, eta legeak betetzen ditut. Konstituzioa aldatzea erabakiko balitz, erreferenduma egin ahalko litzateke; eta hori ere errespetatuko nuke".

OHARRA Alderdi popularraren Arrasateko ordezkariak erantzun bakarria eman du eta halaxe dago jasota.

Alderdi sozialistaren erantzuna

Paco Gartzia, PSE-EEko Debagoieneko idazkari nagusiak adierazi du ez dutela gai horren gainean iritzirik emango.

Josu Zabala | MUko errektorea

"Oso oparoak izan dira MUrendako azken zortzi urte hauek, alde guztietatik begiratuta"

- ▶ Mondragon Unibertsitateko errektoreak kargua utziko du aurtengo abenduan
- ▶ "2008a mugarrria izan zen MUrendako, orduan finkatu genituen-eta helburuak"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Josu Zabalak 2006an hartu zuen MUko errektore kargua, Inaxio Oliveri ordezkatzuz, eta aurtengo abenduan utziko du, 8 urteren ostean. Tarte horretan garapen handia izan du unibertsitateak, bai "kualitatiboki" eta baita "kuantitatiboki" ere. 62 urterekin hartuko du erretiroa.

Zortzi urte intentsu izan dira, mugimendu askokoak. Abendutik aurrera, beste kontu batera.

Beste proiektu batzuei helduko dizkiet, MUko lanekin zerikusirik ez dutenak, proiektu pertsonalak, familiari lotuagoak.

Kargua hartu zenuenean, irudikatzen zenuen oraingo MU?

Ez. Ez nuen uste horrenbeste gauza egiteko gauza izango ginenik. Oso oparoak izan dira urte hauek, era guztietatik begiratuta.

Helburuak beteta, hortaz?

Egia esan, hasi ginenean ez zegoen helbururik. MUko errektore izatea proposatu zidatenean, uste-kabe handia izan zen. Bestalde, aukera moduan ikusi nuen. Unibertsitatea nahiko ondo ezagutzen nuen, batez ere Ikerlanen nenbiletako orduan. Baina lehen urtea unibertsitatean urreratze prozesua izan zen. Inflexio puntua, 2008an eman zen. Lan ona egin genuen hausnarketa estrategikoa lantzen eta etorkizuneko unibertsitatearen ardatzak finkatzen. Asmatu genuela esango nuke.

Zenbat ikasle ditu gaur egun MUK eta zenbat zituen duela 8 urte?

3.700 ikasle genituen 2006an. Hala ere, urte batzuk lehenago gehiago izan genituen, 4.100 inguru. 2003tik aurrera jaitziera etorri zen, demografia kontuengatik batik batik. Baina, joera horri buelta ematea lortu dugu titulazio berriekin-eta. Une honetan, 4.300 ikasleren bueltan gaude eta hurrengo ikasturtean 4.500 izatea ere espero dugu. Esan behar da, bestalde, gure unibertsitatean bi motako ikasleak ditugula: batetik, gaztetxoak; bestetik, 4.300 horiez gain, urtero, 5.000 profesional inguru igarotzen dira MUTik, lanean daudenak, hezkuntza iraunkorrekoak...

Hazteko bokazioa dauka MUK?

Bai, baina obsesio barik eta, betiere, kontuan izanda geure ingurunearekiko onuragarria den, MUrendako eroangarria den, eskaintza akademiko erakargarria den, egingarria den...

Zure agintaldian, fakultate berria sortu eta abian jarri duzue eta, besteak beste, Oñatin eta Aretxabaletan eraikin berriak egin dituzue. Bilakaera ikusgarria izan da.



Josu Zabala oraingo astean Goienaren egoitzaren aurrean, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

Jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa eman dugu. Gure hausnarketa estrategikoa ondoz ondo genuen MUren eskaintza beste eremu batzuetara ere zabaltzeko behar zela. Eta, bestetik, beste leku batzuetatik gure eskualdeko fakultateetara erakartzeko, proiektu erakargarria eskaini beharko genukeela. Eskaintza ezberdina, berezia. Eta eraikin egokiek. Arrasate, Oñati, Eskoriatza eta Aretxabaleta sendotu egin ditugu, baina baita Bidasoaldean, Bilbon edo Donostiako Basque Culinary Centerren ere.

Enpresagintza fakultateak Bilbon ere badu gunea?

Proiektu berezia da, Bilboko Udalarekin elkarlanean. Ez da fakultate bat, beste ideia bat da, proiektu batekin lotua: ekintzailetasunarekin eta berrikuntzarekin. Baina nahastuz ikasketa uniber-

tsitarioak eta ekintzailetasuna, kaleko jendea, enpresa txikiak... Ikasleak eta enpresa munduko jendea elkarrekin aritzea da asmoa. Mikroklima berezi bat sortzea ideia berriak bultzatzeko.

Enpresagintza fakultateari bultzada eman dio LEINN-ek. Mugarrria bat izan da MUn?

Bai, proiektu erakargarri eta erreferentziazkoa da, beste inon ez dagoelako ekintzailetasunarekin lotutako unibertsitate gradurik. Aurten aterako da lehen promozioa eta lortuko dugu urtero 100 bat ikasle ekintzaila ateratzea unibertsitate ondo prestatuta.

Aretxabaletako Ikus-entzunezko campusa, beste mugarrria bat?

Aukera bat. Leku arazo handia genuen Eskoriatzan, Huhezi fakultatean eta, hortaz, arnasa hartzeko ezinbestekoa izan zaigu

Aretxabaletako campus berria. Bereizi egin dugu eta bere nortasuna hartu du Ikus-entzunezkoak. Eta, bestetik, eraikina ere egokia da eta oso txukun geratu da. **Zerk bereizten du MU beste unibertsitateetatik?**

Izaerak, kooperatiba garelako. Bestetik, MU ez da gauza monolitiko bat. Lau errealitate dira, bere nortasun eta organo guztiek: Goi Eskola Politeknikoa, Enpresagintza, Huhezi eta BCC. Fakultate bakoitzak bere aukerak ditu, bere erara kudeatzeko, baina baita erantzukizuna ere. MUko errektoreari horrek ematen dio lasaitasuna. Hori ez da gertatzen beste unibertsitate batzuetan. Bestetik, MUren marka bada ikerketa eta transferentzia. Gure kezka da gazte jendea ondo hezi eta lan merkatara ondo prestatuta bidaltzea; eta profesionalak birziklatzea. Baina, baita ikerketa ere. Horretan, enprekin dihardugu, hauei lagunduz, produktu edo zerbitzuak erakargarriago eta lehiakorrago izaten, ondorioz, enpleguari eusteko. Hori oso garrantzitsua da MUrendako. Horretarako, gure bezeroak, bidelagunak, etengabe identifikatu eta elkarrekin jarduteko bokazioa daukagu.

Oronarekin batera, campus berria daukazue Hernanin. Ze dauka beritasunetik proiektu honek?

Orona da gure ikerketa eta transferentzietan bezerorik onenetakoa. Bi erakundeon interesak eroan gaitu Galarretako gunean elka-

rrekin aritzera. Eko Ingeniaritzaren alorrean jardungo dugu. **Ze eskaintzen duzue?**

Eko Ingeniaritzarekin lotutako gradu berriak: Energiaren Ingeniaritza eta Ekoteknologiak eta Prozesu Industrialetan Ingeniaritza. Lehen ikasturtea izan da oraingoa eta 100 lagun aritu dira. Oronarena da eraikina, oso modernoa, eta geuk kudeatzen dugu. Bi aldean artetik egon da interesa elkarrekin jarduteko.

Goi Eskola Politeknikoa, Ingeniaritza, MUren marka bat izan da beti. Orain ere hala da?

Bai, bai. 1.700 bat ikasle ditugu Goi Eskola Politeknikoan.

Beharrezkoak dira gaur egun ere injineruak?

Bai. Egia da gaur egun, krisiagatik-eta, soberan daudela batzuk, baina 2008an, krisiaren aurretik, injineruak behar zituzten gure enpresek. Eta, epe laburrean, hemen, berriro ere injineruak beharko dituzte.

Basque Culinary Center da MUren fakultaterik berriena. Ze moduz?

Oso apustu ausarta izan da. Atzera begiratu gero, eta ohartu gero zelako proiektua jarri genuen abian, beldurtzeko modukoa da, baina, argi eta garbi, merezi izan du. Euskal Herriaren ikurretako bat bihurtu da. Hori denek onartzen dute. Eta horri etekina atzera behar diogu. Espainian ikurra da; munduan, modu apalagoan. Batez ere gastronomiaren alorrean, mundu profesionalean, erreferentzia da. 100 ikasle inguru ari dira urtero-urtero fakultatera sartzen. Hortaz, hurrengo ikasturtean 400 bat ariko dira. %25na Euskal Herrikoak edo munduko beste toki batzuetakoak dira eta beste %50 Espainiatik etorriak. Hemengo enbaxadore onak izango dira aurrerantzean ikasle horiek guztiak.

Hurrengo errektorea?

Ez dago erabakita, baina udako oporren aurretik erabakiko dela uste dugu. Gero, azkeneko hila-beteak elarrekin jardungo dugu hurrengo errektoreak eta neuk.

Zeintzuk dira MUren erronkak?

MUren hezkuntza eredu ere berezia da, Mendeberrri, Europara ondo moldatu dena, aurretik lana ondo egin zelako. Eta, hurrengo 20 urteotan ere ahaleginak egin beharko dugu hezkuntza eredu hobetzen joateko, egoera berrietara, aldaketara, moldatzeko. Ikusteko moduak aldatzen joan go dira eta horretara egokitu behar gara. Horretan buru-belarri ari gara.

"Gaur egun 4.300 ikasle inguru ditu MUK; gora egin du azkeneko urteotan"

"Euskadiren oso enbaxadore onak izango dira BCCeko ikasle ohiak"

"Oporren aurretik erabakiko dugu zein izango den MUren errektore berria"

"Epe laburrean, hemengo enpresek injineruak beharko dituzte berriro ere"

DUELA 10 URTE

2004-06-08

Euriaren kalteak Debagoiengan

Ekaitzak hainbat arazo sortu zituen, Arrasaten eta Aretxabaletan, batez ere. Arrasaten hainbat kale hartu zituen urak, eta etxabeetan eta garajeetan –Maala kalekoetan, adibidez– ere ura sartu zen hainbat tokitan; Laubideko parkingean, esaterako, ura ateratzen ibili behar izan zuten. Aretxabaletan, berriz, euriak kalteak eragin zituen kiroldegiko teilatuan, eta ura sartu zen, ondorioz, barrura.



Autoa urretan, Arrasateko Urbarrin. | JON UGARTE

2004-06-11

Etxe beheak etxebizitzarako

Etxebizitzaren prezioek goraka zeramatzen hainbat urte eta, etxebizitzaren ohiko merkatuari beste aukera bat gehitu nahian, etxe beheak etxebizitzara gisa erabiltzeko araudia onartu zuen Bergarako Udalak. Zehaztutako baldintzetako bat izan zen lokalaren jabearen eta Udalaren arteko hitzarmen beharra: merkaturatzeaz Udala arduratuko zela erabaki zuten, eta zozketa publiko bidez egingo zutela, prezio mugatuarekin.

DUELA 5 URTE

2009-06-12

Meskita irekitzeko asmoa

Bergarako Zubiaurre kalean meskita irekitzekotan ziren herriko bizilagun pakistandarrek. Kultura jarduera musulmanetarako eta errezerako egokitu nahi zuten, eta, herrikoentzat ez ezik, bailarako gainerako pakistandarrentzako ere zerbitzua izatea ere bazen asmoa. Ordura arte ez zen meskitarik bailaran.

ARRASATE

HERRITARRAK

Jose Ramon Vitoria Musika da bere bizitzaren ardatza: egiten duen denak osagaietako bat doinua duela esan daiteke. 25 urtez Arrasate Musikalen ibilitakoa, gaur egun Huhezi-n dihardu | JULEN IRIONDO

"Zaletasun modura tarteka egiten ditut kantuak: azkena, Zigarrolakoa"

Zuzendari ere izan zen Arrasate Musikalen: Banda sortu zuen, Akordeoi Orkestra... Behar bereziak dituzten pertsonentzat ikerketan ibilia, EHUren eta Donostiako Orfeoiaren saria ere jaso zuen bere tesiak. **"Musikomio sateliteko biztanle amorratua" zarela diozu Twitter-eko kontuan.**

Batetik da keinu bat: garai batean psikiatrikoan egon nintzen, bertako gaixoekin lanean; bestetik, murgilduta nago musikan, esparru desberdinetan: sorkuntzan, musika eta dantza uztartzen, irakaskuntzan, ekoizpen lan batzuk ere egindakoa... Hainbat momentutan zorabio moduko bat sentitzen da: "Zeri heldu? Dena interesatzen zait...". Eta "sateliteko biztanle amorratua", ze sentitzen duzu hor parte zarela, baina agian une batean alendu nahi duzu apur batean, baina ezin. Horregatik satelitea: amets eta proiektu berriak, gauzak egiteko gogoia bai, baina momentu batean ezin guztietara heldu.

Ze proiektu dituzu oraintxe?

Fakultatean lan egiten dut duela sei urtetik [nahiz eta 1991n hasi Irakasle Eskolan, jardun osoko lan gisa izan ez arren]. Eta ari gara hezkuntza artistiko transdiziplinarrari buruzko proiektu oso interesgarri batekin. Uztarketa bat egiten ari gara; hezkuntza artistikoaren inguruan dauden musika, dantza, kultura bisuala, drama, eszena... denak batera hartuz materia batzuk sortzen ari gara, ez bakoitza bere aldetik hartuta. Proiektu berezia da eta hori antolatzen ari gara hiru bat urtean. Oso gustagarria da niretzako, eta oso iraultzailea, ze Estatuan ez dago halako proiekturik duen fakultaterik. Eta, bestetik, ikerketa alorrean ari naiz, koordinatzaile lanak egiten. Eta zaletasun modura, tarteka



Jose Ramon Vitoria, lantoki duen unibertsitatean, Eskoriatzan. | J.I.

"Norberak sortuak izan arren, obrek bizitza propioa hartzen dute"

"Berrikuntzaren laborategi bat da Huhezi; ikasteko aukera da niretzat"

egiten ditut kantuak, dantzak... Azkena, adibidez, Zigarrolako jaietarako egindako kantua eta musika.

Huhezi-k aukera ematen du bide berriak jorratzeko, irakaskuntzan ere sormenerako, ezta?

Bai, erabat. Berrikuntzaren laborategi bat da hau. Ikusten dugu gizarteak zer behar duen, eta aztertzen dugu apostu horiek egiteko ze bide jorratu.

Zure kasua izango da eta: jakin-mina eta kezak dituen pertsonarentzat leku aproposa, hortaz.

Oso. Hau izan da niretzako ikasteko aukera, gune, onenariokoa bat. Izan ere, esanda moduan, hainbat gauza interesatzen zaizkit, elkarrekin loturak dituztenak: hezkuntza lotuta dago psikologiarekin, gizartearekin, komunikazioarekin, hezkuntzaren irakaskuntzarekin... Oso esparru zabala jorratzen dugu hemen, eta gustura sentitzen naiz.

Aipatu duzu azkena egindako kantua; zureak dira, baita ere, Errementari dantza eta Txarridantza. Zer sentitzen da ikustean zuk egindako kantuak herriko jaietako ikur bilakatu direla?

Lehenengo sentsazioa da harrotasuna: nolako zorrea izan dudana hainbat obra konposatu eta jendearentzako gustagarri izatearekin. Ematen du egon dela konezio bat. Ohitura bihurtu da: urtero egiten da, jendea animatzen da entseatzera, parte hartzera... Bestetik, gogora etortzen zaizu nola sortu zen proiektu hura. Eta beste sentsazio bat da kantu bat sortzen duzunean zurea dela, baina une batean delegatu egiten duzula: da herriko musika herriarentzako. Norberak sortutakoa izan arren, obra horrek bizitza propioa hartzen du.

Hemen bakarrik ez, Gasteizen ere egin ei dute Errementari dantza. Bai, eguaztanean. Udala Folklore

Akademiatik deitu ziguten, ikasurte amaierako jairako nahi zutela eta, antzokirako moldatuta, bertsio txikiagoan. Printzipalantzokian izan zen, haurrek egin zuten, eta oso ondo. Eta Gasteizko jaietan ere egingo dute, Matxete plazan, nagusiek.

Besteak beste Down sindromea dutenek musika ikasteko metodo berezia proposatuz tesia egin zenuen, saritua izan zena, gainera. Aplikatu da urteotan? Emaizta onak eman ditu?

Esperientzia horrekin hamar urte egin nituen Arrasate Musikalen, hainbat pertsonarekin, denak zoragarriak. Eman baino askoz ere gehiago ikasi nuen. Eta, bestalde, oraindik ere aplikatzen ari dira Arrasate Musikalen metodologia hori; eta beste musika eskola batzuetan ere ari dira hura oinarri hartuta euren metodologia garatzen. Eta hori oso pozgarria da.

NIRE HERRIAN

SANTA BARBARA ETA ZALDIBAR

Zaldibar gustuko izango dut, ziurrenik, hainbat urtetan, egunero pasatzen nintzelako handik Arrasate Musikalera joateko. Oso oroitzen onak ematen dizkit. Baina niretzako leku gustagarria eta oso ondo sentiarazten nauena da Santa Barbara; eta agian jendeak ez du baloratzen. Nik oso gustuko dut bertan egotea.

MUSIKA ETXE BATEN FALTA

Barruan sartuta daukat. Zenbat urtean aldarrikatu dugun Musika Etxe baten beharra! Bertan biltzeko herriko dantza taldeak, askotariko musika tresnak, Euskal Herrikoak bereziki... Eta denok batera zerbait egitea. Eta pena da une honetan ere ez egotea halako gune fisiko bat. Monterron ez da horretarako egokitutakoa.

HERRIAK

ARAMAIO

Bidez Bide, ondarea zaindu eta ezagutzera emateko

Bide zaharrak aprobetxatuz ibilbide ludiko bat saretu gura dute; proiektuak auzolana du oinarri

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aspaldikoa da Bidez Bide proiektua, aurreko legealdiko korporazioa hasita zegoen gaia lantzen. Labur esateko, Aramaioko bai-laran dauden bide zaharrei beste erabilera bat eman gura diete: "Egun erabiltzen ez diren bide zaharrak aprobetxatuz ibilbide ludiko eta kultural bat saretea da asmoa", adierazi du ingurumen zinegotzi Idoia Beitiak. Ibilbide sarea diseinatu, egokitu eta ezagutzera ematea dira proiektuaren ardatzak.

Natura 2000 sarearen baitan dauden eremuak, aparteko zuhaitzak, osasun egoera onean dauden baso eta errekaak, mendizerrak eta bestelako natura intereseko guneak lotzea gura dute. Horretarako lehen interbentzio bat egin zuten apiril amaieran; auzolanean Tellerixen bidea seinaleztatzen aritu ziren. Kiroldagian hasi eta bukatzen da ibilbidea eta hiru kilometro ingurukoa da; ezagutu gura duenak seinaleak jarraitu besterik ez du egin behar.

Auzolanean, eta "poliki"

Baina nondik sortzen da Bidez Bide proiektuaren ideia? Beitiak



Herritar talde bat Tellerixen bidean barrena, maiatzaren 11n inauguratu zenean. | HAIXEOLA

ren arabera proiektuaren "aita" den Alex Mendikutek honela azaldu du: "Jendeak ezagutzen ez dituen ibilbideak erabiltzera gonbidatzea da gura duguna, bide

horiei indarra ematea. Hasieran egokitu gura genuen ibilbidea ezin izan genuen gauzatu arazo batzuk izan genituelako, eta horretatik Tellerixen ibilbideari eutsi

genion. Bide hori izan da lehena, baina ez da azkena izango". Izan ere, asmoa da poliki-poliki joatea, auzolanean betiere: "Faseka joan gura dugu, auzolanean, eta herri-tarren proposamenei zabalik. Gogoratzen dut 80 urte baino gehiago zituen pertsona batekin egon ginela eta ezagutzen ez genuen informazio mordoa eman zigula", azaldu du Beitiak. Auzolana da proiektuaren oinarrietako bat eta, era berean, lan egiteko modu horrek bizirik dirauenaren beste adierazle bat ere bada: "Herritar talde bat inplikatu da, eta esker-tzekoa da hori". Orain arte 5.000 euro inguru bideratu dira proiektura; horren ia %80a diru-laguntzen bidez jaso da.

Berreskuratu eta ezagutarazi

Maiatzaren 11n inauguratu zen Tellerixen ibilbidea, Amillena turismo elkartearen eskutik: "Elkartea sortzen ari da oraindik; ondarea babestearekin bat egiten dugu eta gure lan garrantzitsua da hori guztia ezagutzera ematea, bertako zein kanpoko herri-tarrendako", adierazi du elkarte-kide Jone Arriolabengoak.

Ibilbidearen inaugurazioan 15 bat lagunek hartu zuten parte eta ederto ibili ziren Amillena elkarte-kideek eman zizkieten azalpenak entzuten; Aramaioko historia zein istorioak ezagutzera eman gura dituzte, halako ibilbide gidatuekin zein bestelako ekintzen bidez.

ESANAK

"Bide zaharrei erabilera ludiko bat eman gura diegu"

IDOIA BEITIA | ARAMAIOKO UDALA

"Tellerixen bidea izan da lehena, baina ez da azkena izango"

ALEX MENDIKUTE | BIDEZ BIDE PROIEKTUA

"Gure lan garrantzitsua da ondarea ezagutaraztea"

JONE ARRIOLABENGOA | AMILLENA



Auzolanean jardun zuen taldea kiroldagiko pareko seinalea jartzen. | HAIXEOLA



PHONO GUNE
otorrinolarinologia klinika

HEMEN GAUDE:

Udalaitz Mediku Zentroa

Euskal Herria Plaza 3 ARRASATE – 943 79 44 22

Urbieta Mediku Zentroa

Urbieta kalea 58 DONOSTIA – 943 47 01 44

Otorrinolarinologia kontsulta berria
ARRASATEN (Udalaitz Mediku Zentroan)
Juanjo Navarro eta Mikel Landa doktoreak

Azterketa diagnostikoa teknologia aurreratuarekin eta ENTZUMEN, SUDUR, EZTARRI eta LEPOko gaixotasunen tratamendu mediku-kirurgiko integrala:

- Gortasuna, zorabioak (bertigoak) eta akufenoak
- Arnasteko zailtasunak. Errinoplastia estetikoa
- Zurrungen eta loaren apnearen tratamendua.
- Ahotsaren patologia eta otorrinolarinologia pediatrikoa

Astelehenean hasiko da udako sasoi igerilekuan

Dinamizatzaile bat egongo da, eta ogitartekoak emango dituzte kantinan

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Animazioa eta dinamizatzailea izango dira aurten kanpoko igerilekuko nobedade nagusiak: urpekaritza, urretako boleibola, saskibaloia, oreka jolasak... Askotarikoak egiteko aukera egongo da putzuetan, eta baita haietatik kanpo ere -pin-pona, dardoak, petanka...-; dinamizatzaileak 17:00etatik aurrera jardungo du. Bestalde, kantinan, ogitartekoak hasiko dira ematen, orain arteko edari, izozki eta bestelakoez gain. Etzaulkiak ere izango dira eta, aurten lehen aldiz, baita txirristak ere.

Irailaren 14ra arte iraungo du denboraldiak Musakolako kanpoko igerilekuan, eta ekainaren 20a baino lehen abonua egiten dutenen artean zozketa egingo dute, eta egokitzen zaionak doan izango du sarrera aurtengo udan. Abonuarekin ez ezik, eguneko sarrera ordainduta eta hamarreko bonuarekin ere erabili ahalko dira igerilekuak. Denboraldiko lehen eta azken asteetan eguraldi txarra egingo balu, barruko igerilekuak erabili ahal izango lirake.

Uztailerako kirol eskaintza

Bestalde, uztailerako kirol eskaintza ere prest du Aukeak: *nordic walking*, *aqua running*... Aurretik, bihar bertan, Fitness Jaia izango da, doan, askotariko diziplinak probatu ahal izateko.



Arrasateko kanpoko igerilekua. | GOIENA

Gorputza berrorekatzeko, 'K-Stretch'

Uztailerako eskaintzan dago aurten *K-Stretch*-a. Gorputzaren postura berrezten du, postura txarrak zuzenduz: traumatismoak eta muskuluen gainkargak arintzen ditu; artikulazioen mugikortasuna, arnasketa eta zirkulazioa hobetu; eta, orokorrean, estresa gaituz, pertsonaren lasaitasuna eragiten eta bizi kalitatea hobetzen du.

Uarkapen erakutsiko dute metodo berria: martitzenetan 10:30ean eta 18:15ean; eguaztenetan 07:30ean, 13:30ean eta 15:30ean; eta eguenetan 17:15ean -asteko klase bat-. Prezioa, 40 euro hilean abonatuentzat eta 50 besteentzat. Izena, Musakola kiroldegian. Aurrez jendeak metodoa probatu ahal izan dezan, martitzenean, hilak 17, lau saio egingo dituzte arratsaldez.



K-Stretch metodoa. | IRATI GOTIA

'Ontziratuz' kanpainako maiatzeko saridunen zerrenda jakinarazi du Udalak

J.B. | ARRASATE

Tuparren erabilera sustatuz hondakinak murriztea eta kontsumo arduratsua bultzatzea helburu dituen *Ontziratuz* zaitez,

erosketak ganoraz! kanpainako maiatzeko saridunen berri eman du Udalak. Irabazleek 30 euroko balioa duten produktuengatik trukatu ahalko dute saria.

MAIATZEKO ZOZKETAKO IRABAZLEEN ZERRENDA

HARATEGIAK

Saburdi

Egoitz Garai.

Salagi

Maite Arizaga.

Otamendi

Ihantz Bengoa.

Gorka

Mila Uli.

Agirre-Etxe

Arantza Etxebarria.

Landaluze

Divina Pinilla.

Kortaberri

Idoia Urrutia.

Txomin

Maitane Igartua.

ARRANDEGIAK

Kresala (I)

Arantza Telleria.

Kresala (II)

Begoña Lizarralde.

Eguren (I)

Amparo Lopez.

Eguren (II)

Luis Osatorre.

Danarrain

Feli Okarantza.

Itsaski

Mari Carmen Serna.

Debagoieneko ospitale pareko aparkalekuaren lagapena beste sei hilabetez luzatzea adostu dute

2012ko abenduaren 21ean Udalak eta Fagor Arrasate kooperatibak hitzarmen bat sinatu zuten ospitale pareko aparkalekua aldi batez lagatzeko. Erabaki horrekin gune horretako aparkaleku arazoa lausotzea lortu zen. Bada, azken Tokiko Gobernu Batzarraren hitzartu zenez, lagapen hori beste sei hilabetez luzatuko da. Sei hilabeteko lagapenagatik 3.750 euro inguru jasoko ditu Fagorrek Osakidetzaren zein Udalaren beraren eskutik.

Eskaintza bereziak edertasunean eta ongizatean lan egiten duten dendetan, Ibai-Arteren eskutik

Ibai-Arte merkatarik elkarrekin edertasunaren eta norberaren ongizatearen arloan lan egiten duten hamar dendetan 50 euroko 50 bonu zozketatuko ditu Ibai-Arte txartela erabiltzen duten bezeroen artean. Eskaintza horrekin euren bezeroen fidelotasuna saritu gura dute antolatzaileek. Uztailaren 15era arte iraungo du eskaintzak eta irailaren 30era arte trukatu ahalko dira bonuak.

Josu Uribetxeberria libre uztea eskatzeko manifestazioa gaur Herriko Plazatik (19:00)

J.B. | ARRASATE

Hainbat arrasatearrek prentsa agerraldi jendetsua egin zuten martitzenean Monterron parkean, etxean preso dagoen Josu Uribetxeberriaren askatasuna eskatzeko: "Epaitu gabeko auzi batengatik, epaitutako guztiengatik baino neurri gogorragoak jarri dizkiote. Zergatik orain? Arrazoia garbia

da: mendekua. Utz dezatela Josu libre eta harekin batera gaixorik dauden preso guztiak. Izan ere, milaka eta milaka herritarrek hori eskatu dugu behin eta berriz", adierazi zuten, besteak beste.

Hori guztia salatzen, "Arrasateko herritarrek" manifestazioa deitu dute gaurko, Herriko Plazatik abiatuta, 19:00etan.



Agerraldi jendetsua egin zuten martitzenean Monterron parkean. | JOKIN BEREZIARTUA



BEIRAN BEHAR DUZUN GUZTIA

- Beirazko lan pertsonalizatuak.
- Denetariko kristalak.
- Manparak, ispiluak.
- Ate irristagarriak.
- Plastikoa.

- Beira koloreztatua.
- Segurtasun beira.
- Etxe barruko itxierak.
- Barruko ateentzako kristalak.
- Etxeko osagarriak.

ERAKUSTOKI BERRIA

LANTEGIA ETA ERAKUSTOKIA Markulete poligonoa • Ekutio kalea 4 • 23-25 pabilioiak • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 77 07 74 (4 linea) • Faxe: 943 71 10 15
akfactory@arrasatekristaldegia.com • www.arrasatekristaldegia.com

ARRASATE
KRISTALDEGIA

Haurren danborrada egingo da bihar 207 neska-mutikorekin

Ibilbideari 19:00etan ekingo diote, betiko legez, ospitale osteko kaletik

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Danbor, barril eta makilen harra-botsen artean bihar beteko dituzte herriko txikienek jaien iragarle lanak. 19:00etan aterako dira neska mutikoak ospitale atzeko kaletik eta ohiko ibilbidetik gora, ordu eta erdiren buruan, gutxi gorabehera, helduko dira plazara Arrasate Musikaleko bandaren laguntzarekin.

Azken ukituak


Entseguetan buru-belarri azken asteetan jardun eta gero parte-hartuko duten 207 umeak gertu daude biharko. Azken entsegua bihar egingo dute, Gaztelupen, goizean, eta 18:00 aldera batuko dira ordurako eskoziar, sukaldari eta bestelako uniformeak soinean eta prest. Ohi bezala, Gari-bai, Biteri, Maala eta plazatik pasatuko da danborrada.



Karroza berria, SUDCeko biltegian. | J.B.

Karrozak itxura berria izango du

Aldaketa handirik ez du izango aurten haurren danborradak baina bai berritasun txiki bat karrozari dagokionean. Itxura aldatu eta ukitu berriak eman dizkiote haurren danborradako karrozari. Masta bat erdian eta haren puntan marrazki bizidunetako dragoi baten itxura duen irudia ipini dute elementu nagusi moduan. Bihar 48 haur txiki joango dira karroza berrian.



Argitxori egindako ongietorria 2012. urtean. | ARIZEMDI

Ikastolaren jaia egingo dute Arizmendikoek gaur

Biteri eta Seber Altube plazetan emanaldiak, tailerrak eta jolasak egingo dira arratsaldean

J.B. | ARRASATE

Orain arte ez bezala, zapatuan barik egubakoitzera aldatu dute eguna, eta, gainera, festa handiago izango da aurtengoa, ikastolako bertako artisau eta artiste-

na izango baita protagonismoa. Jaia 17:00etan hasiko da tailerren, puzgarrien eta artisau-postuen irekierarekin. Seber Altube plazan, 18:00etan, ikastolako Lehen Hezkuntzakoekin Olinpiadak egin-

go baitituzte, hirugarren mailakoek jolas tradizionalenak eta bosgarrenekoek herri-kirrolen olinpiadak. Ordu berean Biterin oholtza gainera igoko dira ikastolako hainbat artista: Beñat Arrieta, gitarra-jotzailea; Julen Azkona, piano-jotzailea; ikastolako musika talde instrumentala eta Lehen Hezkuntzako ikasleak, Akrosport erakustaldia egingo dute. Haurrentzako une handia 19:00etako izango da, ordea. Izan ere, Argitxori ongietorria orduantxe egingo diote. Horrekin batera, Mainer Altzelai ikastolako gurasoak ipuin kontaketa egingo du, eta ondoren, magia saioa izango dute hurrek Mikel Oteitza gurasoaren eta Alaiur Altzelai ikaslearen eskutik. Jaiaren amaierarako, ikastolako abesbatzak egingo du saio txoa, BHklip bideo-lehiaketaren sari-banaketa ere egingo da eta Almeneko irakasleen eta Mery May ikasle ohiaren musika-emanaldiak egingo dira. Arratsaldean zehar xaboi-ponpa erraldoiak egingo dituzte, trikitilariak alaituko dute giroa eta txosnetan, euskal kantuak abesteko aukera ere izango da.

'Udaixe'-ren ekintzetarako izena hilaren 20ra arte eman daiteke

J.B. | ARRASATE

Gaztetxokoetako ohiko egitarauak Udaixe-ko ekintzei utziko die lekua uztailean. Txanda bitan; irteerak, ekintzak, jolasak eta gazteekin eurekin Txatxilipurdikoek antolatutako jarduerak egingo dira. Ekainaren 20ra artekoa da izena emateko epean eta, hain zuzen, egun horretan bertan egitaraua zehazteko afari-bilera deitu dute.

Aukerak, hainbat

Bi zati izango ditu aurten Udaixe-k, 12 eta 17 urte bitarteko gazteentzat bideratutako ekintza sorta bereziak. Uztailaren 1etatik 11ra bitartean gazteek euren aukerako ekintzak egingo dituzte eta planifikazioa

egiteko, izena eman duten gazteekin afari-bilera egingo dute hilaren 20an bertan. Horrela aurten, gazteek euren neurria egindako egitaraua prestatzeko aukera izango dute. 20 euroko kostua du lehen zati horrek.

Abenturak Lizargaraten

Arrasate utzi eta Udaixe-ren bigarren zatia Lizargaraten gauzatuko dute eta proposatzen dena da abentura-jolas bat taldeka, 3 gau eta 4 egunez. Irteera berezi honek ere 20 euroko kostua du. Modalitate baten zein bestean ala bietan izena emateko esku-orria bete eta Gaztetxokoetan, Gazte Bulegoan ala Txatxilipurdi elkartearen egoitzan utzi behar da.



Iaz Sukarrietara eginiko irteerako argazkia. | TXATXILIPURDI



MIREN MUJICA

Nagusienak jai giro betean

Nagusien Astea ospatu dute Iturbide egoitzan oraingo astean, gaur bertan amaitu dutena goizeko bolo txapelketarekin eta arratsaldeko bingoarekin. Astean zehar musika, bestelako txapelketak, emanaldiak eta dantzaldiak izan dituzte aste berezia ospatzeko. Martitzenean bazkaria egin zuten eta irudikoa osteko dantzaldiaren une bat da.



- MUSIKA HEZKUNTZA EGOKITUA-ALTERNATIBOA
- Gitarra, piano, ukelele eta baxu eskolak.
- Ikasi musika hizkuntza modu ludiko eta esperimentalean!
- Adin guztietarako.

Alfontso X Jakintsua 7 (Grupo San Juan) ARRASATE.
Tel.: 627 13 26 14 • olatzurkia@gmail.com



Chatarrería
Mondragón, s.l.


Era guztietako txatarra eta metalak erosten ditugu.

• Pabiloiak, ganbarak... garbitu, eraikinak bota... •

Makineria handia dugu.

Txurisena poligonoa, 1. lokala.
Musakola auzoa, Pesako garajeen ondoan.
Arrasate
Telefonoak:
943 04 44 03 eta 605 75 70 04.

PUB
HAIZEA



Mondraren 100 urteko historia eta istorioak, liburu baten jasoak

Atzo aurkeztu zuten eta biharko Ardo Egunean egongo da salgai, 20 eurotan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Mondraren mendeurrena (1913-2013) dela eta antolatutako ekin-zen emaitza moduan atzo aurkeztu zuten, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, Mondraren liburua eta DVDa: "Gustura geratu gara proiektu honetarako egin dugun lanarekin eta bereziki emaitzarekin. Orain garrantzitsuena falta zaigu: ondo saltzea", adierazi du asteon Arrasate Irratian Mondrako bazkide Fernando Laspiurrek.

Lehen edizioarako 700 ale atara dituzte; liburuan argazki zaharrak eta hainbat pasarte interesgarri jasotzen dira eta DVDean, berriz, Oihan Vitoriak eta Jokin Uribeberriak iaz egin zuten dokumentala ikus daiteke. Udalaren diru-laguntzari esker izan da posible liburua argitaratzea eta horregatik atzoko aurkezpena udaletxean egin zuten.

Andueza eta Porcelen lana
Mondrako zuzendaritza utzi arren ere, Laspiur bera eta Jose Luis Ezkurra buru-belarri aritu dira proiektu honetan laguntzen. Izan ere, John Andueza eta haren emazte Marian Porcel izan dira egileak: "Jende asko dago liburu honen atzetik. Batetik, argazkien jabeak daude; horietako batzuk orain 80 urte dituzten jokalaririk ohiak dira. Bestetik,

argazki horien bila norengana jo genezakeen esan ziguten pertsonak ere badaude. Hala ere, sekulako lana egin duena, John Andueza egileaz gain, Marian Porcel izan da. Argazkiak identifikatzen, sailkatzen eta aukeratzeko lan itzela egin du", azaldu du Laspiurrek.

"Istorio dibertigarri asko ditu"
Klubaren 100 urteetako historia laburtzen saiatu dira, ez delako batere erraza mende oso bat liburu baten jasotzea –argazki zaharrenak 1923 urte ingurukoak dira–. Ezkurrak nabarmendu duenez, historiak berak baino, istorioek dute garrantzia: "Bitxikeria eta istorio dibertigarri asko jasotzen ditu. Oso erraza da irakurtzeko, gazteenetik hasi eta nagusienetara arte". Laspiurrek gaineratu du "txantxetan" ibiltzeko aitzakia ederra dela:



Jose Luis Ezkurra eta Fernando Laspiur, liburua eta DVDa eskuan. | JOKIN BEREZIARTUA

"Liburua, ikusi eta irakurtzeko erraza izateaz gain, haren gainean berba egiteko aproposa da. Aspaldiko pasadizoekin momentu eder batzuk pasatzeko aitzakia ematen du".

Liburuaren aurkezpenarekin amaitutzat eman dituzte erabat mendeurrenaren harira antolatutako ekitaldiak.

Biharko Ardo Egunean salgai
Kaleratu berri duten produktuen helburua zein den argi dute Laspiurrek zein Ezkurrak: "Mondrarendako diru-iturri izan dadi-

la". Liburuak eta DVDak –liburu barruan doa ikus-entzunezkoa– 20 euroko prezioa du; erosi gura duenak biharko Ardo Egunean izango du horretarako aukera, goiz eta arratsalde. Era berean, Itzala, Kajoi eta Monte tabernetan ere egongo dira salgai.

Ardo Egunean, gaztarik ez egoteaz aparte, nobedade nagusia da Seber Altube plazan egingo dela. Haurren danborrada Herriko plazan amaituko delako aldatu dute lekua. Gaineratu dutenez, asmoa dute Sanjuanetan ere kalean mahai bat jartzeko.



Valentzian aritu ziren gimnastak, irabazitako dominekin. | DRAGOI

Hiru podium, gimnasia aerobikoan

Bikoteka eta taldeka nabarmendu dira Dragoikoak Espainiako Txapelketan

JULEN IRIONDO | ARRASATE
Dragoi taldeko neskek oso emaitza onak lortu zituzten asteburuan Valentzian jokaturako Gimnasia Aerobikoko Espainiako Txapelketan, urteko zita garrantzitsuean.

Hirugarren nibelean, Mirentxu Amozarrainek eta Eider Altu-

bek osatutako bikoteak lehenengo postua eskuratu zuen, eta Maialen Gallardok, Maialen Diazek, Maite Olidenek eta Maitane eta Leire Ugartek osatutako taldeak, bigarrena.

Laugarren nibelean, berriz, hirugarren geratu ziren Nerea Otxoa eta Olatz Fernandez; bakar-

ka lortu zituzten arrasatearrek emaitzarik diskretuenak: bigarren nibelean, hamahirugarren Araitx Altube, eta 22. Ane Gorosabel.

Ikasturte bukaerako etxean
Aurtengo Espainiako Txapelketan inoiz baino klub eta gimnasta gehiagok hartu dute parte: Errioxako, Madrilgo, Kataluniako, Soriako, Aragoiko, Valentziako eta Euskal Herriko ordezkariak ibili ziren lehian. Txapelketako mailak ere gora egin du aurreko edizioekin alderatuta, klubeko arduradunen esanetan.

Asteburu honetan berriz ere kanpora bidaiatuko dute modalitate aerobikoan diharduten Arrasateko gimnastek; Kataluniara doaz, Hospitaletera, bertako sariketa jokatzerako.

Dragoiko gainerako kideek, berriz, ikasturte amaierako erakustaldia egingo dute domekan, 11:30ean hasita, Uarkape pilotalekuan.



OHIKO BATZAR NAGUSIA

Eguna: 2014ko ekainaren 16a.
Tokia: Kulturateko Jokin Zaitegi aretoa.
Ordua: 18:00ean, lehenengo deialdian eta 18:30ean bigarren deialdian.

GAI-ZERRENDA

- 2013ko Batzar Nagusiko aktaren onarpena.
- 2013ko jardueraren eta diru-kontuen azalpena eta, hala badagokio, onarpena.
- 2014ko bazkide ekarpenaren zenbatekoa finkatzea.
- 2014ko egitasmoak eta aurrekontua, eta hala badagokio, onarpena.
- Zuzenbide Batzordearen berritzea
- Elkartearen jakinarazpenak.
- Galdera eta erreguak.

Batzar Nagusirako dokumentazioa Txatxilipurdiko egoitzan egongo da bazkideen eskura. Nahi duenari, etxera bidali diezaiokegu dokumentazio hori.

Irati Pagoaga / Lehendakaria
Arrasate, 2014ko ekainaren 5ean.



OHIKO BATZAR NAGUSIA

Eguna: 2014ko ekainaren 16a.
Tokia: Kulturateko Jokin Zaitegi aretoa.
Ordua: 18:00ean, lehenengo deialdian eta 18:30ean bigarren deialdian.

GAI-ZERRENDA

- 2013ko Batzar Nagusiko aktaren onarpena, hala badagokio.
- 2013ko jarduera eta diru-kontuen azalpena eta onarpena, hala badagokio.
- 2014ko bazkide ekarpenaren zenbatekoari buruzko proposamena.
- 2014ko egitasmo eta aurrekontuaren azalpena eta onarpena, hala badagokio.
- Zuzendaritza Batzordearen osaketa.
- Galdera eta erreguak.

Batzarrean onartu behar diren dokumentu guztiak aldeztu aurretik elkartearen egoitzan eskuragarri izango dituzte.

Eñaut Muxika / Lehendakaria
Arrasate, 2014ko ekainaren 5ean.



OHIKO BATZAR NAGUSIA

Eguna: 2014ko ekainaren 16a.
Tokia: Kulturateko Jokin Zaitegi aretoa.
Ordua: 18:00ean, lehenengo deialdian eta 18:30ean bigarren deialdian.

GAI-ZERRENDA

- 2013ko Batzar Nagusiko aktaren onarpena.
- 2013ko jardueraren eta diru-kontuen azalpena eta onarpena, hala badagokio.
- 2014ko bazkide ekarpenaren zenbatekoa finkatzea.
- 2014ko egitasmoa eta aurrekontuaren onarpena, hala badagokio.
- Zuzendaritza Batzordearen berritzea.
- Galdera eta erreguak.

Batzarrean onartu behar diren dokumentu guztiak aldeztu aurretik elkartearen egoitzan eskuragarri izango dituzte.

Ines Alday Oruna / Lehendakaria
Arrasate, 2014ko ekainaren 5ean.



Salva Dalmau eta Jose Luis Galdos | Portaloi elkarteko kideak

"Badakigu kanpotik 200 bat lagun etorriko direla"

Aparteko kantaldi eta erromeriak antolatu ditu Portaloi Kultura Elkarteak biharko, zapatua

A.A. / U.M. | ARRASATE

Hamargarren urteurreneko ospakizun nagusia du bihar Portaloi elkarteak. Pintxo-potearekin hasiko dute eguna, eta gero kantuan egingo dute, guztiok ezagutzen ditugun kantu horiek. Herritik eta kanpotik etorritako kantuzaleak batzea dute helburu. Bukatzeko, erromeria egingo dute, eta herri bazkaria tarteko.

Arrasaten gustuko dugu kantuan eta dantzan egitea?

Hamar urtean egon gara horretan, eta taldetik 200 bat lagun pasatu dira kantuan, eta Herrixa Dantzan ekimenarekin bat egiten dugu eta urtero 80 bat-edo ibiltzen da. Oso arrakastatsua da, bai. Hori bai, krisia dela eta erretiro aurreratua dela, 55 urtetik aurrera asti handia dugu eta oso egokiak dira ekitaldi hauek, herrikoiak direlako jende guztiarentzat.

Zapatuan Herriko Plazan izango den kantaldia zelakoa izango da?

Seber Altuben elkartuko gara, Mondra taldearekin batera pintxo-jana egiteko. Gero, kalejira izango dugu, bi geldiunerekin: Arbolapetan eta Goizaldeko plazatxoan. Hiruzpalau kantu egin eta plaza abiatuko gara (13:00etan). Han, hogeitabi abesti kantatuko ditugu, txistulariek, soinu-joleek, gitarra-joleek... lagunduta; hamaazpi musikariek eman dute etortzeko berba. Hainbat herritako kantuzaleek eta dantzazaleek ere parte hartuko dute. Eta euren presentziarekin hobetu eta loratu egingo dute zapatua. Euskal Herrian 60 bat kanta-talde daude,

"17 musikariek eman dute etortzeko berba: txistulariak, soinu-joleak..."

guk harremanak landu ditugu batzuekin batez ere. Etorriko dira Donostiatik, Gernikatik, Bilbotik, Aretxabaletatik, Eibartik, Otxandiotik... Badakigu 200 bat etorriko direla. Guk ere egin izan ditugu irteerak: Bilbora, Gernikara, Gasteizera, Eibarrera...

Horiekin batera, baina, ekitaldia entzutera doanak izango du kantatzeko aukerarik?

Bai, eta kanta batzuekin kantupaperak aterako ditugu, mundu guztiarentzat. Irekia da.

Erromeriarekin borobilduko da eguna, 17:30ean; Herrixa Dantzan ekimenaren bidetik joango da?

"Luxuzko erromeria izango da arratsaldekoa: kantatutakoa"



Salva Dalmau eta Jose Luis Galdos, Arrasate Irratian, asteon. | IMANOL GALLEGU

Musikaz blai jarriko ditu asteok Arrasate Musikalek

UBANE MADERA | ARRASATE

Udako oportetara guztia emanda iritsi gura du Arrasate Musikalek eta bederatzi kontzertu iragarri ditu datozen asteotarako.

Gaur, egubakoitza, egingo ditu halako bi: 18:00etan da bata, musika eskolan bertan. Akademian ikasten diharduten hezkuntza bereziko ikasleek kontzertua egingo dute, Olaia Ramos eta Domentx Uzin irakasleen gidaritzapean.

Bestea, berriz, 20:00etan izango da, San Juan parrokian. Amaia Artzamendik zuzenduta, biolin ikasleek egingo dute emanaldia, ordubete ingurukoa. Bakarka (pianoak lagunduta) zein taldeka interpretatuko dituzte musika piezak.

Hurrengo hitzordu gertukoena bihar, zapatua, izango da. Kasu horretan, biolontxelo ikasleek egingo dute kontzertua, Igor Egidonen gidaritzapean; baina ikasle gazteez gain (ohikoena), biolontxelo ikasketak egiten dituzte betaranoek ere jardungo dute.

Eta hortik aurrera, uztail erdialdera arte, beste sei emanaldi egingo dituzte.

Julen Ribasen akuarelak Itzala tabernan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Julen Ribas arrasatearrak akuarela lanak ipini ditu ikusgai Itzala tabernan. Formatu txikiko hamasei lan ikus daitezke datozen egunetan. "Duela bi aste ipini nituen akuarelak, eta harrera ona izan dute. Formatu txikikoak dira", dio egileak.

Akuarela horietan paisaiak dira protagonista, baina oinarriak bi dira: alde batetik, hainbat bidaietan egindako erretratuak oinarri hartuta egindako lanak, eta beste alde batetik, lekuan bertan margotutakoak. "Horregatik dira formatu txikikoak, argazkiak oinarri dituztelako. Bidaietan ateratako argazkiak margolan bilakatzen ditut. Apur



Gondola baten akuarela. | JULEN RIBAS

bat handiagoak dira lekuan egindakoak. Adibidez, Kurtzeberrin egindako akuarela. Noizbehinka egiten ditut lekuan lekukoa margolanak", dio Ribasek.

Askotariko teknikak

Itzala tabernan ipini duen erakusketako lanak akuarela dira, baina askotariko teknikak erabiltzen ditu Julen Ribasek lanak egiteko; besteak beste, akrilikoa, olioak eta baita ikatz-ziriarekin egindakoak. "Gustura erabiltzen ditut teknika guztiak. Unean uneko aukeraketa egiten dut. Oraingo honetan, akuarelarekin egindako bilduma egitea erabaki dut. Aurrerago, auskalo...", esan du Julen Ribasek.

TARIFA FINKOAK INFORMATIKAN

- Word.
- Mekanografia.
- Access.
- Sistema Eragileak.
- Power point.
- Excel.
- Internet.

IRAKASLEEN FORMAZIOA

- Irakasleen formatzailea. (Lanbide prestakuntzara edo etengabeko prestakuntzara zuzendu nahi duten profesionalentzako ikastaroa.)

INGELES

- Azterketetara prestatzeko ikastaro trinkoak.
 - Pet
 - First
 - Advanced
- Ingelesa bigarren hizkuntza daukaten Irakasleentzako Didaktika eta Metodologia.



ESKOLA PARTIKULARRAK

- LMH / DBH
- Batxilergoa
- Enpresa ikasketak
- Ingeniaritza

Infomazio gehiago: 943793533
bastida@bastida.es
www.bastida.es



Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Sibi Sibi

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Gaur zabalduko dute kanpoko igerilekua

O.E. | BERGARA

Gaur, egubakoitza, zabalduko dute kanpoko igerilekua. Iralera bitartean, beraz, txirristan behera jaisteko edo zelaian eguzkia hartzeko aukera egongo da 10:00etatik 20:30ak bitartean.

Futbol zelaira pasoa

Azken prestaketa lanetan ibili dira egunotan Debagoieneko kiroldegietan. Baita Bergaran ere. Belarra mozten eta guztia garbi eta prest uzten aritu dira langileak aste honetan Agorrosinen, gaurtik aurrera erabilgarri uzteko kanpoko igerilekua eta gunea. Aurreko urteekin alderatuta, ez da berrikuntza handirik egongo baina bada berrikuntza nagusi bat: San Martzial eguneko ospakizunaren ostean, uztailearen 7tik aurrera, posible izango da kanpoko igerilekuetatik ondoko futbol zelaira pasatzea; alde biak bereizten dituen hesia zabalik egongo da. Bestalde, aurreko urteko moduan hamakak giltzapean uzteko txokoa ere egongo da, eguneroko erabilzaileren eskura.

Serafin Esnaola omenduko dute San Antonioko jaietan

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Serafin Esnaola apaiza izango dute gogoan domekan San Antonion. Jaiak ospatuko dituzte auzo horretan asteburu honetan eta egitarauaren barruan sartu dute omenaldi hori, 50 urte beteko direlako Esanolak lehen meza San Antonion eman zuenetik.

Ermitan

Etzi, domeka, eguerdian izango da Esanolaren omenaldia. Migel Anjel Elkoroberezibarren eskutik, jaietako filmak eta diapositibak erakutsiko dituzte auzoko ermitan, 12:00etan. Emanaldi horrekin omenaldia egingo diote duela mendi erdi lehen meza auzo horretan bertan eman zuen Serafin Esnaola zenari.

Buruhandiak egunero

Gaur, egubakoitza, ekainak 13, da San Antonio eguna eta egun horren bueltan ospatu ohi dituzte jaiak auzo horretan. Berez atzo, eguna, hasi zituzten, kanpai-iraultetarekin eta etxafuegoekin. Iluntzean buruhandiak ziren irtetekoak. Izan ere, horiek ez dute hutsik egingo aurtengo jaietan. Gaur ere aterako dira kalera, 18:30ean; bihar, kukañekin batera ibliko dira eta euren emango diete jaiak bukaera domekan, 19:00etan. Ordura arte, bai,



Serafin Esnaola. | GOIENA

na, egongo da zer egin San Antonio auzoan. Gaur eguerdian, esaterako, San Joxepeko abesbatzak kontzertua egingo du eta egun guztian zehar musika egongo da entzungai auzoan. Bihar goizean, berriz, zezentxoak eta poniak egongo dira eta iluntzean, urteroko sardina jana egingo dute auzoan bertan muntatzen duten karparen azpian. Friskis taldeak jarriko du giroa.

Bestalde, aurten ere egingo dute gazte mailako txirringulak lasterketa. Domeka arratsaldean izango da hori, 16:00etan. Sari banaketa 18:30an izango da.

LOMCE legearen aurkako agerraldi jendetsua deitu du Bergarako Hezkuntza Mahaiak 19rako

LOMCE hezkuntza legearen aurka protesta egiteko agerraldi jendetsua deitu du Bergarako Hezkuntza Mahaiak ekainaren 19rako, datorren egunerako. 19:00etan izango da kale agerraldia San Martin plazan. Leloa izango da: *Guztion artean lor dezakegu! Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki! LOMCEri ez!*. Lege horri ezezkoa emateaz gain, Hezkuntza Mahaiak elkarlana garrantzitsua dela uste du: "Hezkuntza eragileok LOMCEa gure herrian aplika ez dadin estrategia komunak eta bitartekoak lantzen ari gara". Hala, datorren ikasturtean ere lege horren aurkako protesta eta ekintza bateratuekin jarraituko dutela aurreratu du.

Ipuin kontaketa eta liburuak merkeago erosteko aukera datorren astean, irakurzaletasunaren astean

Euskarazko irakurzaletasunaren astea izango da hurrengo Bergaran. Hala, batetik, umeendako ipuin kontaketa egongo da Agorrosingo kanpoko gunean datorren eguaztenean, hilak 18, 17:00etan. Bestalde, astelehenetik zapatara bitartean liburuak Elkar dendan erostearren, deskontuak egongo dira. Datorren astean, beraz, euskarazko literatur liburuak erostekoan, liburu saltzaileak emandako erosketa txartela Jarduneko bulegora eraman eta deskontua abonatu diote erosketa egin duen herritarrari. Deskontuak %50 artekoak izango dira.

Bihar eguerdian egingo dute aurtengo Koldo Eleizalde literatura lehiaketako sari banaketa

Begarako udal pilotalekuan egingo dute bihar, zapatua, 12:00etan aurtengo Koldo Eleizalde literatura lehiaketako sari banaketa. Aurtengo lehiaketan, 251 ikaslek hartu dute parte ipuin idatzien generoan, 13k bertsoen kategorian, 41ek komikienean eta kontaketa eta interpretazio generoan, berriz, 100 lagunek. Azken kategoria horretan, adibidez, iaz bainok gehiagok hartu dute parte. Ipuin idatzietan, bestalde, nagusien kategorian izandako maila jaso nabarmendu du epaimahaiak. Sariak emateaz gain, ikastetxeek prestatutako zenbait emankizun ere izango dira eta saritutako lan batzuk ere ikusi edo entzungo dira.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE ARROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

ARRASATE

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABAETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABAETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

ARRASATE

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



Imanol Ituiño magoa gaur, egubakoitza, dator gaztetxera. | IMANOLITUINO.COM

Suzko erruberekin hasiko da gaztetxeko urteurren egitaraua

Gaurtik hilaren 22ra arte, era askotako ekintzak egingo dituzte 14. urteurrena ospatzeko

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Magia ikuskizuna, umeen eguna, suzko erruberek, Bartzelonako Can Vies Csa-ko lagunekin tertulia, Goiener proiektua zer den ezagutzeko hitzaldia, dantza tailerra ... denetariko ekitaldiak antolatu ditu Bergarako gaztetxeak 14. urteurrenerako. Gaur, egubakoitza, hasiko da urteurreneko

ospakizuna, eta hilaren 22ra arteko egitaraua prestatu dute.

Umeen eguna

Magia ikuskizunak emango dio hasiera 14. urteurrena ospatzeko antolatu duten egitarauari. "Imanol Ituiño etorriko da, 22:30ean. Ezaguna dugu gaztetxean. Lehenetik ere egona da, arrakasta izan

zuen bere ikuskizunak eta berriz gonbidatu dugu. Berdin gertatzen da saioa hasi aurretik egongo diren suzko erruberekin ere. Duela bi urte bota genituen lehen aldiz eta jendearen gustukoak izan direnez, errepikatu egingo dugu", dio gaztetxeko kide den Aitor Narbaizak. Eta gaineratu du: "Bihar berriz, Kataluniako Can Vies Csa-ko kide batzuk datoz eta tertulia izango dugu eurekin, hango egoera zuzenean ezagutzeko. Elkarrekin afalduko dugu".

Domekan, berriz, umeen eguna izango da gaztetxean. "Gabonetan egin genuen antzerako esperientzia lehen aldiz eta haur eta gurasoen asanblada sortu berri denez, eurekin batera antolatu dugu domekako egitaraua. Jolasaz gain, bazkaria ere egongo da, gaztetxean bertan", aurreratu du Idoia Larrañagak, gaztetxeko kideak.

"Denondako espazioa"

Gaztetxea jendeari erakustea ere gura dute urteurren honekin eta jendeak gaztetxea ezagutzea ere bada helburuetako bat, Larrañagak azaldu duenez: "Erakutsi gura dugu kontzertuez gain, gaztetxeko kultura eskaintza zabalagoa dela. Horrekin batera gaztetxea denondako espazioa dela ere azaldu gura dugu, ezagutzera animatu gura ditugu herritarrek. Horregatik erabaki dugu ekitaldi denak bertan egitea".

Gaztetxe eguna

Ekainaren 21ean egingo dute aurtengo gaztetxe eguna eta urtero legez, pati-poteo-musikatua egongo da. Herriko hainbat gunetan sei kideko talde edo koadrila ezberdinen arteko lehiaketak ere egingo dituzte. Eguaztena aurretik eman behar dute izena koadrilek. Bazkarirako txartelak ere salgai daude.

Azoka txikia egingo dute hilaren 22an Oxirondon, gauzak saldu edo trukatzeko

O.E. | BERGARA

Truke eta bigarren eskuko azoka txikia egingo dute ekainaren 22an Oxirondon, Bergaraten egitasmoaren barruan.

Herritar guztiek har dezakete parte azoka horretan, saldu edo trukatu nahi dituzten gauzak eramanda. Hori bai, bigarren eskukoak izan behar dira, edo nork

bere lanarekin egindakoak: arropak, liburuak, diskoak, jostailuak, altzariak, bildumak... Ez dira produktu berriak onartuko.

Azoka horretan parte hartzeko, baina, beharrezkoa da izena ematea, antolakuntza gaiak direla-eta. Izena ekainaren 16a, astelehena, aurretik eman behar da kultura etxean.

Datorren asteburuan izango da aurtengo 3x3 saskibaloia festa

Ekainaren 21ean eta 22an izango da aurtengo 3x3 saskibaloia txapelketa. San Martin plazan jokatu da aurturten ere, eta maila bakoitzak bere ordutegia izango du. Taldeek, eguaztena aurretik eman behar dute izena. Egun horretan, gainera, umeendako filma eskainiko dute.

"Errealitate bihurtu da egindako apustuari esker"

EAJk dio Hezkuntza saila eurak hartzean eman zaiola benetako bultzada Miguel Altuna berriari

M.A./M.B. | BERGARA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak Miguel Altuna institutu berriaren proiektua 2015 urte hasieran esleituko duela jakinarazi eta astebetara agerraldia egin du EAJk. Gipuzku Buru Batzarreko Hezkuntza saileko arduradun Karlos Ormazabalek eta Aintzane Oiarbidek, Udaleko EAJren bozeramaleak egin zuten agerraldia, eguaztenean.

Oiarbideren esanetan, proiektuari duela hamar urte eman zitzaion hasiera: "Victoriano Gallastegi alkate ohiak etxebizitza sailarekin akordioa sinatu ostean, Candy enpresa inguruko lursailak eskola berria eraikitzeko izango zirela hitzartu zen". Eta gehitu zuen: "Hamar urtez EA eta PSEko Hezkuntza sailburuekin negoziaketetan eta lanean aritu ostean, EAJk Hezkuntza sailaren ardura hartzean eman zaio Miguel Altuna proiektuari benetako bultzada. Egingo apustuari esker errealitate bihurtuko da".

Karlos Ormazabalek, bestalde, gogora ekarri zuen 2013ko Legebiltzarrerako hauteskunde kanpaina, Gipuzkoako EAJk ikastetxea bisitatu zuela legebiltzarrerako hautagaiekin, Joseba Egibar buru zela. Eta gehitu zuen: "Argi izan dugu ikastetxe berria egitea erabat beharrezkoa eta lehentasuneko zela".

"Ez genuen etsi"

Oiarbideren arabera, Bergarako EAJk gogoz eta ahaleginez egin du lan Iñigo Urkullu lehenda-

kariak Eusko Jaurlaritzako gidaritzara hartu zuenetik, duela urte bete baino gehiago: "Urku-lluk krisi testuinguru gogor baten ekin zion gobernuko lanari eta bagenekien aurrekontu guztiek %40-60ko murrizketa izango zutela eta beraz, ez zela erraza izango Miguel Altunarena bezalako eraikin berriak egiteko diru-laguntzak lortzea. Hezkuntza sailatik aurrekontu zailtasunen berri ematen ziguten, baina ez genuen etsi. Urteetako lana izan da". Hala, Bergarako EAJren ustetan beharrezkoa zen GBBko eta EBBko zuzendaritzaren inplikazioa "azken baten erabaki politikoa zelako".

Bestetik, prozesuan barrena Miguel Altuna institutukoekin "etengabeko kontaktuan" egon direla ere argitu zuen Oiarbidek eta eskerrak ere eman zizkion zuzendaritzari "euren laguntzagatik eta izandako pazientziagatik". Era berean, "kolaborazio publiko-pribatuaren ildotik Miguel Altunak egindako lana" azpimarratu zuen Oiarbidek: "EAJk beti babestu izan du eredu publiko-pribatua eta eredu hori sustatzen jarraituko dugu hezkuntza eta industria optimizatu eta lanpostu sendoagoak sortzeko", gaineratu zuen.

Hori horrela, aurrera begira ikastetxearekin zein inguruko enpresariekin lanean jarraituko dutela esan zuen: "Gure proiektua eurekin partekatuko dugu Bergara lanbide-hezkuntzaren puntako gune eta Euskal Herriko erreferente izan dadin".



Karlos Ormazabal eta Aintzane Oiarbide batzokian. | MIREN ARREGI

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

UGARTE

ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

"Herritarrak gustura geratu direla uste dugu"

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Kultura zinegotzi Leire Iruinen hitzak dira horiek, Pazkoen balorazioaz galdetuta. Jaiak "oso ondo" joan direla esan du: "Oso pozik gaude aurtengo festekin. Argi dago eguraldiak zeresan handia izaten duela jaietan, baina arrakastaren

gakoa jendearen parte-hartzean eta gogoan dago. Jende asko ibili da, egunez zein gauez. Ekitaldi guztietan giroa ezin hobea izan da, oso jai herrikoiak izan dira. Adin guztietako jendea ikusi ahal izan dugu. Domeka izan da egunik bereziena, emozioz beteriko egun

historikoa. Gure Esku Dago ekimena herriko jaiekin bateratuz, benetan ahaztezina. Gure pertzepzioa herritarrak gustura gelditu direla da, baina euren esan beharoko dute hori!"

Argazkiak 'Goiena.net'-en

Asteburuaren ostean –asteleheneko *Goiena* paperean zabal landu zen–, jaietako astelehenak eta martitzenak emandakoaren zenbait argazki jaso dira orri honetan. Pazkoetako argazki guztiak www.goiena.net atarian ikus daitezke.



Kuadrillen arteko pikean Piketeak taldea izan zen irabazlea.



Neska kuadrilla asteleheneko herri bazkarian, eguzkitakoarekin babestuta.



Kapela, betaurrekoak eta eguzkitakoa; ondo prestatuta joan ziren bazkaria.



Bob Esponja eta haren bikia.



Idoia Etxeberria martitzenean 100 kiloko harria jasotzen.



Adin askotariko emakumeak Munibe plazan bingo jokoan.



Pello Garitano, bukaneroa.




Primeran pasatu zuten umeek *goming*-a egiten.



Arantza eta Pantxoren musikaz gozatzen Irala kalean. | ARGAZKIAK: IMANOL GALLEGU

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55



Espazio berrian hasi da aurtengo Kalean egitasmoa

Kultura sailak antolatu du aurten eta herriko taldeen presentzia areagotu du

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolako haize taldeak Lazarraga lorategian eguaztenean eman zuen kontzertuak eman dio hasiera aurtengo Kalean egitasmoari. Gaztelekuak antolatu ohi izan du orain arte. Aurten baina, Kultura sailak prestatu du egitaraua.

Lazarragan, Eteon...

Udako kultura eskaintza kalera ateratzea du helburu Kalean egitasmoak. Baina berritasunak ere baditu aurtengo edizioak. "Espazio gehiagotara zabalduko dira ekitaldiak. Adibidez, Lazarraga lorategian, Bidaurretako eliza ondoan eta Eteon egingo dira antolatutako ekintzetako batzuk. Bestalde, gura genuen herriko taldeek ere presentzia handiagoa izatea egitarauan. Horrela, Ganbararen emanaldia, musika eskolako ikasleena, Eltzia egitasmoa eragileen edo Kantoikrit proba sartu ditugu, adibidez", adierazi du Nerea Zubiak, kultura zinegotziak. Eta gaineratu du: "Horrez gain, orain arte uztailean hasten zen, eta aurten ekainean hasiko da, aurreratu egin dugu".

Foruen plazan ere izango dira ekitaldiak eta musikaz gain, kale antzerkia eta zirko ikuskizuna ikusteko aukera ere egongo da. Bestalde, surf festa eta Kantoikrit kriteriuma ere biak daude Kalean egitasmoan, nahiz eta aurten egun banatan egin.



Musika eskolako haize taldeko ikasleak eguazteneko kontzertuan. | IRATI GOITIA

DATOZEN KULTUR EKINTZAK

EKAINAK 27

22:00 'Jazz eta habanera bat eginda'. Ganbara eta Ganbara Gazte. Bidaurretako eliz atarian.

UZTAILAK 9

19:00 Ventos de Saudada taldearen kontzertua Lazarraga lorategian.

UZTAILAK 19

17:30 Ikusi makusi ... Eltzia. Eteon.

22:00 Kantoikrit kriteriuma. Oñatiko erdigunean.

UZTAILAK 23

19:00 'Funes Van' antzezlan, The Funes Troup taldearekin, Foruen plazan.

ABUZTUAK 30

10:00 Surf festa.

ABUZTUAK 31

19:00 'Txatarra' ikuskizuna, Fouruen plazan.

Eskaera eta festa, bihar, Fan Hemendik! egunean

IRATI GOITIA | OÑATI

Bihar egingo dute Fan Hemendik! eguna eta berrikuntza ugariarekin dator. "Urtero antzerako gauzak izaten ditugu eta aurten egitaraua aldatu nahi izan dugu. Adibidez, arratsaldeko kontzertuak tabernetan izango dira. Ekintzak kalera eta jendeari gerturatu nahi izan dizkiogu", azaldu du Julen Romaratezabala antolakuntzako kideak. 18:00etan eta *flashmob*-aren ondoren izango dira kontzertu horiek Ongi, Arrano, Boga eta Pub tabernetan.

Hain zuzen, aurtengo beste berrikuntzetako bat da *flashmoba*. "Aldarrikapen eguna izateaz gain, festa eguna ere izaten da biharkoa. Guretzako urriaren 12a da benetako aldarrikapen eguna. Hala, umorea sartu nahi izan dugu eta hortik dator *flashmoba* egitearen ideia", zehaztu du Romaratezabala. 20:00etan egingo dute kuartel aurrean. Dantza Oñatzeko hiru kidek asmatu dute eta kantua Egurra Ta Kitto taldearen *Errefusa* da. Horiek ere bertan izango dira.

Egunari, baina, jolaspoteoarekin ekingo diote 12:00etan. "Aldarrikapenez betetako hiru jolas egingo ditugu. Puntuazioa egongo da eta irabazleak saria izango du". Ondoren, bazkaria egingo dute 15:00etan.

Aurten txosnagunea unibertsitatearen eta Zuazola institutuaren tartean kokatuko da. Bertan izango dira gaueko kontzertuak, 22:30ean hasita: Egurra Ta Kitto, Besteikpe eta Odolkiak Ordainetan.

Bestalde, urtero bezala manifestazioa egingo dute herriko kaleetan zehar 19:30ean hasita Foruen plazatik.

Deialdia Debagoienara

Romaratezabalak dio Guardia Zibilak Euskal Herritik joateko eskaera gizartearen errotuta dagoela. Hala ere, Fan Hemendik! eguneko deialdia bailarara zabaldu nahi izan du: "Kuartela Oñatin dagoen arren, kontrolak edonon jartzen dituzte. Beraz, debagoienar guztiei egiten diegu zapatuan Oñatira etortzeko deia".



2012ko Fan Hemendik! eguneko manifestazioa. | GOIENA



Plataformako kideak martitzeneko prentsaurrekoan. | J.D.

'Tartakada zaratatsua' egingo diote Josu Erkorekari

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Ekainaren 18an Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozera maileak berbaldia egingo du batzokian, Oñatiko EAJk gonbidatuta. Euskadiko egoera politikoaz arituko da, 19:00etan. Oñatiko Mugitu AHT Gelditze-ko plataformak azpiegitura horren aurka daudela adieraziko diote Erkorekari, "tartakada zaratatsua" eginda.

Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramailea den heinean, Abiadura Handiko Trenaren eraikuntzaren arduradun nagusietakoa dela diote Oñatiko plataformako kideek. Hala, eguazten iluntzean batzoki parean egingo den kontzentrazioan parte hartzeko deialdia egin diote herritarrei. Arratsaldean hitzaldia egingo dute Foruen plazan.

Emakume kirolaria; gogoia eta trabak

Emakume eta gizon kirolarien arteko aldeak eta gogoaz gain kirola egiteko emakumeek pasa behar dituzten trabez mintzatu ziren eguaztenean herriko bost emakume kirolari. Herritar asko joan ziren tertulia entzuterara, eta askok hartu zuten parte.



SUSANA ARRESE

Txantxiku bat jaurtiko dute bihar estratosferara, GPS eta kamara batekin

O.E. | OÑATI

Zunda bat jaurtiko dute bihar, zapatua, goizean estratosferara. Txantxiku bat joango da barruan, eta GPS bat eta kamara bat eramango ditu, bidaiaren datuak jasotzeko.

Ilatargi astronomia taldeko Manu Arregik azaldu du eguraldia alde izango dutela bihar:

"11:00etan jaurtiko dugu zunda herriko erdigunetik. Ordu eta erdi inguru egingo ditu igotzen. Puxika lehertu egingo da gero eta hiru ordu laurden beharko ditu dagoen tokitik lurreraino jaisten. GPSak lagunduta, bila joango gara gero eta kamak hartutako argazkiak datorren aste-rako izatea da asmoa".

ZUZENKETA

Joan den asteko Oñatiko orrialde honetan udalak prestatu dituen aisialdirako ortu publikoaren gaineko albistea argitaratu genuen. Torrealden eta San Martinen daude lursail horiek eta ez Torreazon, guk argitaratu moduan. Barkatu eragozpenak.

Eskola kiroleko azken jaia egingo dute bihar

O.E. | OÑATI

Ikasturtean zehar eskola kirolean ibili diren neska-mutikoek, gurasoek eta arduradunek amaiera festa egingo dute Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan bihar, zapatua. Gainera, Udaberri txapelketari dagokion sari banaketa ekitaldia ere egingo dute. Talde onenak sarituko dituzte, baina neska-mutiko guztiendako sariak egingo dira.

Gurasoak

Herriko hiru ikastetxeetako gurasoek koordinatuta antolatuta dute aurten ere Eskola Kirola, eta gurasoendako jolasekin ekingo diote ikasturte amaierako jaiari bihar, 10:00etan. Hala, urte osoan laguntzen ibili diren gurasoekin jolasak egingo dituzte. Eta horren ondoren egingo dute sari banaketa. "12:00ak inguruan hasiko da, gurasoak dutxatu eta une hori antolatu eta gero. Udaberri txapelketako sariak ez ezik, neguko txapelketan kirol desberdinetan ibili direnek ere jasoko dute esker oneko saria", azaldu du Oskar Carrascalek, Udaleko Kirol teknikariak. Bide batez, guraso guztiei egin diete gonbidapena jaira joateko.

Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarren mailara arteko 300 ikaslek hartu dute parte aurten Eskola Kirolean. Urrian hasiko da ikasturte berria eta irailean zabalduko dute izen-ematea.



Umeak hockey-ean. | UDALA



Jendea Usakoko putzuan bainatzen joan den urteko surf festaren barruan. | O.E.

Usakon soroslea egongo da bihartik irailera, arratsaldeetan

Udako bainu denboraldia asteburuan zabalduko da, ohi baino astebete lehenago

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bihar, zapatua, zabalduko da udako bainu denboraldia Oñatin ere. Hala, Usakon soroslea egongo da irailaren 7ra arte, arratsaldeetan. Domekatik aurrera, berriz,

igerilekuek ordutegi berria izango dute eta kanpoko zelaia erabilgarri egongo da.

Umeek oporrak hartzen dituztenean zabaldu ohi dute udako bainu denboraldia, San Juan

jaien bueltan. Aurten, baina, astebete lehenago egingo dute. Baita itxi ere; irailaren 7an itxiko dute. Tarte horretan, soroslea egongo da Usakon 15:00etatik 20:00etara. E-Goitek enpresa ardu-

ratuko da sorospen zerbitzuaz eta soroslea Usakon egokitutako txabolan egingo da.

Erabilera arduratsua

Udaleko Kirol teknikari Oskar Carrascalek adierazi duen moduan, Usakoko eremu naturala txukuntzen eta egokitzen ibili dira azken egun hauetan: "Putzuaren garbiketa egin da. Urpekariak ibili dira putzua garbitzen. Zuhaitzetako arrama handiak, harriak eta burdin zatiak atera dituzte, adibidez. Horrez gain, inguru txukundu da eta baita belarra moztu ere. Ur hornidura gainbegiratu dute eta aurten ere iturria, ura, izango dute erabiltzaileek".

Egokitzapen lanak egin diren arren, gunearen erabilera "arduratsua" egiteko dei egin du Carrascalek: "Arduratsua izan behar dugu inguruarekiko eta norbakoarekiko".

Ordu aldaketa

Bestalde, Zubikoako igerilekuek ere ordutegi berria izango dute domekatik aurrera. Hala, uztailearen 31ra bitartean, aste barruan orain arteko ordutegian zabaldu eta itxiko dituzte. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, berriz, 08:00etatik 20:00etara egongo dira zabalik. Eta abuztuan, 10:00etatik 20:00etara zabalduko dituzte, astelehenetan izan ezik, egun horretan itxita egongo dira-eta. Ordutegi berriarekin batera, kanpoko zelaiko ateak ere zabalduko dituzte erabiltzaileek eguzkia har dezaten.

Hego Euskal Herriko lau eskubaloitako selekzioak datoz

O.E. | OÑATI

Hego Euskal Herriko lau eskubaloitako selekzioak datoz bihar, zapatua, Oñatira. Hala, elkarren aurka jokatu dute Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako infantil mailako selekzioek, nesken zein mutilen kategorietan. VIII. Corpus txapelketa jokatu dute. Gipuzkoako selekzioetan, June Bermejo eta Manex Lazkanoiturburu oñatiarrak egingo dira.

Ikuskatzaileak

Partiduak 09:30ean hasiko dira. Goizeko partiduak jokatu ondoren,

Larrain Gain elkartean bazkalduko dute guztiek eta arratsaldean izango dira txapelketako irabazleak erabakitzeko azken lehiak. 15:30ean hirugarren eta laugarren postuak jokatu dira eta 18:30ean, lehenengo eta bigarrena. Ondoren, trofeoak banatuko dituzte eta jatekoa eta edatekoa egingo da guztiendako.

Bada, Aloña Mendiko eskubaloitako saileko Osik adierazi duenez, "ikuskatzaileak ere izango dira, laster jokatu dute-eta Cangas de Onisen Estatu mailako txapelketa".

350 igerilari bihar Txantxiku sariaren bila

O.E. | OÑATI

Igeriketako Txantxiku saria jokatu dute bihar, zapatua, arratsaldean, Zubikoako igerilekuan. 350 igerilari inguru izango dira lehiatzen, tartean Aloña Mendi taldeko 55.

Gipuzkoako bederatzi taldek, Bizkaiko batek eta Logroñoko beste batek hartuko dute parte eta igerilariak benjamin, alebin eta infantil mailakoak izango dira; azken horretan mutilek bakarrik hartuko dute parte.

Txapelketa 15:30ean hasiko da eta estilo guztietan egingo

dute igeri, nork berean. Bukarran sari banaketa izango da kantxa urdinetan. Estilo bakoitzean, denbora onena egiten duenak jasoko du domina. Adin bakoitzeako onenek ere trofeo bana izango dute.

Itxita

Igeriketa txapelketatik, baina, igerilekua itxita egongo da zapatu arratsaldean erabiltzaileendako: 13:30ak arte egongo da zabalik. Domekan, berriz, udako ordutegia izango du, 08:00etatik 20:00ak arte.

Gaur egingo dute ekaineko odol ateratzea, ohiko ordu eta tokian

Gaur, egubakoitza, egingo dute ekaineko odol ateratzea. Betiko orduan eta tokian izango da; hau da, 17:30etik 19:00etara bitartean Txantxiku ikastolako aretoan. Donostiatik etorritako erizain eta medikuak arduratuko dira odol ateratzea egiteaz. Oñatiko Odol Emaleen Elkarteak herri-tar guztiei zabaltzen die deia, baita inoiz joan ez direnei ere.

Egaña eta Lizaso bertsolariak Araozko jaietan bihar

Trinitate jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan Araozen. Bihar eguerdian omenduei aureskua egingo diete eta ondorengo auzo bazkarian Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak jardungo dute. Domeka eguerdian erakustaldia egingo du Oñatiko Herri Kirolak taldeak. Trikitilariak ere egingo dira.

Tolosako The Romanticos taldea domekan Pakon

The Romanticos talde tolosarrak joko du zuzenean etzi, domeka, iluntzean, Pako tabernan. 2009. urtean sortu zen eta hiru kidek osatzen dute. Bluesaren errepertorioa lantzeaz gain, doinu propioak ere egiten ditu. Duela bi urte argitaratu zuen lehen diskoa Sorraluzeko Gaztelupeko Hotsak ziguilarekin.

Gimnasia erakustaldia egingo dute 76 oñatiarrek domekan

Aloña Mendiko gimnasia erritmikoko 76 gimnastak erakustaldia egingo dute domekan, 12:00etan, Zubikoan. Bergarako eta Legazpiko gimnasta batzuek ere hartuko dute parte. Urtean zehar ikasitakoak erakusteko hainbat koreografia egingo dituzte, taldeka eta banaka, esku librean edo tresnekin.

Ekainaren 29an joango dira gaztetxoak Sendaviva parkera

Gaztelekuak antolatuta, hila-ren 29an joango dira gaztetxoak Sendaviva parkera. Maiatzaren 25ean ziren egitekoak irteera hori, baina ekainaren 29ra atzeratu dute. Lehendik izena emanda zutenek ere berriz eman beharko dute. Izena emateko azken eguna ekainaren 18a da. Jatekoa norberak eraman behar du.

Hogei urte, Hirugarren Mailara igoera lortu zela

- ▶ Lagunarteko partidua jokatuko dute orduko eta egungo jokalariek, bihar
- ▶ Omenaldia egingo diete igoera lortu zutenei, norgehiagokaren aurretik

X. URZELAI / I. GOITIA | OÑATI

Duela 20 urte lortu zuen Aloña Mendik Hirugarren mailara igoetzea, 1994ko maiatzaren 22an, Loiolan. Eta ligako azken jardunaldian, maiatzaren 29an, etxean Danok Bat taldeari 6-1 irabazi ostean, ospatu zuten Azkoagainen. Bada, bihar, orduko eta egungo jokalariek lagunartekoa jokatuko dute igoera hura oroitzeko, eta gero, bazkaria egingo dute.

Ordukoa gogora ekartzeko

Aratz Losada da urteurreneko antolatzailea: "Zapaturako antolatuguna da omenaldi partidua. Orduko jokalariei, 1993-1994 denboraldian igoera lortu zutenei, omenaldia. Eta hala, lagunarteko norgehiagoka jokatuko da. Orduko jokalaria egungoen aurka arituko dira". Losadak gaineratu du Aloña Mendiko historian behin bakarrik lortu dela horrelako balentria eta uste duela jokalariek merezi dutela herriaren errekonozimendua. Hain zuzen, partiduaren aurretik omenaldia egingo diete orduko jokalariei.

Igoera lortu zuten jokalariai ibili dira entrenatzen biharko lehiarako. "Albistea jaso nuenean asko poztu nintzen. Izan ere, egia da ordutik ez dugula aukerarik izan berriro elkartzeko, eta pozgarria da lagunekin berriz batzea. Entrenatzen ere bagabiltza, baina helburua da batzea, lehengo kontuak kontatzea eta ondo pasatzea", adierazi du Jose Luis Abaunz orduko kapitainak.



1994ko Aloña Mendiko futbol jokalariai kopa altxatzen. | GUREGIPIZKOA.NET

Bestalde, egungo kapitain Iker Olalde esan du ohorea dela igoera lortu zuen taldearen aurka aritzea: "Batzuek gogoan dugu garaipen hura. Etorkizuneko jokalariek, ordea, ez dute horren presente izango. Beraz, une ona da omenaldia egiteko. Gainera,

dezentek uzten dugu taldea aurretik eta horrela agurtzea ikaragarria izango da".

Oroitzapenak, iruditzen

Olalde gogoan du igoera hura, baita Losadak ere, ospakizunetako argazkietan ere azaltzen da. "Etorkizun baten jokalaria izango nintzen ilusioz azaltzen naiz.



Jose Luis Abaunz eta Iker Olalde, orduko eta egungo kapitainak. | XABI URZELAI

PARTIDUA

Ordua: 12:00.

Parte-hartzaileak: Hirugarren Mailara igoera lortu zuten Aloña Mendiko jokalariai eta egungoak.

Non: Azkoagainen.

zan itxaroten genuela esan ziguten eta autobusa plaza erdira sartu zen. Han zegoen giroa eta nola ospatu genuen izugarria izan zen. Inprobisatua izan zen, jende asko zegoela plazan, eta oso hunkigarria izan zen".

Bi igoera

Aloña Mendik talde ona izan zuen garai hartan; izan ere, hiruzpalau urtean bi igoera lortu zituen. 1991n, hiru urte lehenago, Preferente Mailara igo zen taldea. "Elkartu zen oso promozio ona. 1987-1988 nahiko urte makalak izan ziren. Arazoak egon ziren: kanpoko jende asko etorri zen taldera. Kategoria galdu genuen, eta uste dut hura izan zela inflexio puntua. Berriro hasi ginen Oñatiko jendeaz jokatzen. Giro polita lortu genuen, kuadrilla bat ginen. Lehia amaitu ostean ere elkarrekin joaten ginen zerbait hartzera. Ni Ikerren aitarekin hasi nintzen eta ordukoek erakutsi ziguten, futbolaz gain, landu behar zela adiskidetasuna. Horregatik, genuen giroa azpimarratuko nuke. Hain zuzen, talde horrek lortu zituen bi igoerak", dio Abaunzek.

Orain dela hogei urtekoa bezala, biharkoa ere oroimenerako eguna izango da.



Futbol saileko talde argazkia igoera ospatzen Azkoagainen, kopa eta xanpain botilak aurrean dituztela. | GUREGIPIZKOA.NET



Jokalariai udaletxeko balkoian; plazan, banda eta jarraitzaileak. | GUREGIPIZKOA.NET

G
e
u
z
t
i
z
r

Kale Barria 29, behea
(Orbea etxea, parke aldetik)
20560 Oñati Tel.: 943 78 01 46

**Hobetzeko garaia da,
Ondo sentitzeko garaia
Errekuperatzeko garaia**

Zuk zeuk nabaritutako duzu eta zure gorputza aldatu egingo da.
Zure poza errekuera ezazu eta ongizatearekin sintoniza zaitetz.



Kirolez bustitzeko aparteko aukera dute herritarrek aste bukaeran

Lehenengoz egingo da kirolaren inguruko jaia

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kirola izango da nagusi aste bukaeran Aretxabaletako bazterretan. Futbola izan ezik, beste hainbat kirol ezagutu eta era berean, egiteko aukera izango dute herritarrek gaurtik domeka eguerdira bitartean.

Elkarte eta taldeen elkarlana

Kirolari eskainitako jaia lehenengoz antolatu dute gurean eta UDA izan da burutazioa izan duena eta sustatzaile nagusia: "UDA barruko sail desberdinen denboraldi amaierako jaia egitea zapatu batean pentsatu genuen. Baina herriko beste elkarteekin eguneroko harremana daukagu, eta batzuekin eta besteekin komentatuz, deialdia zabaldu eta erantzuna izan da mundiala", argitu du Adrian Merino presidentea. Hala, herriko elkarte ezberdinek egin dute bat jaiarekin; batzuk kirol taldeak: Murruxiko mendizale elkarte, Zeraia mendizale taldea, Trialsin taldea, Boulder taldea, Aresko saskibaloia taldea eta Desoreka judo kluba. Eta beste batzuk kirolarekin zerikusirik izan ez arren herrigintzan zeresan handia dutenak: Aretxarte merkatarien elkarte, Basotxo erretiratuen elkarte, Presoen aldeko lagunak, Loramendi elkarte eta Lekaixoka bertso eskola. Eta zelan ez UDA barruko sailek ere hartu dute parte: Karate taldea, Gimnastika erritmikoa, Txirrindularitza, Atletismo taldea eta Pilota taldea.

Gimnastika erritmikoko kirolarien erakustaldiak hasiko du

'KIROLEZ BUSTI' EGITARUA

EKAINAK 13

18:00, plazan UDA gimnastika erritmikoa.

EKAINAK 14

08:00, plazan Mendi bizikleta irteera.

10:30, Basotxo aurrean Doke txapelketa.

11:00, Iturrigorrin Pilota, pala eta frontenis txapelketak.

11:00, Durana kalean Haurrendako lasterketak.

12:00, Durana kalean Boulder erakustaldia.

12:00, plazan Judo erakustaldia.

12:30, plazan Karate erakustaldia.

13:00, plazan Bertso saioa.

16:00, plazan Mahai-joko, briska eta mus txapelketak.

16:00, Iturrigorrin Cricket erakustaldia.

16:30, plazan Trialsin erakustaldia.

17:00, Arlutzen Saskibaloia topaketak.

19:00, Urbaltzen Zozketa.

EKAINAK 15

07:00, plazan Mendi martxa.

gaur jaia Herriko Plazan, eta egun handia bihar izango da.

Aretxartekoek girotuta

Biharko jaiak iraun bitartean Aretxarteko tabernariak pintxoak eta edatekoa eskainiko dituzte eguerdi partean, kirol batean oinarrituta. Eta kirol horretan jokatu ahal izango dute herritarrek, gainera. Hona hamaika tabernek eskainiko dutena: Exprexek, badmintona (plumilla pintxoak); Orlyk, dardoak (diana pintxoak); Izotzek, saskibaloia (hiruko pintxoak); Gureak, laster-

Kurtzebarri aldera martxa

Domekan egingo du Murruxiko mendizale elkarteak VIII. mendi martxa. 26 kilometroko ibilaldia da, 800 metro pasatxoko igoerarekin. Hona ibilbidea: Herriko Plazatik Areantza auzora eta handik gora Kurtzebarri albotik Degurixara (tartean, mokadutxoak) eta Leixargaratera, (mokadutxoak) handik beheranzko bidea hartzeko. Mendian ibiltzera ohituta daudenek samur egingo dutela diote antolatzaileek.

Herriko Plazan izango da irteera, 07:00etan, eta aurretik izena eman daiteke.



Mendizaleak Kurtzebarri bidean orain dela bi urte. | FELIS BELTRAN DE HEREDIA

ketak (palankari pintxoak); Hai-zeak, mahai-futbola (gol pintxoak); Eguzkik, golfa (eagle pintxoak); Dagdak, ping-pong (Match Point pintxoak); Urbaltzek, pilota (trinket pintxoak); Izartuk, sokatira

(izarsoka pintxoak); Akordek, hula-hoop (Falcao pintxoak); eta Arlutzek, saskibaloia (kanasta pintxoak). Eta Aretxarteko merkatari askok erakuslehoak kirol kontuak gai hartuta txukundu dituzte.

ADRIAN MERINO | UDA-KO PRESIDENTEA

"Futbola nahikoa da irailtik ekainera, beste kirol batzuk erakutsiko ditugu"

Ekintzotan herritarrek parte hartuko dutelakoan dago Aretxabaleta kirol elkartearen presidentea "datorren urtean berriz ospatzeko arrazoiak izateko".

Zein da helburua?

Hainbat daude: kirol desberdinak herritarrei hurbiltzea, futbolekin aldatzea; beste arrazoi bat ematea jendeari kirolak ezagutu eta praktikatzeko; urtean zehar txoko desberdinetan egiten diren kirolak kalera ateratzea; herrigintza; kirolean ere beste Aretxabaleta bat posible dela erakustea guztion



GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

indarrak...

Eta futbolik ez. Zergatik?

Herriko futbolak duen indarra itzela da, beste herri askoren inbidia gara. Baina nahikoa da irailtik ekainera, ezta? Pilota, karatea, mendia...

UDAK dituen beste sailtako kirolak eta herriko beste elkarteak plazaratu nahi ditugu.

Askoren lana dago atzean...

Bai, UDAko batzordeko kideek egiten duten lana ikusgarria da. Baita beste elkarteetako ardura-dunena ere. Txalotzekoa!

Martitzenean hasiko dira ontziak banatzen

Atez ateko bilketan beharrezkoak diren lau ontziak jasotzera joan beharko dute herritarrek pilotalekura

M.A. | ARETXABALETA

Datorren martitzenean, hilaren 17an, hasiko dira banatzen atez ateko hondakin bilketa sistemarako beharrezkoak diren lau ontziak. Iturrigorri pilotalekura joan beharko dute herritarrek eta kale bakoitzak egun bat du zehaztuta. Hona ordutegia: 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Udala, bere aldetik, bando bidez hasi da iragartzen herritarrei zein egunetan dagokien joatea ontzi bila.

Landa-guneetako bizilagunak, ostera, banaketako edozein egunetan joan ahal izango dira.

Oraingo ontzia itzuli

Ontzien bila joaterakoan nortasun agiriren bat eraman behar da; eta bertan, helbidea eta telefono zenbakia ere jakinarazi beharko ditu. Norbait ezin bada ontzi bila joan beste batek jaso ahal izango dizkio. Ordezko horrek nortasun agiria erakutsi eta ziurtagiri bat sinatu beharko du.

Lau ontzi emango dituzte: marroiak bi, grisa eta urdina. Poltsa horiak ere banatuko dituzte eta argibideen gida eta hiztegi bana ere bai. Orain arte edukiontzi marroien erabiltzaile izan direnek ontzi marroia eta giltza itzuli beharko dituzte egun horretan. Argibideak Hondakinen Informazio Gunean emango dituzte; ontzi banaketa bitartean informatzaileak pilotalekuan egongo dira.

Boluntario beharra

Udalak laguntza eskatu du ontzien banaketarako. Horretarako gettu daudenek jakinarazi dezatela Hondakinen Informazio Gunean, deituta (943 25 06 82) edo mezu bat bidalita (hondakinak.aretxabaleta@debagoiena.com). Boluntario horiekin batzarra egingo dute astelehenean, 19:00etan, Iturrigorri pilotalekuan.

ONTZI BANAKETA:

Ekainak 17:

Otalora, Guridi, Iparragirre, Elkano, Sarasate, Lausitta eta Bedarretako San Migel kaleak.

Ekainak 18:

Durana kalea, Santa Kurtz kalea, Basabe bidea, Iturrizar plaza, Murubide plaza eta Herriko Plaza.

Ekainak 19:

Andramari auzunea, Mirtarte kalea, Errekabarren kalea, Ilargi plaza eta Iralabarri plaza.

Ekainak 20:

Araba ibilbidea, Loramendi kalea eta Solohandi kalea.

Ekainak 23:

Belorrieta auzoa, Bizkaia kalea, Gipuzkoa

plaza, Nafarroa kalea, Zeraia kalea, Gorbeia kalea, Aralar kalea, Bainuetxe kalea eta Markole auzoa.

Ekainak 24:

Txarapea ibilbidea.

Ekainak 25, 26 eta 27:

Aurretik hartu gabe geratu diren herritar guztiak.



Ontziak. | GOIENA

Urkuluko bazterrak garbitzera joango dira domekan herritarrak

Iraeban baserri alboan elkartuko dira, 10:30ean, lantaldeak osatzeko

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Urkulu inguruko bazterrak garbitzera joateko deia egin du Udalak domekarako. 10:30ean elkartuko dira Aozaratza auzoan dagoen Iraeban baserri alboko aparkalekuan. Han taldetan banatu eta lanean hasiko dira.

Zaborra, Herriko Plazara

Urtean behin egiten du Udaleko Ingurumen Sailak Urkuluko bazterrak garbitzeko deia, eta dagoneko laugarrenez antolatu du. Arizmendi Ikastolako -Basabeazpi eta Almen- eta Kurtzebarri Eskolako ikasleek eta horien gurasoek jaso dute deialdia, eta gainerako herritarrak ere gonbidatu dituzte lanera. "Ez dakigu zenbat lagun elkartuko garen, eta horrek baldintzatuko du zein inguru garbitu. Hala ere, asmoa da batzuk komunak dauden inguruan hastea lanean, Goroeta auzo aldera joateko, eta besteek, Larri- no auzo aldera egitea", jakinarazi du Anabel Diezek, Ingurumen teknikariak.



Zaborra Urkulu inguruan. | GOIENA

Jasotako zabor guztia udal- txeko kamioian sartu eta Herri- ko Plazara jaitsiko dute, 13:00etan. Hala, garbitze lanetan parte har- tzerik izan ez duten herritarrek ere ikusiko dute zer jaso den.

Garbiketa lanak bukatutakoan mokadutxoia izango dute plazan, lanean jardundako guztiek.

Udazkenean, urri inguruan, ostera, Deba ibaia garbitzeko dei egingo dute.

Pilota partiduak, bazkaria eta kontzertuak bihar

Jai giroak eta aldarrikapenak bat egingo dute bihar, presoen aldeko lagunek antolatuta

M.A. | ARETXABALETA

Etixeratek abian jarritako *Pilotakadaz pilotakada dispertsioaren aurka!* aldarrikapenak bat egin du Urbaltz elkarteak ekainean egin izan duen jaiarekin, eta aurten presoen aldeko lagunek antolatu dute jai hori. Bihar izango da, eta hainbat pilota partidu, herri bazkaria eta kontzertuak iragarri dituzte.

80 lagun bazkaltzeko

Aretxabaleta kirol elkarteko pilota sailekoekin batera antolatutako pala eta frontenis partiduekin hasiko dute eguna, 11:00etan, Iturrigorri pilotalekuan (izena Urbaltzen eman behar da). Ondoren, 12:30ak aldera, izena eman bakoak ere hurreratzeko eskatu dute antolatzaileek, sakeka jokatzeko. Eta 13:00etan, Ion Etxeberria

eta Oier Mondragon pilotari aretxabaletarren arteko norgehiagoka izango da.

Ondoren txikiteoan joango dira herriko trikitalariak lagun hartuta, eta 14:30ean herri bazkaria egingo dute Mitarte plazan. 70 eta 80 lagun artean elkartuko direlakoan daude antolatzaileak.

Arratsaldean kontzertuek giroa dute (18:00). Batetik, izango da psychobilly (punk eta rockabilly arteko nahasketak) deitutako estiloa lantzen duen Screemers and Sinners taldea, eta bestetik, Gaupa-heroes, rock-and-roll klasikoko abestiak punk erara moldatzen dituen taldea.

Bukatzeko, UDAl bultzatutako *Kirolez busti* egunean parte hartutako artean zozketa egingo dute Mitarte plazan.

Bandaren emanaldia dago gaur 7x7 barruan

M.A. | ARETXABALETA

Udalak abian jarritako 7x7 kultura ekimen barruan Leizarra musika eskolako bandaren emanaldia dago gaur, 19:00etan, Arlutz taberna osteko kantxan. Hainbat pieza joko dituzte haiek. Eta eguaztenean, hilak 18, Bihar txotxongilo taldeak *Ipuin magikoak* ikuskizuna eskainiko die neska-mutikoei, Santa Kurtz kaleko plazarxoan.

Joan den egubakoitzean jarri zuten abian Kultura Sailak eta Aretxartek antolatutako 7x7 ekimena, eta musika eskolako hainbat talderen emanaldia izan zen orduan Mitarte kalean. Eguraldia lagun, jende mordoak elkartu zen, eta giro ezin hobea sortu zuten musikari gazteek.

'De lo chino a lo vasco' antzezlan gaur Arkupen

M.A. | ARETXABALETA

Las Torpedolevel taldeak *De lo chino a lo vasco* eskainiko du gaur, egubakoitza, Arkupen (22:00). Chi-Kung unibertsitatean lizentziatu berri diren Tibeteko bi emakume heroi, Superlamita eta Txikibuda, mendebaldera bidali dituzte bertako arazoak konpontzera. Mendebaldeko bidaia hori Euskadin hasiko du bikoteak, euskal kultura ezagutzeko asmoarekin.

Vene Herrero (Arrasate, 1965) eta Carmen Pardo (Bilbo, 1967) daude Las Torpedolevelen atzean, eskarmentu handiko bikotea. *Las chicas serias no gustan, Ya te digo* eta *Extrañismos* lanen ostean dator hau, eurek sortu eta landutako antzezlan.



MIKEL ALBERDI

Bordelen ere giza katea Arizmendikoek

Bordelen izan dira Arizmendi kirol elkarteko kideak aste bukaeran, nazioarteko futbol txapelketa jokatzeko. 11 eta 12 urteko Aretxabaleako, Arrasateko eta Eskoriatzako 45 bat mutiko joan ziren, batzuk gurasoek lagun eginda, guztira ia 80 lagun. Aste bukaera ederra pasatu zutela jakinarazi dute, eta domeka goizean giza katea egiteko tartetxo bat hartu ere bai. "Futbol zelai erdian bueltaka hasi ginen eskutik helduta eta aho zabalik utzi genituen gainerako jokalariek eta antolatzaileak", esan dute.

Markeliñe antzerki taldeak 'Kartoibiraka' eskainiko die umeei

Kartoibiraka antzezlan izango dute neska-mutikoei Marke- liñeren eskutik domekan Arkupen, 17:00etan (sarrera, 3 euro). Biltegitik irten gabe, globoz, itsasontziz edo gameluz, istorio horretako protagonistek 80 kaxatan emango diote bira munduari. Hala, pertsonak jolasteko eta sortzeko duten gaitasuna azpimarratu gura dute.

Txinaren gaineko argazkiak erakutsiko ditu Joseba Egibarrek

Joseba Egibar argazkilari aretxabaletarrek Txinan ateratako argazkiak erakutsiko ditu datorren astelehenean, hilaren 16an, Arkupen, 19:00etan. Yangtze ibai inguruan ateratako argazkiak izango dira gehienak. Horrekin bukatuko ditu emanaldiak Egibarrek; izan ere, aurretik beste hiru egin ditu, tartean Aretxabalearen gainekoa.

Martitzeneko jaiarekin agurtuko dute ikasturtea Leizarrakoe

Hainbat emanaldi eta kontzertu eskaini dituzte azken asteotan Leizarra musika eskolako ikasleek, eta datorren martitzenean, hilaren 17an, egingo duten jaiarekin agur esango diote ikasturteari. Herriko Plazan izango da jai hori, 18:00etan, eta hainbat instrumentutako ikasleen emanaldiak izango dituzte herritarrek.

Jou Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Zaharren egoitzakoek ere parte hartu dute Aste Zapatistan. | GOIENA

ASTE ZAPATISTA, EGUN NAGUSIA

BIHAR, ZAPATUA

12:00 Txupinazoa; jarraian, Luis Ezeizakoek flashmoba grabatuko dute.

13:00 Umeendako ekintzak plazan, Luis Ezeizakoekin.

14:30 Herri bazkaria kontzejupean: bazkari mexikarra. Bazkalostean, Rosa Sanchez abeslariaren emanaldia.

17:30 Ametsen zirkua izeneko antzezlan plazan.

20:00 Kontzertuak plazan: Jinko Vilova, Perro Lobo eta Revolutionay brother musika taldeen emanaldiak.

Luis Ezeizakoek flashmoba grabatuko dute bihar eguerdian

M.B. | ESKORIATZA

Ikasturtea amaitu baino lehen, urteroko jaialdia egingo dute bihar, zapatua, Luis Ezeizako herri eskolakoek. Ikasleen jaialdiarekin emango diote hasiera egunari 11:00etan, plazan; bertan, Haur Hezkuntzakoek eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 3. mailakoek prestatu dituzten abestiak eta dantzak eskainiko dituzte, 5. mailako neska-mutikoei bertsotan aurkezturik.

Hori bukatzerakoan eskolako partaide guztiok (ikasleek, irakasleek zein gurasoek) esko-

lako abestiarekin flashmoba grabatuko dute toki berean. Eta jarraian, irakasle eta gurasoak elkarlanean, umeendako askotariko tailerrak egingo dituzte.

Etxetik ekarritako jana

Bazkari herrikoia ere egingo dute ikastetxeko arkupeetan; bakoitzak etxetik ekarritako platerak dastatzeko aukera izango da bertan. Eta eguna amaitu aurretik, puzgarriez gain, disko festa ere izango dute umeek, dantza egin dezaten.

Amaiera emateko, jai giroan murgilduko da bihar Aste Zapatista

Askotariko ekintzak egin dituzte astean zehar; tartean, zaharren egoitzakoak kalera atera dituzte

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aste Zapatistaren bueltan, askotariko ekintzak izan dira egunotan herrian. Astelehenean hasi ziren horiek, zaharren egoitzatik Santa Mariñe plazara trikitilarietara batera eginiko Udaberri paseoarekin. Senitarteko eta egoitzako langileekin lagunduta egin zuten ibilaldia egoiliarrek, eta

plazan Sensala taldeak eskaintako capoeira erakustaldiarekin eta Alaitz taldearen kantu mexikarrekin gozatu zuten.

Martitzenean, Koldo Saratxagaren lantaldeko Oscar Garcia izan zen Eskoriatzan. Gaur egun goekin alderatuta, erabat ezberdina den kudeaketa-ereduaz jardun zuen K2K Emocionando

taldeko kideak. Eguaztenean, Chiapasen preso dauden emakumeak laguntzen dituen Pati Arancirekin egin zuten berba bideo-konferentzia bidez. Atzo, eguna, berriz, skate longboard eta slak line erakustaldiaz gain, plaza girotzeko igelaren jokoak egitekoak eta kuskusa banatzekoak ziren.

Jorge Arzuaga

Aurrerantzean ere badago zereginik. Gaur, zapatismoari buruz egingo dute berba Madrilgo Sol plazan gose greban egon zen Jorge Arzuaga bilbotarrak eta Aho-tsa taldeko hainbat kidek. Eta jarraian, ludotekakoekin batera, umeendako jolasak izango dira.

Eta asteari amaiera emateko, egun handia egingo dute bihar. Besteak beste, bertako baserriko produktuez gertatutako bazkari mexikarra, antzerkia eta kontzertuak izango dira plazan.

Batzarra, kalejira eta bazkaria egingo dute bihar Amuskakoek

M.B. | ESKORIATZA

Amuska emakumeen elkartearen eguna egingo dute bihar, zapatua, herrian. Ekintzak 11:30ean hasiko dira, elkartearen batzar orokorrarekin. Joan den urteko balantzea aurkeztu ostean, etorkizunerako proposamenak egiteko aukera izango dute bazkideek.

Horretaz gain, zuzendaritzako hainbat kargu ere berri-tuko dituzte; hain justu ere, lau bokal berri aukeratuko dira batzar horretan. Jaione Fernandez de Jauregik beste urtebetez jardungo du presidente moduan.

Batzarra amaitzean kalejira egingo dute herriko kaleetatik eta tabernetatik, eta 14:00etan bazkaltzen joango dira. Azkoaga Enea hotelean bazkalduko dute elkarteak bazkidek; eta egunari amaiera emateko, opari zozketa eta dantzaldia ere izango dute.

Ehun bazkide inguru

Amuska Eguna ez dute urtero egiten; Fernandez de Jauregik azaldu digu iaz zuzendaritzara sartutakoek ideia izan dela, eta horrekin bazkideak elkartzeko gura dela. Egun, ehun bazkide inguru ditu elkarteak.

Jaietarako gertu izango da erdialdea

Astelehenean hasi zituzten erdialdea egokitzeko azken lanak; oinezkoendako eta ibilgailuendako izango diren eremuak mugatzeko obrak. Sasaki itxurako loreontziak eta egurrez eta altzairuz egindako oholak jartzen dabilta.



MIRIAN BITERI

Oñatiarren tortura testigantzak jasotzen dituen ikus-entzunezkoa aurkeztuko dute hilaren 19an

Aitzorrotz kultura elkarteak antolatuta, *Barruko Arrastuak* ikus-entzunezkoa ikusteko aukera dago egunean, hilak 19, 18:30ean, kultura etxean. Oñatiko Euskal Memoria taldeko bi kide etorriko dira bideoa aurkeztera. Frankismo garaitik gaur egunera arte oñatiarren tortura testigantzak jaso da horretan; esfortzua egin da horren gaineko datuak jasotzeko eta horren ondorio da 168 atxiloturen izen-abizenak batu direla, 26 emakume direlarik. Horietatik 59k torturatuak izan direla onartu dute; 4 emakumeak dira. Datu bilketa honen emaitza *Barruko arrastuak*.

Udaeroko ekintzetan izena eman ditzakete herriko gazteek

M.B. | ESKORIATZA

Urtero moduan, Udaero programan parte hartzeko aukera izango dute uztailean herriko gazteek; eta dagoeneko horretan eman dezakete izena, Aretxabaleta zein Eskoriatzako gazteleketan. Berrikuntzekin dator aurtengo egitaraua, uztailearen 7tik 11ra bitartean, *Gazte Udalekuak* izeneko ekimenaren bueltan egingo diren ekintzak

gazteekin batera adostuko dituztelako hezitzaileek. Horretarako, batzarra deitu dute hilaren 23an, Torrebason, 11:00etan.

Ekintza horiez gain, uztailearen 14tik 17ra, *Gazte Konkis* abentura irteera egingo dute. Aurten Leixargarate aldean emango dituzte lau egun. Irteera horretarako plazak mugatuak direla ohartarazi dute; 40 lagunendako tokia dago.



Gimnasia erritmiko erakustaldia eta kenpo txapelketa daude bihar

Kirol hitzorduak ere badaude asteburuan gurean. Bihar, zapatua, gimnasia erritmikoko erakustaldia eskainiko dute Eduardo Gorosarri plazan, 13:00ean. Bestalde, 16:00etan, Kenpoko Euskadiko eta Gipuzkoako Txapelketak jokatu dira kiroldegian. Horrekin lotuta, goizean tailerra egingo dute Kenpoko ezaugarriak ezagutzeko.



Domekan, eskolako patioan egindako hileta zibilean eman zitzaion azken agurra Jose Luis Zabalo antzuolarrari. | JUAN RAMON GARAI

Lehenengo hileta zibila, Zabalori agur esateko

Interesa duten herritar guztiek udaletxera jo dezakete informazio bila, eta bertan xehetasunak adostu

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Domekan egin zen Antzuolako lehen hileta zibila. Eskolako patioa lagun, senide zein herritarrez bete zen Jose Luis Zabalori azken agurra emateko.

Zabaloren lagun Juan Ramon Garaik azaldu duenez, hileta hunkigarria eta laburra izan zen. "Hil aurreko egunetan eskatu zuen Zabalo hileta zibila izan nahi zuela; eta hala egin zaio, laburra eta hunkigarria izan da". Zapatuan, ekainaren 8an, hil zen Jose Luis Zabalo, 69 urte zituela. LKiko militante ezaguna izan zela gogorarazi du Garaik: "LKI desagertu zenean ere militante izateari utzi zion arren, beti izan da ezkerreko pertsona".

Jose Inazio Garitanok ere ondo ezagutzen zuen Zabalo, eta gertuko gizona. "Herriko gizona



Jose Luis Zabalo. | ERROTA

izan zen. Oso zabala zen, bere ondoan bizi izan gara betidanik, lagun handiak izan gara. Herritar asko gerturatu da eskolako patioa; lehen hileta zibila izatean, jendearen arreta ere piztu du. Uste dut jendeak ez zekiela hileta zibila egiteko aukera zegoenik Antzuolan", dio Garitanok.

Lagun arteko agurra izan zen

Hileta zibilari hasiera emateko, hitz batzuk eskaini zizkieten lagunak.

*Ezin kontatu
Ezin hausnartu
Ezin konpartitu
Ezin besarkatu
Ezin disfrutatu
Hala ere, gurekin zaude
Gure baitan, oroitzapenetan
Memorian, gogoan.
Hau baita heriotzaren
altxorrik preziatuena*

Maria Eugenia Irazabal

Orain dela lau urte arautua

Pilar Etxanizek gogorarazi du aurreko agintaldian, zinegotzi zela, hileta zibilak arautzeko inizatiba aurkeztu zutela orduko udal taldean. "Gizartea laiko da eta Udala erakunde moduan akonfesionala. Fededun katolikoek badute non egin azken agurra, elizan. Garrantzitsua dela uste genuen hildakoei agurra egitea eta bizitzaren zikloa ixtea. Baina eritual erlijiosoekin identifikatuta ez geundenok hutsune bat zegoela ohartu ginen", azaldu du. Hala, hileta zibilak egiteko prozedura arautzeko bidea egin zuten. "Gure egunerokotasunean ez dago horrelako ekitaldien erreferentziarik, eta oinarri bat utzi behar zela uste genuen", dio Etxanizek.

Udalan informazioa

Hileta zibila egiteko interesa duen edonork udaletxera jo dezake informazio bila, eta bertan, familiak ados ditzake Udalarekin lekua eta bestelako xehetasunak. "Eskolako patioan egin daitezke hiletak, baina familiakoek beste tokiren bat gura izanez gero, Udalan ados dezakete; baita ordua ere. Beharrezko dokumentazioa eta xehetasunak edonork dituela eskura azpimarratu nahi dut", nabarmendu du.

Mairuaren Alardean parte hartu gura dutenendako deialdia

Dagoeneko hasi dituzte aurretengo Mairuaren Alardea antolatze lanak. Uztailearen 19an ospatuko da. Hala, antolatzaileek, iaz parte hartu zutenekin harremanetan jarri diren arren, parte hartu gura duten guztiei atek zabaldu nahi dizkiete. "Pozgarria eta aberasgarria izango litzateke Alardean jende berria sartzea". Antzuolakokalardea.com atarian eta udaletxean dago izena emateko aukera.

Uztaileko Kirol Udalekueetan izena eman daiteke

Egunero, ekainaren 30etik uztailearen 17ra (biak barne) egingo dira Kirol Udalekuak, 10:00etatik 12:15era. 12 eta 16 urte arteko gaztetxoendako da. Abonatuak 39 euro ordaindu beharko dituzte eta abonatu ez direnek, 53. Gaztea abonatu izateko, gurasoak gimnasioko abonatu izan behar du edo DKT txartela izan. Informazio guztia eta izena emateko aukera Antzuola.com webgunean dago.

OHARRAK

IKASLEEN KONTZERTUA

Astelehenean, ekainaren 16an, Musika Eskolako ikasleen kontzertua egingo da, 18:30ean, Torresoroan.

UZARRAGAKO IGOERA

Zapatuan, txirrindulari *challenge*-ko Uzarragako igoera. 12:00etan hasiko da.

HITZALDIA OLARANEN

Hector Prieto gazte aretxabaletarrek elbarritasunaz berba egingo du martitzenean Oларanen, 18:00etan.



Herri eskolako gaztetxoek Aiherrara egindako irteeran ateratako talde argazkia. | PILAR ETXANIZ

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aiherrako herritarrek ezin hobeto hartu zituzten Antzuolako ume eta irakasleak. Lehengo, gainera, gaua eman dute han. Ekainaren 5ean joan ziren, eta 6an itzuli.

Herria ezagutzeko pista-jokoa egin zutela kontatu dute irakasleak: "Aiherrako eta Antzuolako

Aiherratik oso pozik itzuli dira herriko 37 ikasle

neska-mutuez osatutako taldeetan auzoz auzo ibili dira; pistak jarraituz bertako baserri, abere eta paisaiak ezagutu dituzte modu horretan. Ondoren, Aiherrako umeek, ongiatorri moduan, bi

kanta polit abestu zizkieten antzuolarrari; txirulaz *Anaia Shanti*-ren doinua eta koreografia bat ere eskaini zieten. Gero, denok batera *Axuri beltza* dantzatu zuten", azaldu dute.

Ipparaldean hain ohikoa den *aperitifa* hartu ostean, umeak etxeetan banatu zituzten afaldu eta lo egiteko. Tokatu zitzairen etxeak "handiak eta oso politak" zirela kontatu dute, poz-pozik.

Goizean, eskolan bildu eta zientzia-desafioa egin zuten. "Taldea lana zen, bakoitzak ur gainean mantentzeko zerbait eraiki behar zuen. Ontzi polit eta ikusgarriak egin zituzten, argi utziz ideia onak eta sormena ez zaizkiela falta", diote irakasleek.

Hurrengo Antzuolan

Ahierrako gaztetxoak, baina, Antzuolara etorriko dira. "Esperientzia polita izan da, benetan. Hurrengo Antzuolaren txanda izango da. Antzuolako eskolaren partez eskerrak Aiherrako guraso eta irakasleei egin dieten harreragatik; eta baita Antzuolako gurasoei euren elkarlanagatik. Eta, nola ez, esperientzia honetan parte hartu duten ume guztiei euren jarrera onagatik. Eskerrak Udalarri autobusa ordaindu izanagatik ere".



Iazko udalekuei amaiera emateko festa ederra egin zuten Bizente Goikoetxea plazan. | JOKIN BEREZIARTUA

Udalekuak uztailaren 9tik 22ra izango dira aurten

Bederatzi hezitzailek –aramaiorrek guztiak– bihar izango dute formazioa

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Maiatzaren 23an amaitu zen aurtengo udalekuetarako izen-emaitea eta udalekuon arduradun Ana Muñoak eman du aurtengo haur kopurua: 3 eta 12 urte arteko 107

umek hartuko dute parte, iaz baino hiru gutxiagok. Uztailaren 9tik 22ra izango dira aurten –bi egunak barne– eta ekintzak goizez egingo dira nagusiki, 09:00etatik 13:00etara. Izena eman duten

umek zaindu eta hezteko bederatzi begirale arituko dira buru-belarri lanean. Begirale guztiak dira aramaiorrek –izena ematerako orduan lehentasunetako bat zen– eta horietatik bost iaz

San Martin eskolaren ikasturte amaierako festa, "giro ederrean"

J.B. | ARAMAIO
San Martin eskolako komunitateak ekainaren 7an ospatu zuen ikasturte amaierako festa. Adierazi dutenez, "giro ederrean" joan zen jai: "Guraso eta ikasle askok hartu zuten parte, oso ondo pasatu genuen". Arratsaldeko lauretan hasi zituzten ospakizunak, ikasle baten bertso batekin. Ondoren, hainbat tailer izan zituzten: esku-

muturrekoak egitekoa, kamisetak margotzekoa, fruten broxetak eta limoi-ura egitekoa... Eskolako horma baten itsasontzi pirata bat ere margotu zuten.

Gainera, tortillak egiteko pikea, bingoa, tonbola eta karaokea izan zituzten, eta jarraian afari goxoa egin zuten etxetik eramandako jakiekin. Amaitzeko, DJ Nereak girotu zuen dantzaldia.



Ikasle eta gurasoak karaokean, giro paregabe. | SAN MARTIN ESKOLA

Milandik ere, Gure Esku Dago ekimena babesten

1950ean jaiotakoak Italian ibili dira azken egunotan. Gure Esku Dago ekimenaren ekainaren 8ko giza katearekin bat egin zuten Milandik. Bestalde, hainbat leku ezagutu dituzte: Erroma, Napoli, Florentzia, Venezia... "Bidaia interesgarria izan da, giro ezin hobean", adierazi dute.



CRISTINA ETXENAESIA

DATUA

107

UME EGONGO DIRA AURTEN

Antolatzaileen arabera, 107 haurrek hartuko dute parte aurtengo udalekuetan.

ere aritu ziren; lau berriak dira. Hori bai, guztiek bete beharko dute formazio tailerra; bihar izango da: "Programari erreparatu bat emango diogu, begiraleen rola zein den ondo zehaztu, udalekuetako helburuak zeintzuk diren jakinarazi eta segurtasun arauak identifikatu", adierazi du udalekuon arduradun Ana Muñoak. 09:00ak aldera elkartuko dira kultura etxean eta "helburuak bete arte" egongo dira bilduta, Muñoaren arabera.

Euskararen Eguna, Aramaion

Egitaraua biharko tailerrean zehaztuko dute, baina Muñoak aurreratu du Gantzagako ortu ekologiko bat bisitatuko dutela. Gainera, urtero "oso arrakastatsua" izaten delako, Otxandioko igerilekura ere joango dira.

Bestalde, Zuiako Koadrilako Euskararen Eguna Aramaion ospatuko da aurten, uztailaren 17an. Oso egun polita izaten da haurrendako, egitarau osatuagatik eta inguruko herrietako haurrak ezagutzen dituztelako.

The Icer Company taldeak girotuko du gaur Sastiña

J.B. | ARAMAIO

Ekaineko egubakoitzak musikatze ekimenaren barruan, gaur The Icer Company taldeak joko du Sastiñan (20:00). Arima Sutan taldeko abeslari ohi Iker Ziaren proiektu pertsonala da; garai "zail" bat bizi izan ostean etxean grabatutako formatu akustikoko kantuen bilduma osatu zuen eta grabaketa horretan oinarritzen dira gaur Aramaion eskainiko dituzten abestiak.

Adituen arabera, folk eta pop doinuak oinarri dituen "bidaia zaindua, ederra eta barnekoa" da. Beraz, gaur ere goi mailako kontzertua.

Solasaldia gaur Iban Zalduarekin kultura etxean

J.B. | ARAMAIO

Iban Zaldua idazlearen *Inoiz ez, inoiz ez* liburuaren gainean berba egiteko aukera egongo da gaur kultura etxean (20:00), egilearekin berarekin: "Ez dira ohikoak izaten idazleen bisitak. Beti da aberasgarria, liburu bat irakurri ondoren, liburu hori irakurri dutenen iritzia jasotzea. Eta idazlearekin komentatzeko aukera badago, oraindik eta hobeto", diote antolatzaileek. Solasaldia irekia da, eta ondoren, izena aurrez eman dutenek Iturrieta sagardotegian afalduko dute.

Europako Mendietara irteera asteburuan; 11 lagun joango dira

Orixol elkartearen eskutik Europako Mendietara egingo dute irteera 11 lagunek. Urrielluko aterpetxean 15 lagunendako lekua zegoen, eta, beraz, antolatzaileak "pozik" daude izena eman duen jende kopuruarekin. Bi mendi ibilaldi egingo dituzte: biharkoa sei ordukoa izango da eta domekakoa, berriz, zortzi edo bederatzi ordukoa.

Tolosako Uema Egunean parte hartzera deitu du Udalak

Iaz Aramaion ospatu zen Uema Eguna, udalerrri euskaldunen eguna. Etzi, hilak 14, ospatuko da aurten, Tolosan. Eguna osorako egitarau erakargarria antolatu dute; besteak beste, azoka, puzgarriak, Irrien Lagunak eta kontzertuak egongo dira. Udalak aramaiorrei dei egin die jaiarekin bat egin dezaten.

ELGETA

Gaur, 21:00etan, pilota jaialdia presoen sakabanaketa salatzeke

Hainbat herritarren arteko partiduak eta pilota desafio ikusgarria frontoian

LARRAIZ ZEBERIO | ELGETA

Pilotakadaz pilotakada jaialdia izango dugu gaur, barikua, Elgetako pilotalekuan. Poteoarekin hasiko da festa, 20:00etan. Pilota jaialdia, berriz, 21:00etan hasiko da. Antolatzaileek gomendatzen dute ogitartekoarekin joatea frontoira.

Hasierako jokoa parte-hartze irekikoa izango da; barruzka egitera deituta daude elgetarrak. Ondoren, aurrez antolatutako hiru partidu izango dira ikusgai. Norgehiagoka horiek hamabost minutukoak izango dira.

Desafioa kantxan

Berezia izango da hurrengo norgehiagoka. "Bertso pilota partidua" izango dela adierazi dute antolatzaileek. Bikote izango dira Mikel Goñi eta Jose Mari Zezeaga. Aurkaria Xabier Ubera elgetarra izango da, eta bakarrik jokatu du aldean, uneoro, aulki bat dar-mala. Hogei minutuko partidua izango da.

Presoen sakabanaketa salatzeke Etxerategi bultzatutako *Pilotakadaz pilotakada* dinamikaren barruan sartzen da jaialdia. Errifak eta kamisetak egongo dira salgai frontoian.



Pilota jaialdiko antolatzaileak, martitzenean, Salvador kalean. | L.Z.

EGITARUA

EKAINAK 13, BARIKUA

20:00 Poteoa herriko trikitalariekin eta bertsolariekin.

21:00 Jaialdia frontoian:

► **Barruzka.** Parte-hartze irekia herritar guztiendako.

► **Frontenis.** Idoia Elgoro-Ander Gorosabel / Nagore Morales-Mikel Elgoro.

► **Eskuz.** Janire Lazkano-Jon Irazabal / Rebea Ubera-Jose Mari Zubiaurre.

► **Palan.** Maitena Mañarikua-Mikel Larrea / Ibane Zubiaurre-Sergio Bouzas.

► **Desafioa.** Mikel Goñi-Jose Mari Zezeaga / Xabier Ubera

► **Sorpresak.** Besteak beste, tabernariak dendarien aurka.

Gero eta errezeta gehiago gisatua prestatzeko

Zapatuan, hilak 14, izango da Kuadrillen Eguna: 10:30ean emango diote hasiera gisatu lehiaketari

L.Z. | ELGETA

Aurten ere gisatu lehiaketa, herri bazkaria eta erromeria antolatuta ditu Udalak.

Aurrekoetan moduan, Udalak ipiniko ditu kazuelak, eta kuadrilla bakoitzak hamar lagunendako gisatua prestatu behar du, 10:30ean hasita. Gisatuak prest behar du 14:00etarako. Osagaiak izango dira okela eta patata. Saltsa egiteko bakoitzak gura dituen osagaiak erabili ditzake.



Iazko epaimahaiko kideak. | L.Z.

Egun osoko festa

Urtero moduan, zaporea eta itxura baloratuko ditu epaimahaiak 0 eta 10 punturen arteko balorazioa eginez. Irabazleek, aurten, 75 euroko saria eramango dute. Bigarren saria 40 eurokoa da, eta hirugarrena, 25 eurokoa.

Iaz hamar kuadrillak hartu zuten parte, eta *Milizianoek* irabazi zuten. Aurten ikusteko dago nork prestatzen duen epaimahai-kideen esanetan gisatu goxoa. Sua, ontziak eta osagaiak talde bakoitzak ipini behar du.

Sari banaketaren ostean herri bazkaria izango da herriko plazan. Udalak ipiniko ditu mahaiak eta aulkiak, eta kuadrilla bakoitzak bere bazkaria ekarri behar du. Ostean erromeria egongo da Hartzama taldearekin.

LEINTZ GATZAGA

Bandera espainola jarri behar izan dute udaletxearen aurrealdean

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Oraingo asteko astelehenez geroztik, Gatzagako udaletxearen balkoian bi bandera daude: ikurrina eta espainola, hain zuzen. Eta halaxe izango da aurrerantzean, halaberharrez.

Izan ere, apirilean jaso zuen Udalak Espainiako bandera "leku ikusgarrian" jarri behararen

gainera behin betiko sententzia; haren arabera, derrigorrezkoa da bandera gorri-horia jartzea, eta oraingo asteko astelehena zen hori egiteko azkeneko eguna.

Beraz, legeak agindutakoa bete (udal guztiak daude behartuta), eta ikurrinarekin batera eta haren tamaina berberarekin jarri dute espainola.

Debagoieneko guztietan

Orain dela pare bat urte iritsi zen Gatzagara (Debagoieneko gainontzeko udalerrietara moduan) Estatuko abokatuaren errekerimendua, bandera espainola jartzearen derrigortasunaren gainera. Udalak alegazioak aurkeztu zizkion eskakizun hari, baina, helegiteen bitartez bide administratibo guztiak agortu ostean, pare bat hilabete dela iritsi da Gatzagara behin betiko sententzia. Betetzea beste erremediorik ez du izan Udalak.

Zaintza zerbitzurako izenematea zabalik

L.Z. | ELGETA

Udalak 2014-2015 ikasturteko zaintza, ludoteka eta gazteleku zerbitzuetarako aurrematrikulazio epea zabaldu du. Amaitzean den ikasturte honetan izan duten funtzionamendu berdina izango dute irailtik aurrera ere hiru zerbitzuek. Hileko kuota, zerbitzu ezberdinen ordutegia eta adin tarteei dagokien eskakizunak ere berdinak izango dira.

Zaintza eta ludoteka zerbitzuak irailaren 8tik ekainera bitartean eskainiko ditu Udalak, eta eskolako egutegia izango dute. Zaintza zerbitzua 2012tik aurrera jaiotakoendako da, eta 16:00etatik 19:00etara eskainiko dute. Prezioa da 90 euro hilean. Ludoteka zerbitzua 2010etik aurrera jaiotakoendako da eta 16:30etik 19:00etara eskainiko dute. Prezioa da 30 euro hilean.

Gazteleku zerbitzua urritik martxora bitarteko zapatuetan eta domeketan eskainiko du Udalak, 16:00etatik 20:00etara. 2004. urtetik gora jaiotako neska-mutikoendako da, eta prezioa da 25 euro hilean.

Aurre-matrikulazioa

Aurre-matrikulazio epea zabaldu du Udalak. Interesatuek uztailaren 10era arteko epea dute udaletxean izena emateko. Argibideetarako: danonartian@elgeta.net.

Domekan, 25 ibilgailu klasikotik gora herriko plazan

Turismo Sailak antolatuta, ibilgailu klasikoek topaleku izango da Elgeta domekan. 11:30ean elkartuko dira, plazan, eta 13:00etan herriko kaleetan egingo dute ibilaldia. Modelo sorta zabala izango da ikusgai; besteak beste, Citroen 1926, Ford 1929, Renault 1931, Opel 1932, BMW 1938, Mercedes 1958, Sinca, Humber Anh, Delahaye eta Hotchkiss.

Sebastian Arantzabal, Gipuzkoako bolo txapelketan bigarren

Azkenean, Sorluzera joan da txapela. Bolari elgetarrak gertu izan du. Horregatik, ihes egiten ikustea ez da gozoa izan. Berdinduta —33 txirlo— amaitu zuten zapatuko jardunaldia Arantzabalek eta Jose Antonio Nuñezek. Hala, txapelketa erabakitzeke berdinketa hautsi beharra izan zuten, eta sorluzetarrak zorte handiagoa izan zuten.

Astelehenetik aurrera eman daiteke botoa herri kontsultan

Astelehenean zabalitzen da hondakinen bilketa sistemaren gaineko herri kontsultan botoa emateko aukera. Kontsulta eguna, berez, ekainaren 22a da, domeka, eta mahaia egongo da udaletxean 09:00etatik 20:00etara. Astelehenetik aurrera, ordea, botoa eman daiteke Udalaren arreta ordutegian.

OHARRAK

UMEEN IKUSKIZUNA

Eskolak antolatuta, ikasturte amaierako ikuskizuna gaur, barikua, 15:00etan, Espaloian.

ERRETIRATUEN IRTEERA

Egun-pasa Santanderren, hilaren 26an. Prezioa: 30 euro. Izen-ematea hilaren 14an eta 15ean, 11:00etatik 12:00etara, Ozkarbi elkartearen. Urteko kuota ere kobratuko dute: 10 euro.

ERAKUSKETA ESPALIOAN

Martin Elortza omendu zuten domekan herrian. Bere ibilbidea laburbiltzen duen argazki erakusketa ikusgai izango da aste bukaeran Espaloian.

MENDI IRTEERA

Kantsatzekek antolatuta, Arantzazu-Arbelaitz-Arantzazu irteera, hilaren 22an. Izen-ematea zabalik ohiko bideetatik.

LEINTZ GATZAGA

20 lagunek eman dute izena Zuhatzako uhartera joateko, abuztuan

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Itxi da Zuhatzako egonaldiako izen-emate epea, joan den egubakoitzean itxi ere. Eta hogeitaz lagunak egin dute bat aurtengo proposamenarekin, gazteak eta helduak; horietatik zazpi ez dira, gainera, gatzagarrak, ekimenarekin bat egiten duten debagoiendarrak baizik. Abuztuaren 29tik 31ra bitartean

izango dira Arabako uharte hartan. Hemendik aurrerako xehetasunak eta beste elkarrin artean adostuko dituzte.

Gaztetxoak, Gaztainuzketara

Bestalde, herriko udaldekuei dagokienez, Gurelek esan du erabaki dutela gaztetxoan irteera Gaztainuzketako txaboletara egitea, han gaua egitera.

AUTOMOBILISMOA

Herriko hamalau pilotu lehiatuko dira bihar Udanan, Oñati sarian

Guztira, 65 pilotuk hartuko dute esku Udako Igoerako bederatzigarren edizioan

X.U. | ARRASATE

Udanako Igoerak osterara ere pilotu kuadrilla polita batuko du bihar, zapatua, irteera puntuan. Eta ohi moduan, eureka asko oñatiarrak izango dira, hamalau guztira: Ruben Nogueiras (Silver Car), Aitor Ramirez (BMW 320ST), Asier Samaniego (BMW M3), Xabier Elgarresta (BMW M3), Asier Mugarza (Clio Sport), Iñigo Errasti (Clio Sport), Aitor Arnaiz (Clio Williams), Urtzi Samaniego (Audi S3), Andoni Boyero (Golf GTI), Josu Agirre (Golf G60), Monika Muñoz (ZX 16V), Jose M. Campos (BMW 325i), Julen Altuna (BMW 325i) eta Gorka Ibabe (AX GTI). Euren batez beste lehiatuko dira, baina, bai-

larako beste pilotu batzuk; tartean, garaipenerako hautagai Aitor Zabaleta –azken hiru probetan bergararrak ezin izan du Oñatin irabazi–. Iaz, Aitor Arakistain (monoplazak) eta David Ardions (turismoak) izan ziren onenak.

Lasterketa, sikuan

Hori da, hain zuzen ere, lasterketak izango duen beste nobedadeetako bat; izan ere, azken bi urteak eurpean jokatu dituzte, eta, iragarpenekin asmatzen badute, biharko lasterketa sikuan izango dute.

Lasterketa 15:00etan hasiko dute, entrenamendu txandarekin, eta ondoren egingo dituzte beste bi txandak.



Rezustarendako urteko bigarren finala izango da. | IMANOL SORIANO

PILOTA

Rezusta: "Bazen garaia bi atzelari finalean ikusteko"

Bergarakoak promesen mailako txapela du jokoan domekan Tolosan

XABIER URZELAI | ARRASATE

Aspaldian ez moduan, bi atzelariaren artean dago buruz buruko txapela jokoan, promesen mailako sari handiena. Izan ere, domekan (17:00) Beotibarko finala irabazten duenak datorren urterako sari ederra izango du, lehenengo mailako buruz burukoa jokatzeko eskubidea. Eta Beñat Rezusta bergararrak beretako nahi du irabazi eskubide hori; profesionaletan egin duen lehenengo urtea borobiltzeko modua izango litzateke.

Mimoz prestatu du finala

"Ondo nago, finala jokatzeko irrikan", adierazi du aste barruan. Finalerdia jokatu zuenetik ez da zuri jantzi, baina ondo entrenatu da: "Aspaldian eskuetatik ondo nabil. Akaso, finalerdia eta gero beste partidu bat jokatzeko ondo etorriko litzaidake, baina Bergarako jaietako, esaterako, finaletik gertuegi zegoen. Ondo entrenatzeko aprobetxatu dugu denbora tarte hau".

Azken entrenamenduetan zeri eman dion garrantzia ere azaldu

du: "Ibai Zabala eta biok atzelariak gara, eta badirudi aurrelariok baino tanto landuagoak jokatu behar ditugula, pilotakada gehiagokoak. Gauza bat da partidu aurretik zer entrenatzen dugun, eta beste bat partiduan zer irte den. Baina, esaterako, sake

-errematea entrenatzen ibili naiz, eta aurretik ere min eman dezakekela uste dut. Gero, baina, ikusi egin behar partiduan zer egiten dugun...".

Kontrarioaz "harrituta"

Rezustak bertatik bertara jarraitu zuen Ibai Zabalak eta Victorrek jokatuak finalerdia: "Harrituta geratu nintzen. Ideiak oso garbi eraman zituen Ibai Zabalak, eta oso partidu ona egin zuen. Sakez min egin zuen, pilota ondo gurutatu zuen hormara... Kontrario gogorra izango da".

Partidu amaieran, gainera, finalean aurrean izango duenez berba egiteko aprobetxatu zuen: "Komentatzen ibili ginen ordua zela bi atzelari finalean ikusteko. Oraingoa bigarren mailako finala izango da, baina ea lehenbailehen ikusten dugun halako final bat, baina lehenengo mailan".

Begarakoak, seguru, zale mordoa eramango ditu etzi Tolosara, gustuko duen frontoira: "Frontoi ona da hura, eta asko entrenatu naiz bertan. Ez daukat inongo aitzakiarik".

ESANAK

"Ez zen komeni Bergarako jaietako jaialdian parte hartzea"

"Sake-errematea entrenatzen ibili naiz, eta baita aireko jokoa ere"

BEÑAT REZUSTA | ASPEKO PILOTARIA



Zabaleta, iaz, eurpean Oñatin. | IMANOL SORIANO



Grupo ULMA, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

Eguna: 2014ko ekainaren 20a.
Ordua: 10:30ean lehen deialdia eta 11:00etan bigarrena.
Tokia: MU-Enpresagintzako auditorioa – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERREDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta bi bazkide izendatzea batzar honetako akta onartzeko.
2. 2013ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2014ko Gestio Plana eta kostu mankomunatuak jarduerak eta zerbitzuen aurrekontua berrestea.
3. 2013ko ekitaldiko urteko kontuak onartzea.
4. 2013ko ekitaldiko emaitzak banatzeko proposamena.
5. ULMA Talde mailan aplikazio orokorreko eta araudi izaerako gaiei buruz kooperatiba bazkideen Ohiko Batzar Nagusiek hartutako erabakiak berrestea.
6. Kapital gehikuntza.
7. Kontseilu Errektoreko lehendakaria berritzea.
8. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
9. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
10. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
11. Ahalmenak eskuordetzea.
12. Galde-eskeak.

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak eta emaitzak aplikatzeko proposamena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2014ko ekainaren 6a

MOTO-KROSA

"500 kamioikada harea erabili ditugu zirkuitua konpontzeko"

X.U. | ARRASATE

Begarako motor-zale elkarteok lan galanta egiten dihardute bihar, zapatua, egingo duten moto-kros lasterketari begira. "Cross countryko lasterketaren ostean zirkuitua konpontzen ibili gara. Harriak kentzeko, harez betetako 500 kamioikada erabili ditugu, eta aste barruan

oraindik harri gehiago kentzen ibili gara. Gainera, horrekin batera, zapatuan hautsa egon ez dadin ura botako dugu zirkuituan zehar; hortaz, egin dugun lanarekin, espero dugu txukun geratzea", adierazi du Asier Blazquez antolatzaileak.

Biharko 70 pilotu inguru espero dituzte –tartean hainbat

debagoiendar izango dira–, promesen kategoriatik hasi eta junior, senior, elite eta beteranoen kategoriararte.

20-30 metroko saltoekin

Zirkuitua 1,7 kilometro luze da: "Orain artekotik ez du aldaketa handirik, ikusleen gozamenerako 20-30 metro arteko hainbat salto ikusgarri izango ditu".

Lasterketa 14:30ean hasiko dute, promesen kategoriarekin, eta sari banaketa 20:00 aldera izango da.

TXIRRINDULARITZA

Emakumeen Birak munduko ziklista onenak batuko ditu gaur Oñatin, bigarren etapan

Oñati eta Eskoriatza artean ibili ostean Udana eta Atagoiti igoko dituzte

XABIER URZELAI | ARRASATE

Bigarren urtez jarraian munduko txirrindulari onenak ibarrean izango dira, Emakumeen Birari esker. Iaz Aretxabaletak hartu zuen etapa bat, eta gaur, bestek beste, Emma Johansson, Marianne Vos eta Pauline Ferrand ziklistak Oñatin ikusi ahal izango ditugu lehian. Lerrook irakurri orduko, aurtengo edizioko lehen etapak irabazlea izango du, atzo, eguena, hasi zuten-eta Bira, Iurretan. Gaur, ostera, Oñatin hasi eta amaituko duten etapan ziklistek 113 kilometro bete beharko dituzte.



Iaz Aretxabaletak hartu zuen Emakumeen Birako helmuga, Duranan. | GOIENA

Hamazortzi talde

UCI mailako lasterketa izanda, Emakumeen Birak puntako hamazortzi talde batuko ditu; tartean, Euskal Herrian dauden bi ordezkariak: Loitek eta Bizkaia-Durango. Hain zuzen, duela gutxi Bergaran izan ziren bi talde horietako ordezkariak, Gipuzkoako Itzuliaren barruan egin zuten erlojupeko azkarrean.

Gaurko Oñatiko etapa, baina, bestelakoa izango da. Oñatin, parroikia aurrealdean hasiko dute lasterketa (15:50) eta herri barruan lasterketa neutralizatuta egon ostean ziklistek Eskoriatzarako bidea hartuko dute (16:28). Ziklis-

tek, Eskoriatzan, Arlaban igotzen hasi aurretik Oñatirako bidea hartuko dute ostera (16:57), eta bailararik egingo duten hurrengo itzu-

lia Bergara aldetik izango da (17:17). Oñatitik pasako dira azkenekoz -tarteko helmuga- etapako mendateei ekiteko asmoz, Udana lehenengo (17:47) eta Ormaiztegi pasa ondoren Atagoiti gero (18:26). Ziklistendako azken kilometroak izango dira horiek, Udana jaitsi eta Oñatin helmuga izango dute-eta zain, 18:48 aldera.

Mungia eta Ataunera

Zapatuan Bizkai aldera joango da Bira, Arrieta eta Mungia aldean egingo dituzte 91 kilometro. Domekan, ostera, Ataunen amaituko da laugarren etapa, azkena.

DATUA

113

KILOMETRO

Gaurko etapako kilometro asko Oñati, Eskoriatza eta Bergara artean izango dira.

MENDI LASTERKETAK

Hiru Haundiak mendi zeharkaldiari ekingo diote gaur gauerdian bailarako atleta askok, Ondategin

Ordu gutxi barru hasiko dute Hiru Haundiak mendi martxa. Gauerdian hasiko dira atletak lanean, eta Gorbeia izango da gaingitu beharreko hiru tontorretatik lehena. Ondoren Anboto, eta azkenik, Aizkorri. Urtero moduan, aurten ere bailarako atleta asko izango dira proba esanguratsuan. Ordu bakarrean agortu ziren aurten izango diren 1.400 plazak.

BORROKA ARTEA

Gipuzkoako eta Euskadiko Kenpo Txapelketa egingo dute zapatuan Eskoriatzan, Manuel Muñoz kiroldogian

Antolatzaileek 200 borrokalari espero dituzte biharko txapelketarako: Katak egingo dituzte lehenengo, ondoren Goshi-a ere egongo da ikusgai -defentsa pertsonalaren barruan egiten diren simulazioak- eta, ondoren etorriko dira borrokaldiak. Borrokaldietan epaileek zona konkretu batzuetan ematen diren kolpe neurtuak baloratuko dituzte. 16:00etan hasiko da txapelketa.

PILOTA

Debarro Txapelketako finalak jokatuko dituzte zapatuan lau herritako ordezkariak Eskoriatzan, 16:30ean hasita

Deba, Soraluze, Arrasate eta Bergara. Lau herri horietako ordezkariak sailkatu dira Debarro Txapelketako finaletarako. Hala, bihar 16:30ean hasita -Eskoriatzan- kadete mailan Debako eta Bergarako ordezkariak izango dira zein baino zein gehiago. Gazte mailako finala, ostera, Soraluzek eta Arrasatek jokatuko dute, eta senior mailakoa, azkenik, Soraluzek eta Bergarak.

ATLETISMOA

Corpus bezperako XII. Nazioarteko Lasterketa egingo dute ekainaren 21ean, iazko formatuari eutsita

Euskal Herrian jaiotako korrikalari onenak batuko ditu aurten ere Oñatiko Corpus bezperako Nazioarteko Lasterketak (ekainaren 21ean, 19:00etan). Hala, Antxintxiketan Kirol Elkartearen asmoa da punta-puntako hamasei atleta batzea. Eta eurekin batera, kirol taldeak beste lau atleta inguru gonbidatuko ditu. Iaz, Ivan Fernandez gasteiztarra izan zen azkarrena (29:31).

Zerbait aldatzen ari da ARRASATEN

Aukera berriak!
Izan haien berri gure webgunean
www.sukia.com

ONGI
ETORRI

Bista ederrak
Atikoak 198.000 €-tik
hasita

Zatoz eta hitz
egingo dugu **600 902 224**



KULTURA

Julian Sagasta organista omenduz

Ugartek eta Azpiazuk Sagastaren biografia eta musika obrak batu dituzte

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Julian Sagasta Galdos (Arrasate 1914-Erroma 2005) mundu mailan organista ezaguna -adituen esanetan onenetakoa- eta abadea izan zen. Arrasaten jaio bazen ere, 10 urterekin Oñatiko Agustindar Kalonjeen seminariora joan zen abadetzarako ikasketak egitera. Burgosen izan zen gero; eta 18 urte beteta, Erromara destinatatu zuten. Aurrerantzean Erroma izan zuen bizitoki, baina sarritan etortzen zen Debagoienara udako oporrak pasatzera.

Aurten Sagastaren jaiotzaren mendeurrena dela aitzakia hartuta, Jose Antonio Azpiazuk eta Xabier Ugarte oñatiarrek haren

AURKEZPENAK

LIBURUARENA ETA DISKORENA

Ekainaren 18an, 20:00etan:
Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Ekainaren 25ean, 20:00etan:
Oñatiko San Migel parrokian.

bizitzako gertakariak eta, besteak beste, musika alorrean egindako lanak batu dituzte Arrasateko eta Oñatiko udalen laguntzarekin argitaratutako disko eta liburuan. Datozen asteetan aurkeztuko dituzte, Aitor Olea organistaren kontzertuaz jantzita.

Gaztetatik musikazale

Oñatiko seminarioan egin zituen solfeo, piano eta organoaren lehenengo ikasketak, eta Erroma bilakatu zitzaion gero On Giulianori musika bidea garatzeko toki pribilegiatu (horrela deitzen zioten Julian Sagastari Italian). Vatikanoko organistarekin ikasi zuen eta Erromako eta Sienako kontserbatorioetan ere bai.

1947an Erromako basilika garrantzitsu bateko organista ofizialaren postua eskuratu zuen, eta han jardun zuen, 1989an erretiratu zen arte. Ospe handiko musikari bilakatu zen eta aita santu askok eskatu zioten organoa jotzeko. Italian, gainera, Alemanian, Suitzan eta Belgikan ere sarritan jotzen zuen, eta baita Euskal Herrira etortzen zenean ere, Oñatin, Arantzazun eta Donostian, besteak beste.

Sagastaren musika ekarpena, baina, ez zen organora mugatu; askotariko ikerketa eta transkripzio lanak ere egin zituen.

Aurrena, baina, abade

Lehenengo abade eta gero organista zela zioen On Giulianok berak, eta haren lan pastoralak ez zen musika arlori mugatzen. Erroma erabat hondatuta zegoen gerra ostean eta hiritik gertu zeuden errefuxiatuei laguntzen buru-belarri jardun zuen. Judutar familia asko ere ezkutatu zituen lagunaren etxeetan.

Erromara hurbildutako euskaldunak ere ondo hartzen zituen Sagastak, ostatu egokiak aurkitu eta turista gida lanak eginda. Azpiazuk eta Ugartek dioten moduan: "Halakoa zen bera".



Julian Sagasta, Erromako eliza bateko organoan. | JULIAN SAGASTAREN ARTXIBOAN

AITOR OLEA | ORGANISTA

"Editore moduan lan handia egin zuen"

Sagasta moduan, Arrasatekoa eta organista da Olea; beraz, gustura hartu zuen oñatiarren proposamena. Pozik da emaitzaz.

Ze garrantzi ematen diozu Julian Sagastak egindako lanari?

Arrasatearra naizenetik, berezia da niretzat. Bi arlotan azpimarratuko nuke haren lana: batetik, Vatikanoko eta Erromako organista izan zela; eta bestetik, 15 urtean Espainiako Musikologia Institutuko ikerlari bekaduna izan zela. XVI-XVII. mendeko obra asko berreskuratu eta berridatzi zituen edozeinek irakurri ahal izateko era praktikoan editatuz.

Diskoa bi lekutan grabatu duzu.

Bai; Ataunen dago Gipuzkoako organorik zaharrena eta han grabatu genituen antzinako piezak. Arrasaten, berriz, garaiideagoak, Sagastaren belaunaldikoa den organoan. 1914an ekarri zuten Arrasatera.




GOIENA



Diskoaren azala.



Azpiazuk eta Ugarte. | X.U.



Liburuaren azala.

Julian Sagastaren biografia liburua

2007an, organista hil eta handik bi urtera ekarri zituzten hark egindako lanak Sagastaren Erromako logelatik Xabier Ugartek eta Oñatiko Agustindarren buruzagiak; horien artean, partitura solteak eta musika liburuak. Saikapena eginda, liburu batean batzeko material interesgarria topatu

zuten, eta horrela osatu zuten haren biografia. Gainontzekoa agustindarren Oñatiko artxiboan dute gordeta.

Azpiazuk eta Ugartek elkarrekin hainbat musikariren biografiak idatzi izan dituzte aurrez. Laster, Antonino Ibarrondo konpositorena kaleratzeko asmoa dute.



OPARITU EMOZIOAK



Tel.: 663 764 511

www.cestasyregalosadomicilio.com



Oihularik azken antzezlana aurkeztuko du egubakoitzean

ANE ELORDI | BERGARA

Oihulari Klown Antzerki Taldeak *Desorientadas* antzezlana berria estreinatuko du datorren egubakoitzean, ekainaren 20an, Bergarako Zabalotegi Aretoan, 22:30ean.

Virginia Imaz dabil gidolari eta zuzendari lanetan, eta Maria Viaderok eta Rakel Imazek Karufa eta Muxutruka pailazo bidaiariak gorpuztuko dituzte. Helduentzat, gazteleraz egindako antzezlana da, eta Imazek adierazi duenez, hamabost hilabeteko lanaren fruitua da.

Oihulari taldearen estiloa jarraituz, azken lanean ere gai larriak lantzen dituzte umorea erabilita, besteak beste, genero ikuspuntutik abiatuta lankidetzara eta garpena, ekofeminismoa eta iraunkortasuna.

Sarrerarik ez Ladislao eta Berri Txarrak taldeen emanaldirako

Berri Txarrak eta Ladislao taldeen kontzertuetarako sarrera guztiak agortu egin dira. Kooltur Ekintzak antolatuta, Arrasateko gaztetxean arituko dira, ekainaren 19an, eguena, 20:30ean hasita. Eguenean bertan gutxi batzuk saltzeko asmoa bazegoen ere, aurretiaz saldu dira denak.



Eguazten goizean Oñatin egindako aurkezpenean, ekitaldiaren antolatzaileak. | MAIALEN TORRES

Vivaldi eta Bach, Oñatiko Abesbatza eta Bergarako Orfeoiaeren eskutik

Hilaren 29an Oñatin emango dute kontzertua; eta uztailaren 5ean, Bergaran

M. TORRES-M. BITERI | OÑATI

Bergarako Orfeoia eta Oñatiko Abesbatzak barroko garaiko obrak abestuko dituzte aurkeztu berri dituzten bi kontzertuetan. Hamazazpigarren mendeko doinuak gurera ekartzeko, Bach eta Vivaldi diren lanak aukeratu dituzte antolatzaileek. Garaiko estiloaren erakusle hori izateaz gain, obra

bereziak ere badira kantatuko dituztenak; tartean, *Gloria*.

Eguaztenean Oñatiko kultura etxean egindako aurkezpenean honakoa azaldu zuen Orfeoia eta proiektu horren zuzendari Aitor Biainek: "*Gloria* da hama-bi mugimenduz osatutako pieza; korua eta orkestrarentzat dago idatzita. Esanenez, meza

baten parte izateko, nahiko berri-tzailea dela, sokazko orkestratik aparte, tronpeta eta bestelakoak ere badituelako".

Sei hilabeteko lana

Bergarako eta Oñatiko abesbatzek batera egiten duten lehen proiektu "indartsua" da aurkeztutakoa. Orain dela sei hilabete hasi ziren

Vivaldi-Bach proiektuan lanean, eta antolatzaileen esanetan, lan "gogorra" baina "aberasgarria" izan da. Kontzertuetan, 110 pertsonak osatutako korua arituko da kantuan, orkestrak 26 musikari izango ditu eta 45 bakarlaririk abestuko dute. Elkarlanean egindako egitasmoa izan dela nabarmenduz Oñatiko Kultura zinegotzi Nerea Zubiak: "Proiektu honen balio erantsi handia bada talde ezberdinek elkarlanean egindako proiektua dela; bailarako herritarrak elkartzen dituen proiektua dela, gainera. Oso aberasgarria da hori".

Oraingoz, bi kontzertu dituzte esku artean: hilaren 29an, domeka, Oñatiko parrokiaren eskainiko dutena, batetik; eta uztailaren 5ean, zapatua, Bergarako San Pedron, bestetik. Bata zein bestea 19:00etan hasiko dira.

Kanpora ateratzeko gogoia

Dena dela, antolatzaileek ez dute baztertzeko kanpora ateratzea. Izan ere, joan den urteko arrakasta ikusita, aurtengo proiektuak ere harrera ona izatea espero dute. Horren harira, honakoa aipatu zuen Bergarako Orfeoia presidentea Karlos Etxanizek: "Batetik, esan beharra dago oso gustura gabiltzala entseguetan. Eta bestetik, aipatzekoa da joan den urteko esperientzia ere oso polita izan zela; Bergaran eta Oñatin egindako kontzertu bakoitzean mila lagun inguru izan ziren; jende asko".

Kontzertuetara joateko interesa dutenek honako tokietan erosi ahal izango dituzte sarrerak zortzi eurotan: Bergaran, kultura etxean, Benjamin zapata dendan eta Pikupe produkzioen bulegoan; eta Oñatin, Izarraitzen eta Portu tabernetan.

Altuna eta Arregi zinemagile debagoiendarrak Kimuak-en

Lehendabizikoz izango da Aitor Arregiren lana zuzendari gisa euskal film laburren katalogoan

ANE ELORDI | DEBAGOIENA

Asier Altuna eta Aitor Arregi debagoiendarren lanak aukeratu dituzte Kimuak 2014 katalogorako. 63 lanen artean, Arregiren *Zarautzen erosi zuen* eta Altunaren *Soroa* lanak izan dira aukeratutako zazpitik bi. Aitor Arregi oñatiarrak lehenbiziko aldiz zuzendari gisa hartuko du parte egitasmoan. Altunaren bigarren aldia izango da aurtengoa, iaz *Zela Trovek* lanarekin hartu zuen parte Kimuak-en.

Euskadiko film laburren aukeraketa egin du Kimuak egitasmoak aurtun ere, eta Donostiako Zinemaldian aurkeztuko ditu. Pozik hartu du berria Aitor Arregi, Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko irakaslea. Izan ere, lehen aldiz berak zuzendutako lan bat Kimuak

katalogorako sailkatua izan da. Zarautzen erosi zuen tituludun film laburrak lantzen du jandako kalte baten ordainketarekin obsesionatua dagoen emakume baten istorioa. Inspirazio edo ideia iturri izan ditu ingurua eta imaginazioa; anekdota bat izan du abiapuntu eta ideia jantzen joan direla adierazi du egileak. Ideia gauzatzeko, Nagore Aranburu, Ainere Tolosa eta Gotzon Sanchez aktoreak izan dira protagonistak.

Arregi adierazi duenez, 2013ko maiatzean ekin zioten proiektuari. Orduan idatzi zuten gidoiaren lehen bertsioa, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzeko batera produkzio lanetan hasi ziren. Moriarti Produkzioek ekoitzi dute film laburra, eta, Aitor Arregi adierazi duenez,



Nagore Aranburu, *Zarautzen erosi zuen* film laburra. | MORIARTI PRODUKZIOAK

"helburu nagusia Kimuak-en sartzea zen". Zuzendariaren esanetan, helburua lortuta pozik daude, denbora eta esfortzu handia egin dutelako.

Film laburren inguruan dihardutenentzat garrantzitsua da Kimuak-en katalogoan aukeratu izatea; izan ere, sortzaile oñatiarrak adierazi duenez, Kimuak-iesker, film laburraren zabalkunde errazagoa da, denbora zein diru aldetik. Gainera, kalitatea eta bermea ematen dituela ere

adierazi du; maila pertsonalean, "garrantzitsua da jakitea zenbait adituk lana ikusi dutela eta gustatu zaiela".

Asier Altunaren 'Soroa'

Asier Altuna zinemagile bergararraren *Soroa* lana ere aukeratu izan da Kimuak 2014 katalogorako. Duela bi urte ekin zion lanari, eta Jorge Oteitzaren olerkia du oinarri: *Hildako bakoitzak hatz salatzaile bat uzten du zerurantz*. Altunak genero esperimen-

talarekin jolasten du, eta poesia bisualaren esparruan murgiltzen da lan horren bitartez. Arregiren esanetan, "ez da harrigarria Asier Altunaren lana Kimuak-en sailkatzea; izan ere, Euskal Herriko zinemagintzan erreferenteetako bat da, eta berri pozgarria da". Izan ere, Altunak ibilbide oparoa egin du euskarazko zinemagintzan; besteak beste, *Aupa Etxebeste*, *Urte Berri On Amona* eta *Bertsolari*, Txintxua Films produkzio etxearekin egindakoak.

Arrasatearrak eta suediarrek domekan elkarrekin kantuan

- Txorbela otxotea eta Estokolmoko Katedraleko abesbatzak abestuko dute
- Arrasateko San Frantzisko elizan (20:00) egingo dute kontzertua

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Orain bi urte ezagutu zuten elkar Estokolmoko eta Arrasateko hainbat abeslarik; bata bestearen herrialdean kontzertuak egin zituzten elkarrekin, lagunarte polita osatuz guztien artean. Varangoi otxotea izan zen orduan; domekan, berriz, Estokolmoko katedraleko abesbatza izango da arrasatearrekin batera, San Frantzisko elizan, 20:00etan.

Taldeka, eta elkarrekin gero

Etxekoak izango dira kantatzen lehenengoak. Mikel Arregik zuzendutako 12 lagun inguruko taldeak, sei urtetako ibilbidean osatutako errepertorioaren laburpena egingo du; hori horrela, euskal folklore kantua, eliza kantua eta munduko askotariko herrialde-tako abestiak batuko dituzte. Askotariko doinu eta hizkuntzetan abestutakoak, bada.

Suediarrena izango da kontzertuaren zati luzeena, segidan. Michael Waldenbyk zuzenduta, musika erromantikoa eta gaur egungoa bateratzen dituen kantu zerrenda oparua dute prestatuta: "Bidaia horretarako programa berezia dugu, besteak beste, gure zuzendariak sortutako piezak eramango ditugu. Horrez gainera, euskaraz kantatzen ere ausartuko gara" azaldu du Micaela

Wannefors Stocholms Domkyrkokör abesbatzakoak. Tinbre lodi eta emankorrak ditu Suediako abesbatzak ezaugarri. Wanneforsen esanetan, ez da ohiko abesbatza. Profesionalek osatutakoa da eta bakoitzak du bere espresio artistikoa garatzeko askatasuna eta abilezia. Estokolmoko musikagintza eta kultura aberasteko ekarpenak egitea da euren asmoa. Hiru emanaldi egingo dituzte Euskal Herrian, bihar, zapatua, Hondarribian; domekan Arrasaten eta astelehenean, Donostiako Capuchinoseko elizan. Pozarren datoz suediarrek gurera, "Lagun euskaldunei esker, sekulako bidaia izango da. Kantuan egiteaz gainera, txoko polit asko ezagutzeko aukera izango dugu-eta". azaldu du Estokolmoko abeslariak.

Domekako emanaldia boro-biltzeko, taldekako erakustaldiak egin eta gero, egon daiteke talde bien arteko kantu sorpresaren bat gordeta.

Txorbelen agenda ere topera
Garai bateko kantuak berreskuratuta eta herri giroa suspertzeko helburuarekin sortu zuten orain sei urte Txorbela otxotea. Orduan ez zuten uste herriko mugak gaindituko zituztenik, baina dagoeneko ezagunak dira Espainiako hainbat txokotan eta atzerrian ere hainbat alditan izan dira kantuan. Txorbelen emanaldiak ez dira kontzertu formatuetara mugatzen. Askotariko aurkezpen eta ekitaldietara gonbidatzen dituzte, gaur, egubakoitza esateko, HUHEZI fakultateko ikasturte amaierako ekitaldian izango dira, Amaia antzokian. Horrez gainera, asko dira jantzi dituzten ezkontzak ere.

Asko gozatzen dute kantuan eta are gehiago taldean duten giroaz. Datozen hilabeteetarako agenda bete dute. San Juanetan Granadan izango dira; lau kontzertu egingo dituzte: hiriburuan bi eta Alhama herrian beste bi.



Txorbela otxotea, aurtengo Udaberri musikaldiko emanaldian. | JOSETXO ARANTZABAL



Estokolmoko katedraleko abesbatzak hiru kontzertu egingo ditu Euskal Herrian; domekan, Arrasaten. | S. D.

Joxan Iza | Margolaria

"Urte askotan isilean egindako lanaren ordainsaria da Pariskoa"

Arkitektura margolan bilduma du Parisen erakusgai Bergararako artistak

A. A. | OÑATI

Parisko Natalia Gomendio galerian du erakusgai, Oñatin bizi den Bergarako margolariak, *Parcours* izeneko bilduma.

Nolatan Parisen?

2011. urtean Donostiako Arteko galeriako erakusketan izan zen Natalia; harez gero internetez jarraitu nau eta otsailean egin zidan proposamena. Oso pozik nago. Urte askoan isilean egindako lanaren ordainsaria da.

Zelako lanak eraman dituzu?

30 lan dira guztira; horietatik 20 Pariserako espresuki egindakoak dira, eta gainontzekoak, aurrez egindako akuarelak. Askotariko neurritakoak dira eta hainbat teknika nahastuz egindakoak: akrilikoak, oleoak, txinatar tinta, collageak, ordenagailuz landutakoak; binilozko irudidunak...

Zer da irudikatzen duzuna?

Modu baten esanda, paisaia urbanoak. Ez zait gustatzen baina, gauza zehatzak erakustea. Arkitekturak dira, poliedrikoak, ikuspuntu eta elementu ezberdinak integratzen dituztenak.



Joxan Iza, Natalia Gomendio galeristarekin Parisko erakusketan. | J. I.

Ondo ezagutzen duzu Paris. Zortzi urtetan han bizi izandakoa zara.

Arte Ederrek ikasketak burutzera joan nintzen 1979. urtean, eta

"Arkitektura margolanak dira; nahastutako elementu askokoak"

egia esan, oroitzapen oso politikak ditut. Askotariko teknikak jorratu nituen hango eskolan. Louvre museoko sarrera doan neukan Arte Ederretako ikaslea nintzelako, eta ederki aprobetxatu nuen bai aukera! Baina benetan markatu ninduen, Inpresionisten Museoa izan zen. Mundu berri bat zabaldu zitzaidan.

Beste artista asko moduan, zu ere, Parisko kaleetan margotzen ibilitakoa izango zara orduan.

Koadroak etxean margotzen nituen aurrez kalean hartutako akuarelazko apunteak oinarri hartuta. Paris oso artistikoa da; Sena ibaiaren edozein toki da aproposa. Formatu panoramikoak dau de alde guztietan.

Garai hartan ere hainbat erakusketa izan zenituen Parisen.

Bai; hala da, baita Grezian ere, birritan izan ziren nire lanak han. Geroago Italiako Ortonovon ere izan nituen, Bergarako beste hainbat margolarirekin osatutako erakusketa kolektiboan. Aspaldian baina, atzerrian erakutsi barik nengoen.

Eta Euskal Herrian?

Urtean pare bat egiten ditut gutxi gora behera: Arteko galerian eta kultura etxeetan bestela. Irailean Durangon izango naiz.

Debagoienean erakusketarik egingo asmorik baduzu?

Bai, banabil zerbait lotu guran; baina ez zait gustatzen presaka ibiltzea. Gustuko dudan areto baten bila nabil, lasai.

Margotzea afizio duzu, ofizio bilakatzeko modurik ikusten duzu?

Inprenta batean egiten dut lan, baina nolabait esanda, margotzea, afizioa baino gehiago da. Gaur egun artea, bizitzeko era bat bihurtu da niretzat.

Izan ere eskarmentu handia duzu, umetatik margotzen.

Bai horixe! Baserriko sukaldean klarionarekin lehenengo; ikatz-marrakiaz egiten ikasi nuen gero, aire libreko lehiaketa askotara ere joaten nintzen...

Haur dantzarien eguna egingo dute etzi, domekan, Arrasaten

Debagoieneko ordezkari zabala izango du: herriko Txikitxu-Arrostaitz eta Lore Gazteak taldeak, Aramaiokoa, Antzuolakoa, Oñatikoa eta Aretxabaletakoa. Horiez gainera, Oiartzundik, Durangotik eta Iruñetik ere etorriko dira. Horiiek guztiek, Udalaxpe txistulari taldearekin eta Arrasateko gaiteroen musikarekin askotariko dantza emanaldiak egingo dituzte: 11:15etan hasita, erdiguneko kaleetan, eta herriko plazan 13:30ean eta 17:15ean.

1945eko inkunablea berri duen Henar Pesoren hitzaldia bihar

Arantzazuko Liburutegian, 107 inkunable gordetzen dira; horien artean dago Henar Pesok berri berri duen San Agustinena. Urtarrilean jaso zuten Pesok liburua eta lau hilabetetako konponketak eginda, apirilaren 29an aurkeztu zuten. Bihar, zapatua, Arantzazuko Gogartetxean izango da Henar Peso; 12:00etan hasita, antzinako liburu baten berrikuntza prozesuaren gaineko azalpenak emango ditu. Berbaldirako sarrera doakoa eta zabala da.



Amaia Igartua,
Oñatiko Potx eta Motx
pailazoaren lokalean.



JULEN APERRIBAI

Amaia Igartua | Pailazoa

"Umeak zoriontsu egiten ditugu agertokira igotzen garenean; zoragarria da"

JULEN APERRIBAI | OÑATI

Institutu garaian antolatutako Euskararen Egun batean pailazo aritu eta zenbaiten arreta bereganatu zuen Amaia Igartuak (Oñati, 1994). Pixkanaka, gauza serioago hartu eta, egun, Potx eta Motx pailazoaren ikuskizuneko Motx antzezten du.

Zer sentsazio sorrazten dizu haurrei barrea eragiteak?

Niri asko gustatzen zaizkit umeak, eta agertokira igotzen garenean zoriontsu egiten ditugu; hori izugarria da. Beraien arreta guztia dugu, beraiek momentu horretan ikusi eta entzun nahi dutena gara, horrek poz handia ematen du.

Umorea eragitea ez da gauza erraza. Zerk ematen dizu ondo ari zaren segurtasuna?

Azkenean, ez naiz ni umeen aurrean jartzen dena. Mozorrotzen garen momentutik Potx eta Motx gara eta ahaztu egiten dut benetan nor naizen. Motx bezala beti sentitzen naiz seguru. Jendea barrezka ikusten badut, badakit nire lana ondo ari naizela egiten. Paperean sartu aurretik oso urdu-ri egoten naiz, baina haurrak eta haien gurasoak barrezka ikusten ditudanean lasaitu egiten naiz.

Egunerokotasunean ere umoretsu zara?

Nik baietz uste dut. Nire izaera ez da agertokian nagoenean bezalakoa, baina alai banaiz. Hala ere, haserretu behar denean ere badakit haserretzen.

Zuen ikuskizuna berritzen edo elementu berriak sartzen saiatzen zarete?

Naturan barrena izeneko ikuskizuna egiten dugu, eta, gero, Setan, Zerraldo eta beste pertsonaia batzuk agertzen dira. Hori da guk normalean egiten duguna. Bestela, eskatzen digutenaren arabera ikuskizuna moldatzen dugu. Oinarri bat dugu, baina aldaketa txikiak egiten ditugu.

Inprobisazioak badu lekuri?

Gidoi bat daukagu, nolabait, puntu nagusiekin. Momentu bakoitzean zer egin zehazten dugu hor. Ikuskizunean, baina, gauza asko ez ditugu egiten entseguetan egiten ditugun moduan. Inprobisatu egiten dugu, publikoaren erantzunaren arabera.

Duela gutxi kaleratu duzue diskoa. Zer-nolako harrera ari da izaten?

Diskoak *Naturan barrena* ikuskizuneko abestiak biltzen ditu.

Eskaintzen ditugun ikuskizunetan eta Kiku eta Mizke gozokidendetan salgai jarri ditugu. Orain arte, jendeak erosi du, eta oso gustura gaude.

Zein motatako gaiak lantzen dituzue haurrekin?

Naturan barrena-n haurrei erakutsi nahi dieguna da gauzak buruz ikasterakoan ez direla barneratzen, ikusiz eta ulertuz hobeto barneratzen direla. Gure kasuan, Miope irakasleak animalia batzuen ezaugarriak buruz ikasteko esaten digu, baina gu, horren ordez, mendira joan eta bertan ikusiz ikasten dugu.

Nola entseatzeko duzue?

Normalean, ikuskizun bat daukagunean, gidoia ondo prestatzeko elkartzeko gara. Behin hori ondo zehaztuta, bizpahiru egunean ikuskizuna entseatzeko dugu goiz eta arratsalde.

Udari begira zein asmotan zarete? Ikuskizunak eskainiko dituzue?

Oraingoan, auzo batzuetatik deitu digute, eta hori da daukaguna. Uda osterako jada zehaztu ditugu beste batzuk ere. Laudion egongo gara, esaterako.

Bideoklipa ere grabatu duzue, ezta?

Bai; datorren astean edo bi aste barru egingo dugu aurkezpena, Santa Ana antzokian. Esperientzia ona izan da, herriak parte hartzea lortu baitugu. Zati bat plazan grabatu genuen, eta jende ugari bertaratu zen. Eskertzekoa da, irudi batzuk oso politak geratu baitira.

Zure bizitza profesionala bete-betean honetara bideratu nahiko zenuke?

Ez, ikasten ere banabil eta ez dut pailazo izatera mugatu nahi. Oso gustura egiten dudana zerbait da eta jarraitzeko gogoz nago, baina *hobby* bat da niretzat. Nire profesioa baino gehiago ikusten dut bigarren lan gisa.

PERTSONALA

Pailazo erreferentea: Porrotx.

Janari gustukoena: Patata-tortilla.

Mendia ala hondartza? Hondartza.

Zure herriko txoko gogokoena: Usako.

Musikari gustukoena: Mikel Urdangarin.

Oporretara joateko leku bat: Peñíscola (Valentziako Autonomia Erkidegoa).

Plan perfektua: Eguna pasatzera hondartzara joatea.

Ikusi duzun azken filma: *Malditos vecinos*.

EMAKUMEEN BIZITZA HOBETZEAREN GAINEAN ENTITATE PRIBATUEK ~~EZ DUTE~~ ERANTZUKIZUNA BEREGANATU BEHARKO DUTE.

- * Onartzea 2013ko uztailearen 17ko 4/2013 Foru Araua, Foru Sektore Publikoko obra kontratueta klausula sozialak sartzeari buruzkoa. Hor zehazten da berdintasuneko hainbat plan lantzeko eskakizuna, honelako alderdiak jasoko dituztenak: lan baldintzak hobetzea, sektore maskulinizatueta emakumeak kontratatzea, bateragarritasuna eta ardura partekatua sustatzea, indarkeria matxistaren arloan prebenitzea eta esku hartzea, eta abar.
- ** Sozietateen mozkinen gaineko zergaren aurreproiektuan, berdintasun arloko zerga pizgarriak lehenesteko proposamena, alderdi hauek kontuan hartuta: emakumeen enplegu mugagabearen sorrera eta emakumeen lan baldintzen hobekuntza; ardura partekatua, eta bizitza pertsonalaren, familia bizitzaren eta lan bizitzaren bateragarritasuna; jarrera sexisten gaineko prebentzioa eta jazarpen sexistaren gaineko esku-hartzea; eta abar.
- *** 2013an, bikoiztu egin dira berdintasun klausulen kopurua, eta halakoak jasotzen dituzten kontratazio espedienteen kopurua ere bai: lehen, 32 kontratu ziren -13,7 milioi euro, guztira-, eta orain, berriz, 71 kontratu -26,9 milioi euro, guztira-.
- **** 2013an, ugaldtu egin dira berdintasun klausulak, baita halako klausulak jasotzen dituzten diru laguntza deialdiak ere.

ASTEAGOIENAN



IMANOL GALLEGO

Bergarako Pazko jaien saio berezia

Gaur, egubakoitza, Bergarako aurtengo jaiak eman dutena ikusi ahal izango da Goiena telebistan. 19:30ean, 22:00etan eta 00:30ean eskainiko da saioa. Asteburuan ere hainbat ordutan errepikatuko da festen saio berezia. Ordutegiak, beheko taulan.

'Jaiak'

Egubakoitza, 19:30



LARRAITZ ZEBERIO

LOMCE legeari buruzko tertulia

Eguaztenean Larraitz Zeberio ikusgaitza gidatutako tertulian hezkuntza komunitatean kezka eragiten duen LOMCE legea izango da hizpide. Horretarako, hezkuntza komunitateko hainbat ordezkari izango dira saioan gaiari buruzko euren iritzia ematen.

'Tertulia'

Eguaztena, 19:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 13

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Giza katea Debagoiengan
13:30 Zorion Agurrak
13:35 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:50 Gazta zati bat
18:30 Berriak
19:00 Amaia DJ
19:30 Jaiak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Jaiak
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Jaiak

ZAPATUA, 14

10:00 Kantari
10:30 Jaiak: Bergarako jaiak
11:10 Debagoiena zuzenean
12:00 Amaia DJ
12:30 Zorion Agurrak
12:35 Ibilaldia 2014
14:00 Harira
14:35 Jaiak: Bergarako jaiak
15:15 Zorion Agurrak
15:20 Astea iruditan
15:30 Debagoiena zuzenean
16:30 Kantari
17:00 Jaiak: Bergarako jaiak
17:40 7 Akorde
18:10 Giza katea Debagoiengan
18:55 Amaia DJ
19:15 Debagoiena zuzenean
20:15 Astea iruditan
20:20 Jaiak: Bergarako jaiak
21:00 Debagoiena zuzenean
22:00 Harira
22:30 Jaiak: Bergarako jaiak
23:15 Astea iruditan
23:20 Debagoiena zuzenean
00:20 7 Akorde
02:45 Debagoiena zuzenean

DOMEKA, 15

10:00 Amaia DJ
10:30 Zorion Agurrak
10:35 7 Akorde
11:00 Harira
11:30 Giza katea Debagoiengan
13:00 Jaiak: Bergarako jaiak
13:40 Zorion Agurrak
13:45 Astea iruditan
13:50 Debagoiena zuzenean
14:50 Zorion Agurrak
15:00 Amaia DJ
15:30 Jaiak: Bergarako jaiak
17:10 7 Akorde
17:40 Debagoiena zuzenean
18:40 Astea iruditan
18:45 Zorion Agurrak
18:50 Amaia DJ
19:15 Giza katea Debagoiengan
20:45 Jaiak: Bergarako jaiak
21:20 Astea iruditan
21:25 Debagoiena zuzenean
22:30 Giza katea Debagoiengan
00:00 Jaiak: Bergarako jaiak

ASTELEHENA, 16

12:00 Jaiak: Bergarako jaiak
12:40 Tripa-zorri
13:30 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Jaiak: Bergarako jaiak
15:40 Ikusmira
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Kantari
17:30 Atik Zra
18:10 Ikusmira
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Amaia DJ
19:30 Harmailatik
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harmailatik
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Harmailatik

MARTITZENA, 17

12:00 Harmailatik
12:30 Tripa-zorri
13:10 7 Akorde
13:40 Amaia DJ
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harmailatik
15:30 Onein
15:55 Zorion Agurrak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Ibilaldia 2014
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Kantari
19:30 7 Akorde
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 7 Akorde
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 7 Akorde

EGUAZTENA, 18

12:00 Atik Zra
12:40 Onein
13:25 Harmailatik
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harira
15:30 7 Akorde
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Kantari
17:30 Tripa-zorri
18:10 Aniztasunean bizi
18:30 Berriak
19:00 Tertulia
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Tertulia
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Tertulia

EGUENA, 19

12:00 Tertulia
13:00 Jaiak: Bergarako jaiak
13:40 Zorion Agurrak
13:45 Ikusmira
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 7 Akorde
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:30 Tertulia
18:30 Berriak
19:00 7 Akorde
19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Amaia DJ
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Amaia DJ

ARRASATE IRRATIA

Asteko gainbegiratuazapatu eta domekan 10:00etatik aurrera

Asteburuan, besteak beste, Txorbela Otxoteko kide den Tomas Asperi egindako elkarrizketa entzun ahal izango da irrastian. Estokolmoko katedraleko abesbatzarekin eskainiko du emanaldia Txorbela Otxoteko San Frantziskon domekan eta kontzertuari buruz hitz egingo da saioan.

Berri Txarrak eta Ladislao ikusteko sarrerak zozketan

Agortuta daude sarrera guztiak eguenean 20:30ean gaztetxean Berri Txarrak taldeak eta Ladislao eskainiko duten kontzertua ikusteko. Baina Arrasate Irrastian sarrerak daude zozkatzeko. Hartu parte 943 25 05 05era deituta edo idatzi irratia@goiena.com helbidera sarrerak lortzeko.

EZTEIAK



Nagore eta Jon Ander

Nagore Sasiain eta Jon Ander Gurrutxaga zapatuan, ekainaren 14an, ezkonduko dira Aretxabaletan eta Itziargo Zalegi jatetxean ospatuko dute. "Zorionak, bikote! Zuekin batera egun berezi hau ospatzeko desiratzen gaude! Disfrutatu eta zorionsu izaten jarraitu! Patxo bana lagun partetik".



Oscar eta Maite

Oscar Encina eta Maite Marcos zapatuan, ekainaren 14an, ezkonduko dira Aretxabaletako udaletxean. "Zorionak, bikote, familiaren eta lagun partetik!".



Alex eta Rosa

Alex Zarain eta Rosa Quintanilla zapatuan, ekainaren 14an, ezkonduko dira Musakolako San Isidro elizan. Familiaren, lagun eta batez ere seme lbair partetik zorionak eta egun on-ona pasatu, bikote!



Begoña eta Luis

Begoña Ibarguengoitia eta Luis Zubia ekainaren 13an ezkondu ziren, orain dela 50 urte. Urrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, "urte askotarako etxeko guztien partetik! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bana".



Sara eta Asier

Sara eta Asier egubakoitzean ezkonduko dira Arrasateko Udaletxean. Ospakizuna zapatuan egingo dute Lasa jatetxean eta Japoniara joango dira bidaiari. Orain bezain zorionsu jarrai dezatela, familia guztiaren eta, batez ere, Alexen eta Noaren partetik.

OROIGARRIA

**Anton
Zubizarreta Berraondo**

2014ko ekainaren 6an hil zen.

*Palaziok faltan botako zaittu,
baine gorutze begittuaz bat jakingou
izartxo bat ixotu dozule Suñako zeru gainien.
Eskerrik asko zutaz disfrutetan itxi goaitesun momentu danengatik.
Zure maitxasun, irifar, kantu eta indarrak gureaz geldittuko die.
Laster arte, Aitxitxe.*

Aramaion, 2014ko ekainaren 13an.

URTEURRENA

**Aniceto
Aristi Gabilondo**

2013ko ekainaren 7an hil zen, 73 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
ekainaren 15ean, 11:00etan,
Antzuolako Errukizko amaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.
Antzuolan, 2014ko ekainaren 13an.

URTEURRENA

**Jose Maria
Martin Camin**

Antzuolan hil zen 2013ko ekainaren 16an, 61 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 15ean,
11:00etan, Antzuolako Errukizko amaren parrokian.

Beti gure bihotzetan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.
Antzuolan, 2014ko ekainaren 13an.

URTEURRENA

**Juan
Beitia Zugasti**

Bergaran hil zen 2013ko ekainaren 16an, 71 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
ekainaren 15ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko haren emaztearen eta gainerako senideen izenean.
Bergaran, 2014ko ekainaren 13an.

URTEURRENA

**Antonio
Irazola Altuna**

Bergaran hil zen 2013ko ekainaren 21ean, 88 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
ekainaren 15ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Bergaran, 2014ko ekainaren 13an.

URTEURRENA

**Luis
Etxeberria Luarizaristi**

Bergaran hil zen 2013ko ekainaren 11n, 57 urte zituela.

*Zure oroimen zaratsuak beteko ditu
inguruko mendi, baso, zelai
eta zure lagunen barruan
utzi duzun hutsune ixila.
Betirako gurekin, betiko lagun.*

Bergaran, 2014ko ekainaren 13an.

URTEURRENA

**Marielen
Otalora Galdos**

2013ko ekainaren 6an hil zen, 88 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da,
ekainaren 14an, 19:00etan,
Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2014ko ekainaren 13an.

URTEURRENA

**Maxima
Arza Leturia**

2013ko ekainaren 11n hil zen, 82 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
ekainaren 15ean, 12:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2014ko ekainaren 13an.

ESKER ONA

**Angel
Astondoa Errasti**


Aramaion hil zen 2014ko ekainaren 6an, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak
bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, sendikoen izenean.

*Zure umarea eta kementa,
guregan da betirako,
eman diguzun guztiagatik,
bihotzez eskerrik asko.*

Aramaion (Barajuen), 2014ko ekainaren 13an.

ESKER ONA

**Eusebio
Alberdi Lizarralde**

Bergaran hil zen 2014ko ekainaren 5ean, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak
bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2013ko ekainaren 13an.

ESKER ONA

**Ion
Errasti Alzelai**

Tolosan hil zen 2014ko maiatzaren 15ean, 51 urte zituela.

Egun gogor hauetan gure ondoan egon zaretenoi, esker mila.

Bergaran, 2014ko ekainaren 13an.

ESKER ONA

**Facundo
Garay Txintxurreta**

Bedoñako Iturrixa baserrikoa

Ekainaren 5ean hil zen, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak
bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Haren aldeko ondra meza domekan izango da, ekainaren 15ean, 13:00etan,
Bedoñako Santa Eulalia elizan. Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrak.

Arrasaten, 2014ko ekainaren 13an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta
ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta
traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-
guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



maribi 617 44 21 55
BERGARA

**Carmen eta Antonio**

Carmen eta Antonio zapatuan, ekainaren 14an, ezkonduko dira.
"Zorionak, bikote! Ederto pasatuko dugu eta zoriontsu izan.
Muxu handi bat bioi, familiaren eta lagunen partetik".

**Asier eta Amaia**

Asier Olasagasti donostiarra eta Amaia Bernal oñatiarra
zapatuan ezkonduko dira Asezioko ermitan. Etxe-berri
jatetxean ospatuko dute egun berezi hau. Lagunen par-
tetik, "zorionak, bikote! Gertu zapatu-
rako? Ederto pasatuko dugun dudarik ez daukagu!
Zorionak eta ondo ibili bidaiari.
Besalkana bana".



WWW.MARKLINE.COM

ARRASATE Haur dantzariak

Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz taldeen eskutik, Haur Dantzarien Eguna ospatu dute domekan. 10:00etan Zaldibarren elkartuko dira, ostean kalerik kale ibiliko dira; eta bazkaldu ondoren, alardea egingo dute talde guztiek Herriko plazan, 17:15ean. Ostean DJ Amaia Txintxurretak dantzaldia egingo du. Etzi, domeka, kalerik kale, 11:15ean hasita.



GOIENA

ERAKUSKETAK**ARRASATE 'Mondragoe beirazko plaketan'**

Arrasatek orain arte ezagutu dituen argazkirik zaharrenak biltzen dituen erakusketa, Arrasate Zientzia Elkarteko eskutik, uztailearen 6ra arte. Gazteluondoko etxe batetik berreskuraturako 108 erretratu ipini dituzte. Uztailearen 6ra arte, Kulturateko klastroan.

ELGETA Martin Elortzaren omenez

Herrian egin dioten omenaldia-rekin lotuta 18 panelekin osaturako argazki erakusketa egongo da ikusgai aste bukaeran. Domeka arte, Espaloian.

tsolariekin eta trikitilariekin; txokolate-jana, bolo txapelketa eta auzo-afaria; eta, domekan, meza, Oñatiko Herri Kirol taldearen erakustaldia eta Triki-mailu taldearen emanaldia. Bihar, zapatua, eta, etzi, domeka, Araotzen.

BERGARA San Antonio auzoko jaiak

Askotariko ekintzak egingo dituzte domekara arte: hilaren 13an, meza, eta San Joxepe abesbatza-zen kontzertua; hilaren 14an, zezentxoak eta poniak, mus txapelketa, buruhandiak eta sardina jana; eta hilaren 15ean, Don Serafin Esnaolari omenaldia, eta gazteendako txirringulari probak egingo dituzte, besteak beste. Egubakoitzetik domekara, San Antonio auzoan.

OSPAKIZUNAK**BERGARA Gaztetxearen 14. urteurrena**

Hilaren 13an magia ikuskizuna egingo du Imanol Ituñok, eta ostean suzko erroberak. Hilaren 14an afari tertulia Bartzelonako Can Vues CSAko kideekin; eta hilaren 15ean, umeen eguna: Gaurtik domekara arte, kartzela zaharrea.

HITZALDIA**OÑATI Henar Pesoren berbaldia**

Arantzazuko Liburutegiko San Agustinen 1495eko inkunabela

berriztatu du azken hilabeteetan Henar Pesok.

Bihar, zapatua, Arantzazuko Gogartetxean, 12:00etan.

ANTZUOLA Menpekotasunaren gaineko hitzaldia

Hector Prieto aretxabaletarrak egingo du berba menpekotasunaren eta elbarritasunaren gainean.

Ekainaren 17an, Orlanaren, 18:30ean.

BERGARA Lokarriren Bergarako foroa

Tolerantzia baldintzak. Euskal Herriaren iragana, oraina eta geroa delako berbaldia egingo du Jexus Mari Mujikak. Ekitaldia irekia da herritar guztiendako. Ekainaren 17an, Miguel Altunan, 19:00etan.

BERGARA Nafarroari buruzkoa

Erlantz Urtasunek *Nafarrok/¿quien habla en nombre de Navarra?* delako liburua aurkeztu eta ostean izen bereko berbaldia egingo du.

Ekainaren 17an, Irizar jauregian, 19:00etan.

BERTSOLARITZA**OÑATI Bertso paperak kantaldia**

Oñatiko Euskal Memoria Taldeak *Filtro 20 urte* jardunaldien barruan antolatutako ekitaldia

Gaur, egubakoitza, Arrano tabernan, 22:00etan.

IRTEERA**ARAMAIO Europako mendietara**

Orixol elkarteko kideak Asturias aldera egingo dute ibilaldia aste bukaeran.

Bihar, zapatua, autobus geltokitik, 06:30ean.

DEIA**OÑATI Odol-ateratzea**

Txantxiku Ikastolako aretoan egingo dute udako oporren aurreko azken ateratzea.

Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:30ean.

OÑATI Paperezko hegazkinen VI. txapelketa

Izen-ematea zabalik egongo da txapelketa hasi arte

Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 18:30ean.


Gure Ametsa

Gatzetxea

Ezkontza berezia eta ahaztezina!



943 71 49 52 • Leintz Gatzaga • www.gureametsa.es



goiena

2014-06-13

BUKATZEKO

Euskara galdu zen, eta berreskuratu


- ▶ Carlos Errasti arrasatearrak Lapuebla de Labarcako Assa Ikastolan dihardu lanean, duela 28 urte
- ▶ Euskarak Arabako Errioxan izan duen bilakaera oso positiboa dela iritzi du irakasle arrasatearrak

MIREN ARREGI | ARRASATE

Lapuebla de Labarcan ospatuko da etzi, domeka, aurtengo Araba Euskaraz. Assa Ikastolak, hirugarrenez du Arabako ikastolen aldeko jaia antolatzeke ardurara. *Mugan bizi, bizi* lelopean ospatuko da hori, eskualdean euskararen ezagutza eta erabileraren areagotzearen erantzule den ikastolaren eskutik. Izan ere, Arabar Errioxako Ikastolek egindako lanari esker, duela 30 urte baino euskaldunagoa da orain Errioxarekin muga egiten duen eskualde hori.

Galera eta berreskuratzea

Guraso eta auzokide batzuen inizatibaz sortu zen Assa Ikastola 1977an; euskararen galera modurik gordinenean gertatutako lurraldean, haren berreskuratzea helburu bezala hartzen delarik. 30 urte geroago, emaitzak ikusi egiten dira: "Ni hona ailegatu nintzenezan kalean euskaraz entzuten nuen bakoitzean buelta ematen nuen zintzuk ziren ikusteko. Momentu honetan 40 urtetik beherako pertsona batekin elkartu eta euskaraz eginez gero, ulertu eta erantzuteko gai dela esango nuke". Carlos Errastirenak dira hitzok. Arrasatearrak, 28 urte daramatza



Errasti, Josu semearekin. | CE

Assa Ikastolan lanean eta dio, bilakaera oso positiboa izan dela: "Ikasle ohi horien seme-alabak dauzkagu orain ikastolan...".

Urte osoko lana

Eguraldi ona espero dute domekan Lapuebla de Labarcan eta bada-kite hori dela arrakastaren oinarrietako bat. Bestea, urtean zehar egindako lana: "Ikasturtea zoratzeko modukoa izan da. Lan itze-



Carlos Errasti, Assa Ikastolan, ikasleekin. | CARLOS ERRASTI

la izan dugu. Baina prestaketa lanetan izan ditugun ekintzatan jendearen inplikazioa kristona izan da. Irakasle, ikasle ohi, guraso, irakasle... Kanpoko jendearen inplikazioa itzela izan da eta igandean ere horrelakoa izatea espero dugu", dio Errastik.

Laguntza da, Araba Euskaraz

Etzi, domeka, Araba Euskaraz jaietan aterako duten diruaren

ganean galdetuta, dio "zuloak tapatzeko" erabiliko dutela. Izan ere, eraikinetan badaude ordaindu beharrekoak eta batez ere garraioarekin dute "zor handiena": "Imajinatu, 300 bat ume, egunero, Arabako Errioxako herri txiki guztietatik joan eta etorri... Logroñotik ere badator jendea", dio. "Horrek gastu handia suposatzen du, eta ez daukagu diru laguntzarik", gaineratu du.

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE




Gure esku

50.000 laguneko giza kate batek eskatzen duena ez da inoiz ahuntzaren gauerdiko eztula. Gogoan dut gaztetxo nintzela, 80ko hamarkadan, nola joaten nintzen gurasoekin Bilboko kaleetan zehar manifestaldi baketsuak egitera autodeterminazioa, erabakitzeke esku-bidea, kontzertu ekonomikoa, euskal hezkuntzaren esparrua eta abar aldarrikatzen. Gogoan dut Ibarretxe lehen-dakariak nola defendatu eta aldarrikatu zuen euskaldunon erabakitzeke eskubidea Madrilgo Kongresuan 2005eko otsailean Eusko Legebiltzarraren gehiengoaren mandatuaz. Orain berriz Gure Esku Dago ekimenaren bitartez milaka euskaldunek aldarrikatu dute erabakitzeke eskubidea. Eman du zer esanik eta emango du oraindik ekimen ikusgarri honek, baina erabat baztertu beharreko arriskua alderdikeria da. Erabakitzeke eskubidearen aurka nahiz alde egon, alderdi politikoen gainetik egon behar du ekimen honek, horrela bakarrik izango du guztientzako legitimitatea eta horrela izango da geldituzko indarra. 80ko hamarkadatik hona geroz eta gehiago gara erabakitzeke eskubidea aldarrikatzen dugun euskaldunak eta hau ukatzen digutenek ezingo dituzte belarriak itxi denbora luzez.



Orain modelo berriak
argitasun handiagorekin



gelatzo S.L.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51